

Zu hemen zaude. goiena

**S.O.S.
VALENCIA
BILKETA
SOLIDARIOA
RECOGIDA**



VALENTZIARAKO MATERIAL-BILKETEK AURREIKUSPEN GUZTIAK GAINDITU DITUZTE

Lehenengo egunetik egin dute gainezka biltegi inprobisatuek, eta boluntario-talde gehienek erabaki dute bitartekariak saihestu eta materiala zuzenean Valentziara eramatea / 2

Boluntario-talde bat furgoneta kargatzen Arrasateko Ezker Gunean, eguaztengan. IMANOL SORIANO



**Dena gertu
'Hamelingo txirularia'
ikuskizunaren lehen
lau emanaldiak
ikusteko** / 34



Arrazakeriaren goranzko joera aztergai

Maidier Triviñori elkarrizketa, autismoaz

**Aitortza-ekitaldia
Guardia Zibilak
1978an hildako
Emilia Larrea Saez de
Adanari** / 9

**Debagoieneko 288
atleta izango dira
domekan jokatu-
ko den Behobia-Donostia
lasterketan** / 32

**'Marco' filma
estreinatuko dute
aste bukaeran, eta
bederatzi emanaldi
izango dira Oñatin** / 29

SINADURAK

AMAGOA LASAGABASTER / 6	INAZIO NARBAIZA / 22
EÑAUT MUXIKA OLASAGASTI / 9	IRENE PEREZ ZUMALDE / 28
JULEN ABASOLO GALLASTEGI / 16	MIKEL BIAIN / 40

BLACK FRIDAY

2MÓ 89€

lehen 99€

erreflexuen aurkako
betaurreko graduatuak

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



R.P.S. 91/20

MULTIÓPTICAS

943 79 29 95
Otalora Lizentziaduna, 18
ARRASATE



943 76 15 75
Ibargarai, 16
BERGARA



www.multiópticas.com



Debagoiensean bildutako elkartasuna, zuzenean Valentziaraino

Debagoieneko herri gehienetan egin dira Valentziara bidaltzeko material-bilketak. Esperotako kopuruak askogatik gaintu dituzte. Horrez gain, herritar batzuk joan dira bertaraino, materiala eramateaz gain garbiketa-lanetan laguntzeko

Jone Arruabarrena DEBAGOIENA
Joan den asteko asteartean egin zuen eztanda Valentzian DANA ekaitzak. Denboraleak kalte handiak utzi ditu: 219 hildako daudela dio, astekari honen itxieran, Valentziako Generalitateak. Horrez gain, galera materialak ere ez dira nolana hikoak izan: milaka pertsona geratu dira etxe gabe. Denboralea izan den herrietako garajeak urez bete eta kalean zeuden autoak eraman ditu, eta kaleak guztiz txikituta eta lokatzez beteta geratu dira herri askotan.

Kalte horiek arintzeko asmoz, elkartasun ekintzak abiatu dituzte leku askotan; bai kalte-tuentzako materiala biltzen, zein uretako botak jantzi eta bertara joanez, kaleak garbitzen laguntzera.

Debagoieneko herritarrek ere egin dute ekarpena: batzuk Valentziaraino joan dira, materiala banatu eta garbiketa-lanekin laguntzera. Badago han bizi den debagoiendarririk ere. Beste asko ez dira hara joan, baina materiala eta dirua eman dute, dohaintzan, kaltetutakoei helarazteko. Hain zuzen, eskualdeko herri askotan bilketak egin dira, eta lehenengo egunetatik gainezka egin dute biltegiak. Antolatzaileek harriduraz hartu dute elkartasun-uholdea, eta lagatako pabiloietara lekualdatu behar izan dute askok materiala, lekurik gabe geratu direlako.

Hainbat bilketa Debagoiensean
Bergaran, Arrasaten, Eskoriatzan, Oñatin eta Aretxabaletan egin dituzte bilketak, besteak beste. Gehienak aste barruan izan dira, eta asteburuan, batutakoa Valentziaraino eramateko asmoa dute, furgoneta, auto zein kamioietan. Janaria

eta ura biltzen hasi ziren hasieran, baina azken egunetan Valentziako bizilagunek zabaldu dute garbiketarako tresnak direla gehien behar duten ma-

teriala. Boluntarioek azpimarratu dute Debagoieneko herri guztietan egon den elkartasuna.

Arrasaten, esaterako, Ezker Kultur Gunean eta Musakolako

"Laguntzera doan jendearekin beteta joaten dira autobusak"

OIER ELORTZA VALENTZIAN BIZI DEN BERGARARRA

Valentzian bizi da Oier Elortza bergararra, bertan ikasten dabilelako. Han harrapatu zuen DANA ekaitzak, eta garbiketan laguntzen dabil orain.

Non zeunden ekaitza hasi zenean?

Valentzia hiriburuan bizi naiz, erdialdean. Egun hartan etxean nongoen, eta bat-batean hasi ginen alerta gorriak jasotzen. Hasieran pentsatu genuen gehiegizkoa zela. Gure eremuan ez

zuen euririk egin. Horren ondoren, telebista piztu nuen eta ikusi nuen txikizio guztia.

Noiz erabaki zenuen ondoko herrietara laguntzera joatea?

Egunean bertan kendu zizkiguten unibertsitateko eskolak; momentuz, ez daukagu eskolarik azaroaren 10era arte. Hori jakin

genuenean hasi ginen gure artean antolatzen, laguntzera joateko. Hasieran Euskal Herrian ez zegoen laguntzeko punturik edo materiala jasotzeko modurik, eta nire ingurukoei esan nien *bizum* bidez dohaintza bat egiteko, eta diru horrekin hemen ibili naiz gauzak erosten eta herrietara eramaten.

Non ibili zara laguntzen?

Catarrojan eta Benetusserren ibili naiz, besteak beste.

Nola joaten zara haraino?

Hona gehienok Valentziatik autobus publikoan etortzen gara. Autobusak uzten gaituen punturaino joaten gara denok. Handik aurrera dena oinez egiten dugu, ordubetez edo ordu eta erdiz, herriraino joan eta bertan eguna garbitzen emateko. Laguntzera doan jendearekin goraino beteta joaten dira autobusak egunero. Guztiak errazekin eta garbiketa-tresnekin joaten dira.

Nolako egoera aurkitu zenuen lehenengo egunetan?

Oso gogorra. Lehenengo aldiz garbitzera joan ginenean, emakume bat etorri zitzaigun, negarrez, eta eskatu zigun haren taberna garbitzen laguntzeko.



OIER ELORTZA



Jonathan Galan, ezkerrean, Valentzian, garbiketa egiten. JONATHAN GALAN

Beberly tabernan egin dute bilketa. Furgoneta bat zen irteteko egunean Valentziarantz, baina, azkenean, bi izan dira. Gaztetxeak ere iragarri du larunbatean

egingo dutela material-bilketa, 10:00etatik 20:00etara.

Bergaran ere antolatu dira eta hiru kamioi eta lau furgoneta bidali dituzte, gutxienez. Berga-

"70 uretako bota baino gehiago bildu ditugu gure dendan"

ISA NEGREIRA OÑATIKO LUAR DENDAKO LANGILEA

Oñatiko Luar dendan material-bilketa hasi zuen asteartean Isa Negreirak. Bildutakoa Valentziara eramango du asteburuan.

Nola otu zitzaizun bilketa egiten hastea?

Astelehenean etxean nongoen, alabarekin, eta hark Valentziara joan nahi zuen, hondamendiko biktimei laguntzera. Ikusi genuen oso zaila zela momentu hartan, baina pentsatu genuen laguntzeko bilketa bat egin genezakeela. 00:30ean

hartu genuen erabakia, eta hurrengo eguneko goizeko hamarretan hasi genuen bilketa.

Nolako harrera izan du?

Izugarria izan da. Nire alabak sare sozialetan 00:09etan iragarri zuen bilketa egingo genuela. 10:00etarako, jada jendea dendan zegoen, Valentziara bidaltzeko


materialarekin. Jendeak oso ondo erantzun du. Uste dut ekarri dutena erabilgarria izango dela: 70 uretako bota baino gehiago, baita elektrizitate sorgailu bat ere.

Nola eramango duzue materiala haraino?

Materiala eramateko kamioi bat lortu nahian gabilta, eta, bestela, deialdi bat zabalduko dugu, nahi duten herritarrek euren autoetan materiala eraman dezaten. Ez dugu nahi trailer ofizial batean sartu eta Gurutze Gorriak edo Armadak eramaterik. Kalera atera nahi dugu, bertako herritarrengana joan, eta guk eman. Zabalitzen ari diren informazio askok diote jada ez dela behar material gehiagorik. Baina bertako herritarrekin hitz eginez gero, esaten dizute behar dela, eta asko, gainera.

Valentziako herritarren bat ezagutzen duzue?

Kontaktua daukagu Valentzian materiala banatzen dabilen jendearekin. Zer behar duten ikusi nahi dugu, laguntza gutxien jaso dutenei banatu. Beharren arabera zehaztuko ditugu banaketak.



ISA NEGREIRA

rako Zezenak taldeko Iñigo Almortzarekin elkarlanean eramango dute falta den materiala; Chiva herrira doa Almortza.

Aretxabaletako bilketak ere erantzun oso ona izan du, eta, horrez gain, herriko gazte batzuk ere joango dira asteburuan Valentziara, laguntzera.

Eskoriatzan, Atama Eskoriatza Kenpo taldekoak aritu dira bilketa egiten. Jonathan Galan eskoriatzarra, aldiz, han dago duela egun batzuetatik, furgoneta bete materialekin. Gaylur Euskadi elkarteak kidea da Galan, eta, Valentziako egoera ikusita, material-bilketa egitea otu zitzaion, beste lagun batekin batera. Laster batu ziren egitas-mora beste zenbait lagun, eta, azkenerako, elkartearen ekintza bat bihurtu da. Dohaintzak egi-

teko kontu korrante bat sortu dute, eta bertan bildutako diruarekin Valentziara eramateko materiala bildu dute. Astelehenan atera zen Eskoriatzatik Galan, furgonetan. Euskal Herriko beste txoko batzuetatik irten ziren haren lau lagun ere, bakoitzak bere autoa beteta zuela, Valentziara eramateko materialarekin. "3.000 euro bildu ditugu egun gutxian. Elkartasuna izugarria izan da. Azkenean, gure autoak goraino betetzeaz gain, materiala sartzeko beste

HERRITARREN BEHARREN ARABERA EGINGO DUTE VALENTZIAN MATERIAL BANAKETA

furgoneta bat alokatu dugu, eta neska batek bere burua eskaini du furgoneta gidatu eta materiala banatutakoan hona buelta egiteko", azaldu du Galanek.

Egoera aldakorra da, Galanek azaldu duenez, eta ez dute plan zehatzik izan azken momentura arte. "Hasieran pentsatu genuen Utielera joatea, baina momentu batetik bestera aldatzen dira bertako biztanleen beharrak. Horien arabera joango gara leku batera edo bestera. Zapatura arte egongo gara bertan", esan du.

Eskoriatzarraren lagunetako batek 4x4 erako autoa ere eramango du, Valentzian lokatzak eramandako autoak mugitu eta sarbide zaila daukaten lekutara materiala eramateko. "Nahi duguna da material ahalik eta

gehien eraman eta ahalik eta pertsona gehienengana heldu", bukatu du.

Suhiltzaileak, Valentzian

Herritarrez gain, Eusko Jaurlaritzak ere laguntza bidali dio Valentziako Generalitateari. Besteak beste, 90 suhiltzaile inguru abiatu ziren joan den domekan; horietako bi, Oñatiko Zubillagako suhiltzaile estazio-koak. Josu Idigoras Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu zuzendari nagusiak GOIENARI

ZUBILLAGAKO SUHILTZAILE ETXETIK BOST SUHILTZAILE JOAN DIRA VALENTZIARA

adierazi dio batetik bestera ibili direla han: "Valentziako Generalitateko koordinazioak esan die hara bidalitako suhiltzaileei nora joan eta zer egin: lehenengo, Paiportan egon ziren, eta gero, Alfafarera eta Massanassara mugitu ziren". Egindako lanen inguruan, berriz, adierazi du gehienbat ura ateratzen egon direla, eta, horrez gain, lokatza ateratzen ere lagundu dutela.

Asteazkenean hartu zuten erreleboa suhiltzaileek, eta Euskal Herriko beste larrialdi talde bat joan da azken egunotan garbiketala-lanetan laguntzera. Bigarren lantalde horretan joan dira Zubillagako beste hiru suhiltzaile. Handian da DANA ekaintzak eragindako hondamendia. Luze joko du egoerak normaltasunera bueltatu aurretik.

Valentziara laguntza, bailarako herri askotatik



Arrasateko Ezker Kultur Gunean bildutakoa sailkatzen. IMANOL SORIANO

ARRASATE Ezker Kultur Gunean eta Beberly tabernan egin dute bilketa Arrasaten. Juan Luis Merinok, bilketaren sustatzaileetako batek, azaldu duenez, harreman zuzena dute Valentzian dauden herritarrekin. Atzo joan zen Merino bera Valentziara. Furgoneta bat eramatekoak ziren hasieran, baina, azkenean, bi bete dituzte.



Joandako bigarren suhiltzaile taldea, tartean hiru Zubillagakoak. FORU ALDUNDIA

OÑATI Zubillagako suhiltzaile etxetik Ibai Navidad suhiltzailea eta Joseba Elduairen sarjentua irten ziren igandean, Gipuzkoako beste suhiltzaile batzuekin batera. Asteazkenean, berriz, igandeko tanda bueltatu zen, eta erreleboa hartu zieten artean dira Zubillagako etxeko Julen Martiartu, Joseba Ormazabal eta Unai San Miguel.



Bergarako boluntario talde bat pabilioi batean materiala antolatzen. X.U.

BERGARA Oskar Ortizek eta Noelia Garciak material-bilketa jarri dute martxan, Valentziara laguntza bidaltzeko. Bergara Zezenak taldeko Iñigo Almortzak harremana dauka Valentziako Chiva herriarekin, eta garbitzeko makineria eramango du. Ortizi eta Garciari ere lagunduko die bildutako materiala Valentziaraino eramaten.



Aretxabaletako boluntarioak, materiala antolatzen. MIRARI ALTUBE

ARETXABALETA Lagun kuadrilla batek dei eginda, Valentziara bidaltzeko materiala batu dute Aretxabaletan ere. Egun batzuek mota guztietako materiala bildu ondoren, eguaztenean bidali zuten furgoneta bat Valentziara. Dirua ere batu dute; batik bat, furgonetaren eta gasolinaren gastuetarako.

Euskararen alde egiteko saskiak, eskuragarri

Urtero bezala, martxan da Nafarroa hegoaldeko euskalgintza sustatzeko Errigoraren udazkeneko egitasmoa. Askotariko produktuez osatutako hiru saski jarri dituzte salgai. Zuberoako ikastolek beste hiru saski jarri dituzte salgai, haien finantzaketarako

Gontzal Belategi Zubia DEBAGOIENA

Beste urte batez, martxan da Errigora ekimenaren udazkeneko egitasmoa. Agerreko, hau da, Nafarroa erdi eta hegoaldeko produktuz osatutako hiru saski eskainiko dira, eta horien balioaren %25 zonako euskalgintzari bideratuko zaio. *Agerreko uzta, euskarari puzka* da kanpaina berriaren leloa, eta azaroaren 24ra arte iraungo du. Aurten hamaikagarren edizioa izango da, eta hainbat berritasun prestatu dituzte: hiru saski ezberdin izango dira aukeratzeko, eta, horrez gain, bestelako produktuak ere badituzte.

Nola erosi

Prezio ezberdina duten hiru saski jarri dituzte salgai: saski beltza (55 euro), saski berdea (65 euro) eta saski gorria (75 euro). Horrez gain, *Agertuz* karta jokoa eskatzeko aukera ere egongo da, bost euro gehiago ordainduta. Jokoa ezingo da bakarrik erosi, gehigarri bat izango da. Produktu guztiak *errigora.eus* atarian erosi daitezke.

Euskalgintzaren alde

Ekimenak ateratako saskiek Nafarroa hegoaldeko euskalgintza bitartekoz hornitzea dute helburu, balia bide ekonomikoak



Aurtengo kanpainaren aurkezpen ekitaldia Bilbon. ERRIGORA

ERRIGORA EKIMENAK EUSKARAREN ALDEKO HIRU SASKI JARRI DITU AURTEN ESKURAGARRI

emanaz. Aintzane Aristegik, Errigorako komunikazio arduradunak, honela azaldu du egitasmoaren helburua: "Aurtengo kanpaina hamaikagarrena da, eta, hamaika aldiz egin arren eta sekulako babesa jaso arren

Nafarroa hegoaldeko euskalgintza sustatzeko, oraindik ere badago behar bat baliabidez hornitzeko. Behar horretatik abiatuz ekin diogu kanpaina honi berriz ere udazkenean".

Zozketa Goienakideentzat

Goienak saski gorri bat du Goienakideen artean zozketatzeko. Azaroaren 8an jarriko da martxan zozketa, eta irabazlea azaroaren 29an argitaratuko da. Hauek dira parte hartzeko bideak: *Goiena* aplikazioa, *Goiena.eus* webgunea, 943 25 05 05 zenbakia eta Whatsapp.

Mondragon Unibertsitateak Zientziaren Astea ospatuko du

DBHko eta batxilergoko ikasleei bideratuta egongo da eta ekintzak azaroaren 11tik 15era izango dira

G.B.Z. DEBAGOIENA

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak hainbat lantegi eta jarduera antolatu ditu azaroaren 11tik 15era bitarte, Zientziaren Astea ospatzeko. Ekintzak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta batxilergoko ikasleei bideratuta egongo dira, eta horien helburua bokazio zientifiko-teknologikoak sustatzea izango da.

Egitarau oparoa

Azaroaren 11n hasiko dira lehen ekintzak. Hasteko, ihes-gela bat prestatu dute Garaia parke teknologikoan, 09:00etatik 11:00etara. Jarraian, 11:00etatik 11:30era, ikasleek erakusketa bat ikusteko aukera izango dute, zientzia arloan lanean diharduten emakumezko erreferenteen berri izateko. Azkenik, 11:30etik 12:30era, bisita gidatu bat izango dute Iturripeko campusean.

Hilaren 13an, Danobat Group-eko ordezkariak hitzaldi bat emango dute Garaian, eta, horren ostean, 10:30etik 12:30era, Euskal Herriko parke naturalen *app* lantegia egingo dute, parte-hartzaileek parke naturalen inguruko aplikazio bat diseinatzen

ikasiaz deitzen. Hurrengo egunean, azaroaren 14an, 17:00etatik 18:30era, ikasleek, euren senideekin batera, adimen artifizialaren eguneroko erronkak ulertzeko aukera izango dute.

Azken egunean, hilak 15, hainbat ekintza egingo dituzte. Hasteko, 10:00etatik 10:45era, ZTIAM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Arte eta Matematika) arloan erreferente diren hainbat kidek mahai inguru bat egingo dute, ikasleek gai zientifiko-teknologikoen inguruan dituzten zalantzak argitzeko. Ostean, 10:45etik 11:00etara, arrautza-jaurtiketako txapelketako irabazlearen bideoa iragarriko dute. Ekintzak amaitzeko, bisita gidatua izango dute ikasleek 11:00etatik 13:00etara, Garaia parke teknologikoan dauden enpresak ezagut ditzaten.

Bergaran ere jardunaldiak

Mondragon Unibertsitateak antolatutako ekimenak ez dira ibarrean zientziarekin lotuta egiten dabilzan ekimen bakarrik; Bergaran Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza (ZTB) jardunaldiak egiten dihardute (Informazio gehiago 20. orrian).



JOKIN BEREZIARTUA

Bertso berriak egoitzan jarriak

Bertso bira ekimenak bere bidea egin du ibarreko adineko egoitzetan. Martitzenean, Andoni Egaña eta Ainhoa Agirreazaldegiren Bergarako Mizpirualde egoitzan izan ziren kantuan, eta atzo, Anjel Mari Peñagarikano eta Maider Arregi Arrasateko Iturbiden izan ziren. Gaur, Peñagarikano eta Ane Zuazubiskar Aretxabaletako GSR Debagoian izango dira, 11:00etan.

Saskiak Zuberoako ikastolen alde

Errigora ez da euskararen alde saskiak saltzen dituen ekimen bakarra. 2003a ezker, Zuberoako bi ikastolek bertako produktuz osatutako saskiak saltzen dituzte, haien finantzaketarako. Hiru saski jarri dituzte eskuragarri: Pettarra (50 euro), Arbaila (57 euro) eta Basabürüa (68 euro). Saskiak *ikaskoli.eus* atarian eskuratu daitezke, azaroaren 24ra arte.



Zuberoako ikastoletako hainbat kide saskiek. ZUBEROAKO IKASTOLAK



2023ko Movember topaketa, Elorregin. GOIENA

Movember topaketa zapatuan Elorregin

Urteroko zita da dagoeneko, eta 11:30erako egin dute biharko hitzordua. Ondotik etorriko dira bai Arrasaten bai Bergaran antolatutako ekintzak. Helburuan da gizonezkoen osasun arazoei agerikotasuna ematea

Gontzal Belategi Zubia DEBAGOIENA
Azaroa heltzen denean hainbat bibote ikusten dira Debagoieneko kaleetan barrena, Movember egitasmoarekin elkartasunez. Mondravemberreko kide Iban

Arroiaberen arabera, helburua gizonezkoen osasunaren inguruko kontzientzia zabaltzea da: "Australian 2003an sortutako egitasmoa da. Movemberren helburua gizonezkoen osasun

arazoei agerikotasuna ematea da; tartean, prostatako minbiziari, barrabiletako minbiziari eta osasun mentalari". Gaia jorratzen duten elkarteei ematen zaizkie irabaziak.

Arrasateko taldeak hamar urte
Aurtengo azaroa, gainera, berezia izango da, Arrasateko Movember taldeak hamar urte bete ditu eta: "Duela hamar urte, nire lagun batek susto txiki bat izan zuen prostata inguruan, eta, mugimendu bat sortzen zebilela ikusita, honetan hastea erabaki genuen. Taldeak garapena izan zuen eta duela urte batzuk Mondravember sortu genuen". Ibilbidearen balorazio "oso positiboa" egiten du Arroiabek.

Topaketak Elorregin

Urtero, ibarreko taldeek topaketa antolatzen dute Elorregin, eta aurten azaroaren 9an izango da, 11:30ean. "Bertso saio bat antolatu dugu eta musika ere egongo da. Mokadutxo bat hartu nahi duenak ere izango da aukera. Ordu pare bat izango dira elkarrekin egoteko. Egun polita izaten da".

Emanaldi berezia Arrasaten

Arrasateko taldeak antolatu duen ekintza nagusia Amaia antzokian egingo den emanaldi berezia izango da. Azaroaren 16an izango da, 19:00etan hasita,

eta hainbat talde izango dira bertan; besteak beste, Neomak, Etxepe, Sertx, Mikel Urdangarin eta Txorbela Otxotea. "Aurten zerbait berezia egin nahi genuen. Zaila izan den arren, denon artean egindako lanari esker emanaldi txukuna antolatu dugula esango nuke", dio Arroiabek. Sarrerak *Arrasate.eus* atarian eskuratu daitezke, 15 eurotan. Goiena Komunikazio Taldeak osorik grabatuko du.

Egitarau zabala Bergaran

Bergaran egitarau oparoa antolatu dute: azaroaren 14an, 19:00etan, Lola Dacostak *Sexualitatea prostatako minbiziari sendatzean* hitzaldia egingo du Irizar jauregian. Hurrengo egunean, 18:30ean, spinning-rocka egingo dute Agorrosinen. Azaroaren 22an, berriz, Maddi eta Irene Ventin eta bertsolariak Pol-Polen izango dira, 18:30ean hasita. Hilaren 29an, Elgoibarko Brilet taldearen kontzertua izango da Ventin, 18:30ean. Amaitzeko, azaroaren 30ean, 11:30ean elkartuko dira. Mendi buelta bat egin, elkarrekin bazkaldu eta bibotea moztuko dute.

Esan agur barizeei!

Zure barizeen tratamendurako kirurgiarik gabeko konponbidea

Zainetako ultzera eta kirurgiaren ondoren berragertutako barizeetan espezializatutako erradiologo interbentzionistak

Ibilbide zabal baten ondoren eta Varitek kliniketan arrakastaz sendatutako zain safenoen 2.500 kasu baino gehiagoren ostean, kirurgiaren beharrik gabeko metodologia berritzaile eta zehatza osatu dugu barize mota guztien tratamendurako.

Diagnostiko xehe baten bidez, tratamendu pertsonalizatuak diseinatzeko ditugu, pazientearen bizitzan ahalik eta eragin txikiena izan dezaten. Horretarako, barizeak kirurgiarik gabe, ospitaleratzetik eta konbaleszentziarik gabe eta adin-mugarik gabe tratatzeko aukera ematen diguten teknikak erabiltzen ditugu.



RPS 55/19

variTek

EGOITZA BERRIA! ▶

Alameda Rekalde 13
Bilbao-Bilbo



BILBO
690 623 391

Atotxa Zelala plaza z.g.
Donostia-San Sebastián



DONOSTIA
666 776 159

Florida kalea 72
Vitoria-Gasteiz



GASTEIZ
689 338 931

varitek@varitek.es    www.varitek.es

LAGUNAROREKIN ADOSTASUNA  LAGUN ARO



ZABALIK

AMAGOIA LASAGABASTER

Serio?

Matraka ederra ematen ari dira aspalditik enpresariak eta politikariak absentismo laboralarekin. Konbentzituta nago medio batzuen helburua dela gutxi batzuei oihartzuna eman eta kalean bajen gaineko iritzi maltzurak zabaltzea. "Hori? Hori beti bajan dago!", dio batek. "Funtzionarioek igual kobratzen dutenez, sarri-sarri bajak hartzen dituzte", dio besteak. Eta horretan gabiltzala... hara! Oharkabea, abuztuko oporren bezperan, Espainiako Gobernuak erretiro erreforma bat adostu zuen Estatuko sindikatu nagusiekin elkarrizketa sozialeko mahaian. Aldaketaren titulu nagusia erretiroei dagokien arren, kezkatu nauen puntuak ez du zerikusirik gai horrekin. Lege bihurtu beharreko neurrien artean, nahiko kamuflatuta nire iritziak, baja traumatologikoen jarraipena mutuei ematea proposatu dute. Onartuta Gizarte Segurantzako osasun publikoko medioek ez dutela behar besteko kapazitate horiei tratamendu

BAJAK AHAL DEN ETA LABURRENAK IZATEKO, NEURRI BERRIAK JARRIKO DITUZTE

dituzte. Eta diru publikoa osasun sistema publikora bideratu beharrean enpresa pribatuei bideratuko zaiela. Osasungintzaren pribatizaziorako beste pauso bat, alegia.

Absentismoari begira, neurri horrekin bajak gutxituko dira? Ez dut uste. Osakidetzako saturazio arazoak konponduko dira? Kar, kar, kar... Hemen, betiko moduan, galtzeko gehien langileak du. Aspalditik ezagutzen ditugu mutuen praktikak. Lehenengo eta behin, kategorikoki, zure patologia ez dela lan-gaixotasuna esango dizute, eta gero ahal den bajarik motzena izan dezazun presioa egingo dizute. Gaixotasunak ez lirateke inoiz negozio bilakatu behar. Hasi gaitzen premisa horretatik legeak egiten. Orain, *baja malgukin* hasi dira. Baja eta lana bateragarri egiteko legea onartu nahi dute. Serio?

egokia emateko, horien gaineko proba medikoak –besteak beste– mutuen esku utzi nahi dituzte. Labur esanda, bajak ahal den eta laburrenak izateko, neurri berriak jarriko

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Stockean geratzen dena

JONE AMONARRIZ

'BERRIA'-N ARGITARATUA

[HTTPS://LABUR.EUS/N5DZQ](https://labur.eus/N5DZQ)

Liburu-dendara sartu naiz haurrentzako bi liburu erosteko asmotan: Ttarttalok euskaratu berri dituen *Alua du izena* eta *Zakila du izena*. Sexu heziketan aditua den Anna Salvia psikologoaren eta Cristina Torron ilustratzailearen bilduma batekoak. Bada, nire harridurarako, lehena amaituta dagoela esan dit dendariak. Alegia, aluarenak laster iritsiko direla gehiago, baina zakilarenak bakarrik geratzen zaizkiola. Eta ez dakit nire pertsona edo

barneko pertsonaiaren bat izan den, baina hasperen-barre txiki batek ihes egin dit ahots gora eta esan diot itzuliko naizela beste batean, bi liburuak batera bildu nahi ditudalako opari paperean.

Gertatutakoa ez litzateke adierazgarria liburu baten ordez beste falta izan balitz. Ezin da alderatu, baina, fruta dendan errezil-sagarren eta Granny Smith-en salmentan dagoen desberdintasunarekin. Honetan kasualitateak ez da. Kasualitateak, hamaika: sexu heziketaren falta, genero rol eta estereotipoak, boterea...

Iñigo Errejonenarekin batera beste hainbat kasu azaleratu dira berriki Euskal Herrian ere. Berrienetik

hasita, Lendakaris Muertoseko gitarrista taldeak kanporatu dute indarkeria matxistarekin loturiko prozesu judizial batean sartua dagoelako, Apoteke musika taldeak aitortu du eraso matxista bat egiteagatik utzi zuela taldea abeslariak, Iruñean kiromasajista bat espeteratu dute sexu erasoak egitea egotzita, Tolosan kirol talde batek entrenatzaile bat baztertu du jazarpen kasu batekin baino gehiagorekin lotura duelakoan, zazpi urteko neskato bat bortxatzeagatik gizon bat atxilotu dute Bokalen, Angelun beste bat 75 urteko emakume bati sexu erasoak egiteagatik... [...]

goiena[“]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.
Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube,
Larraitz Zeberio.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administratzaile zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Leire Etxebarria.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Lana dakar Euskaraldiak, baina tresna eraginkorra da"

GOIATZ URKIJIO EUSKARALDIAREN KOORDINATZAILEA

Larraitz Zeberio Lekuona ARRASATE

Elkar mugituz egingo dugu lelopean, maiatzaren 15etik 25era egingo da laugarren Euskaraldia. Hainbat berrikuntzarekin dator, gainera. Euskaraldiaren koordinatzaile Goiatz Urkijok (Audio, 1994) eman du garrantzitsuenen berri.

Esan duzue oraingo Euskaraldiak Euskaraldia gaindituko duela; funtsean zer aldatuko da?

Esango nuke Euskaraldia berrituta datorrela. Aurretik hiru edizio egin ditugu eta hirugarrenaren ostean ariketaren hobetzekoak eta mantentzekoak identifikatzeko gogoeta prozesu bat jarri genuen abian. Euskaraldiaren bueltan aritutako hainbat eragile eta norbanakorekin egon ginen. Esan zigutena izan zen Euskaraldia eraginkorra dela, eta esentzia mantentzeko, baina berrikuntzak txertatzeko.

Irakurri dugu ilusioa berpizteko datorrela laugarren Euskaraldia.

Bai. Lehenengo Euskaraldiak espektatiba guztiak bete zituen. Ez genekien zer zetorren, eta etorri zena oso handia izan zen. Bigarren edizioa pandemia bete-betean egin genuen, eta ondo baloratu zen, garai gogor haietan euskara lehen lerroan jartzeko aukera izan



Goiatz Urkijo, eguaztenean, Arrasaten. L.Z.L.

genuelako. Baina hirugarren edizioan neke sentsazioa jaso genuen, eta hortik aldaketa baten beharra.

Egindako ikerketek frogatutaz ematen dute hizkuntza ohiturak aldatzeko Euskaraldiak duen eraginkortasuna, ezta?

Ikerketek argi esaten dute ariketa bitartean parte hartzaileen herenak hizkuntza ohiturak aldatu egiten dituela eta euskara gehiago egiten duela. Gerora ere, arrastoa uzten du Euskaraldiak eta helburua bete-betean betetzen

du. Lana dakar Euskaraldiak, baina euskararen erabileran urratsak egiteko dugun tresnarik eraginkorrena eta masiboena da.

Zenbat lagunek hartu dute parte aurreko edizioetan?

Aurreko hiru edizioetan 320.000 parte-hartzailek baino gehiagok hartu dugu parte. Munduan ez dago halako beste ariketa sozial masiborik. Euskaraldia ez da euskararen aldeko ez festa bat ez kanpaina huts bat. Ariketa bat da, erronkan jartzen gaitu,

lekutik mugitzen gaitu eta esfortzu bat ere eskatzen digu. Horregatik, datua oso ona da, sekulakoa.

Helburu berrietako bat da ariketatik mugimendura pasatzea.

Euskaraldiaren oinarria hamaika eguneko ariketa da, baina nahi dugu aurreko eta osteko lan guztiari balioa ematea. Maiatzeko ariketara heltzeko herrietan hasita daude mugitzen, eta ostean ere aprobetxatu nahi dugu mugimendu hori. Esan ohi dugu hamabigarren eguna dela garrantzitsuen.

Horiek esanda, nola berrabiaraziko duzue egitasmoa?

Hasteko eta behin, irudi erabat berria du Euskaraldiak. Bestetik, garai aldaketa ere badakar laugarren Euskaraldiak; izan ere, udaberrian egingo dugu oraingoan. Kalean eta elkarrekin egiteko ariketa da Euskaraldia eta uste dugu udaberrian beste aldarte eta giro sozial batekin ekingo diogula.

Euskara aktibatzaileen esku-liburua argitaratu duzue.

Euskara aktibatzaileak izango dira herriz herri Euskaraldiaren antolaketan murgilduko diren boluntario eta teknikari guztiak. Haiei eskaini diegu tresna berria, eta gidan aurrez aurreko harremanak berreskuratzeko, sarea ehuntzen joateko eta jende gehiagorengana heltzeko pistak ematen ditugu, besteak beste.

Ahobizi eta belarriprest rola eta txapak mantendu egingo dira; ariguneak ez.

Txapak oinarri-oinarrizkoak dira. Batzuetan, kosta egiten zaigu jartzea eta entzuten dugu: "Nik badakit euskaraz". Baina kontua da txapa aldamenekoarendako dela, jakin dezan gurekin lasai egin dezakeela euskaraz, eta estres linguistikoa jaisteko. Bestetik, Euskal Herria zabala da eta balioa eman nahi diegu bi rolei: bai *ahobizi* bai *belarriprest*. Rol horiek jolasean jartzen gaituzte eta jolas horrek mugimendu handia sortzen du. Ariguneen kasuan konturatu gara konplikatuegia zela iaz proposatu geniena eta ezin dugula berdin jokatu enpresa guztiakin: txikiak, handiak... Proposamen sinpleagoa egin diegu oraingoan entitateei. **Zeintzuk izango dira hurrengo urratsak?**

Herrien eta entitateen izen-ematea zabalik da. Euskal Herri mailako hamaikakoa ere aurkeztu dugu. Hurrengo mugarri nagusia abenduaren 6an izango da; abestia aurkeztuko dugu.


"BERRITUTA DATOR EUSKARALDIA; UDABERRIAN EGINGO DUGU, ETA IRUDITEGI BERRIAREKIN"

"TXAPAK ETA 'AHOBIZI' ZEIN 'BELARRIPREST' ROLAK OINARRIZKOAK IZANGO DIRA"

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI

AHT



PAUSORIK
EZ ETA
ARRASTO
LATZA

Astelehenetik domekara botatu ahal izango da geltokiaren kokapena

Azaroaren 11tik 16ra egingo dute herri galdeketa, BAZen, honako galdera honekin: 'Zure iritziz, zein da autobus geltoki berriaren kokapenik egokiena?'. Bi aukera izango dituzte herritarrek: Zalduspe –egungo kokapena– edo Laubide –Arizmendiarieta plaza–

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Iritsi da unea. Herritarrek autobus geltokiaren kokapenari buruz botatzeko aukera izango dute datorren astelehenetik zafura. "Autobus geltoki berria duina, eguraldi txarretik babestua eta eroso izango da, leku batean edo bestean, eta haren kokapena arrasatear guztion artean erabakiko dugu", nabarmendu du Maider Morras alkateak. Erabakia ezingo da loteslea izan, legeak baimentzen ez duelako, baina, gutxieneko parte-hartze berme batzuk betetzen badira, Udal Gobernuak herritarren erabakia errespetatzeko konpromisoa hartu du. Hala, 2024ko azaroaren 5ean –udalbatzak galdeketa onartu zuen egunean– Arrasaten erroldatuta zeuden 16 urtetik gorako arrasatearrek izango dute botoa emateko au-

kereta eta gutxieneko parte-hartzeak %30ekoa izan beharko du. Horrez gain, bi aukeren arteko gutxieneko aldeak %10ekoa izan beharko du –hau da, batak %45 eta besteak %55–. "Baldintza horiek beteko ez balira, azken erabakia Udal Gobernuaren eskuetan egongo litzateke", dio alkateak.

BAZen egongo da botatzeko aukera, eta hauteskundeetan botoa emateko erabili ohi duten sistema bera erabiliko dute. Beraz, nortasun agiria eraman beharko dute herritarrek botoa

16 URTETIK GORAKO ARRASATEARREK BOTATU AHAL IZANGO DUTE, NORTASUN AGIRIAREKIN

emateko. Modu berean, Biztanleriaren Arreta Zerbitzua zabalik dagoenean bakarrik botatu ahal izango da: astelehenean, martitzenean, eguaztenean eta egubakoitzean, 07:30etik 15:00etara; egunean, 07:30etik 18:30era; eta zapatuan, 09:00etatik 13:00etara.

Panel informatiboak herrian

Horrekin batera, panel informatibo batzuk jarriko dituzte herririko hainbat puntutan, aukera bakoitzaren alde positiboak zein negatiboak azaltzeko. "Informazio-gune horietan, modu laburtuan

GUTXIENKO PARTE-HARTZEAK %30EKOA IZAN BEHARKO DU UDAL GOBERNUAK ONTZAT EMAN DEZAN

bada ere, bi aukeren inguruko alde positibo eta negatiboak egongo dira jasota. Edozelan ere, informazio guztia webgunean egongo da eta horretarako sarbide zuzena izango duen QR bat edukiko dute panel informatiboak", adierazi du Garazi Etxeberria San Miguelek, Hirigintza, Trantsizio Ekologiko eta Mugikortasun zinegotziak.

Zalduspen mantentzen badute?

Gobernuaren esanetan, geltokia Zalduspen mantentzeak hainbat abantaila izango lituzke, hala nola eraikitzeak kostu txikiagoa –gainazalekoa–; disuasio-aparkaleku publiko bat eraikitzeak aukera; herribusarekin konektatuta; ospitalearekin gertutasuna eta konexio zuzena; distantzia luzeko autobusentzat sarbide erraza; egunean erdigunera 200 autobus baino gehiago sartzea ekidingo litzateke; eta, inguruneari lotuta, garapen ur-

banistikoa eta ekonomikorako pizgarri izateko aukera.

Alde txarrak, aldiz, izango lirateke herritar batzuentzat urrun geratzea eta bidaiariak ez luketela berehalako sarbiderik izango herriaren erdigunera.

Laubidera aldatuz gero?

Laubidera lekualdatuta, tokiko ekonomia suspertuko litzateke; zerbitzu, entretenimendu eta kulturarako sarbidea erraztuko litzateke, herritar gehiagoren-gandik gertuago egongo litzateke eta herribusarekin konektatuta egongo litzateke. Baina, kontrara, eraikitzeak kostu handiagoa eta obra konplexuagoa izango litzateke; zuhaitzak eta berdeguneak kentzea ekarriko luke, eta plaza baldintzatu; egunean herri barrura 200 autobus gehiago sartuko lirateke –guztira, 500 baino gehiago–; eta zaratak eta kutsadura handitu egingo lirateke auzotarrentzat.



Osoko bilkuran galdeketa onartu zuten unea. E.A.B.

Gutzizko adostasunik gabe onartua

Martitzenean egin zuten osoko bilkuran onartu zuten geltokiaren kokapenari buruzko galdeketa egitea. Garazi Etxeberria, Hirigintza, Trantsizio Ekologikoa eta Mugikortasuna Saileko zinegotziak, azaldu zuten Udal Gobernuak otsailean hasi zela Mugikortasun Plana lantzen eta ekainean galdetegi bat egin zietela herritarrei, 32 galderaz osatutakoa. "Horietako bat autobus geltokiaren kokalekuetako bat zen, eta ikusi genuen bi aukeren artean alde txikia zegoela. Bozkatu zutenen %43k egin zuten Zaldusperen alde eta %47k, Laubideren alde". Gainontzeko %10ek beste aukera baten alde egin zutela gaineratu zuten.

Horrez gain, aurkezpen bileretan ere jakin-min handiena piztu duen gaia izan dela adierazi zuten Etxeberria, eta aukera egokiena herritarrei galdetzea zela nabarmendu. Johanna Sanchez sozialistak galdeketa alde bozkatu zuten, galdeketa berak "hobetu beharreko nabardura batzuk" dituela argudiatu arren.

Jeltzaleek, azkenik, aurkako botoa eman zuten, eta Ander Garay bozeramaileak honela arrazoitu zuen haien botoa: "Herritarrei galdetzearen alde gaude, noski, baina ez gaude galdeketa horrekin ados. Galdeketa osoagoa eskatzen dugu. Adibidez, noranzko bakarreko etorbideen inguruan ere asko hitz egin da bileretan, eta ez da galdetegian txertatu. Gure ustez, hankamotz geratuko den galdeketa izango da".



Hainbat erabiltzaile autobusean sartzen, gaur egungo geltokian, Zalduspen. JOKIN BEREZIARTUA LIZARAZU



Eva Abuin (Elkarrekin Arrasate), Jasone Giraldo (EH Bildu), Aritz Murua (PSE-EE) eta Agurne Juldain (EAJ). GOIATZ ARANA

Emilia Larrea Saez de Adanari omenaldia etzi

Azaroaren 10ean, Memoriaren Egunean, egingo diote aitortza ekitaldia, 11:00etan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, Arrasateko Udaleko Bizikidetzak Batzordeak hala erabakita; Guardia Zibilak hil zuen arrasatearra, 1978ko azaroaren 15ean, tiroz

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Aurtien ere, aurreko urteetan adosturiko urratsei jarraipena eman nahi izan die Arrasateko Udaleko Bizikidetzak Batzordeak, Memoriaren Eguna hildako biktimei aitortza ekitaldiak egiteko baliatuz, eta, bide horretan, "Arrasateko herriarekin lotura estua duten biktimak aitortuz eta oroituz". Udalbatzan ordezkari politikoak duten lau alderdien arteko elkarlanari eta adostasunari esker, "motibazio politikozko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketen biktima den" Emilia Larrea Saez de Adana oroituko dute aurtien eta osoko bilkuren aretoan egingo dute ekitaldia, domekan, 11:00etan hasita. "Arrasatear guztiei dei egin diegu ekitaldira etortzeko", adierazi dute.

52 urterekin hil zuten

Argituz-ek 2018an egindako *Memoria partekatu baterantz. 1956-2018 Arrasate-Mondragón* liburuan jasotakoaren arabera,

Guardia Zibilak hil zuen Emilia Saez de Adana, 52 urte zituela. Eskoriatzakoa zen jaiotzez, baina Arrasaten bizi izan zen 8 urte zituenetik, Larrea baserrian. Honako hau dio liburuak: *Hiru semeren ama zen. 1978ko azaroaren 15ean baserriaren atarian zegoen, Jesus Maria Murgiondo semearekin eta bisitan joandako Crescencia Vidaurreta auzokidea eta haren alabarekin batera. Egun horretan bertan, arratsaldez, Komando Autonomo Antikapitalisteko kideek Aretxabaletako kuartela metrailatu zuten. Kaleko jantzita zihoazen hainbat agentek Arrasateraino jarraitu zituzten, eta tiro egin zieten: kideetako bi hil zituzten eta beste*

**AZKEN URTEETAN
MODUAN, BIKTIMEI
AITORTZA EGITEKO
BALIATUKO DUTE
MEMORIAREN EGUNA**

kide bat eta bi oinezko zauritu zituzten. Hiru minutu igarota, Arrasateko hainbat guardia zibil agertu ziren bertara, baina uniformerik gabeko guardia zibilak ezagutu ez eta tiro egin zieten. Balek ez zituzten guardia zibilak jo; bai, ordea, Emilia Larrea. Lepoan jo zuen bala batek, eta bertan hil zen.

Zortzi urte elkarlanean

2016an, memoria eta bizikidetzak lantzen hasi zen Arrasateko Udala. Hala, udalbatzan ordezkari politikoak zuten alderdien arteko elkarlanari esker, 1936-2018 urteen artean herrian izandako eta Arrasateko herritarrek pairaturiko indarkeriaren eta giza eskubideen urraketen memoria berreskuratzeko pausoak eman zituzten. "Egindako memoria ikerketei jarraipena emateko eta haiek oinarri harturik, biktima guztien oroimen eta aitortza bideari hasiera eman zitzaion", azaldu dute Bizikidetzak Batzordeko kideek.

Autodefentsa feministaz ariko dira martitzenean

Maitena Monroy idazle bilbotarrak hitzaldia egingo du Emakume Txokoan, 18:30ean

E.A.B. ARRASATE

Maitena Monroy idazle bilbotarrak *Autodefensa feminista. Más allá de aprender a decir no (Autodefensa feminista. Ezetz esaten ikasteaz harago)* liburua aurkeztuko du azaroaren 12an, Emakume Txokoan, 18:30ean, Debagoieneko Guerreras elkarrekin gonbidatuta. Saioa gaztelaniaz izango da eta parte hartzeko dei egin diete herritarrei.

Autodefentsa feministan aditua eta aitzindaria da Monroy. Hala, eremu horretan eta militantzia feministan egindako ibilbide, ikerketa eta esperientzia oinarritutako liburua aurkeztuko du martitzenean. Idazlearen esanetan, autodefentsa feminista funtsezko tresna bat da: "Indarkeriari aurre egiteko ez ezik, patriarkatuaren gure gorputz eta buruetatik desagerrarazteko ere ezarri behar dugun baliabideetako bat da". Era berean, "ahalduntze indibidualerako eta kolektiborako estrategia bat" dela ere badio, erakunde feministetatik sortua. "Prebentziorako eta bidezko defentsarako tresna teoriko-praktikoa da. Kontua ez da agerikoa den indarkeriaren aurrean bakarrik jarduten jakitea, baizik eta eguneroko alderdi guztietan".

OHARRAK

Venezuelaz hitzaldia

Debagoieneko Ezker Kultur Guneak antolatuta, Glenna Cabellok eta Salvador Gonzalezek hitzaldia egingo dute martitzenean, 18:30ean, Kulturateko areto nagusian.

'El chef' liburua

Santi Lorentek bere lana aurkezteko hitzaldia egingo du martitzenean, 19:00etan, Kulturateko Garibai gelan.



NIRE USTEZ

EÑAUT MUXIKA
OLASAGASTI

Biziraupena eta Unamuno

1901ean, euskara hiltzen utzi behar genuela esan zigun Unamunok. Orduz geroztik, hainbat guda, diktadura eta beste pairatu ditu gure herriak, eta, zorionez, euskarak bizirik jarraitzen du.

Baina, zergatik zioen hiltzen uzteko euskarari? Hainbatek bere bizipen propioetik eratorritako iritzia dela diote; erdal ingurunea, euskara ikasteko zailtasunak... Arrazoiak arrazoi, gaur egungo gizartearekin konparatuz, antzekotasun batzuk badira, baina erabat aldatu direnak euskaraz ikasteko ditugun aukerak dira. Ezagutza maila handia da gizartean, baina *erdal ingurune* delakoan aurrerapausoak makalak izan dira, oro har. Zenbat arrasatear dago erdal inguruneetan murgilduta? Familia euskaldunenetan ere umeen kultura eta aisialdiaren tarte handi bat erdal ingurunean datza. Ikuspuntu hori are latzagoa da etorkin familien ikuspuntutik.

Bere garaian Unamunok bezala, gaur egungo biztanleek ere hautua egin behar dugu asimilazioa ekiditeko, eta hori, zuzenki, euskal inguruneen garapenari lotua dago. Hori da euskaraz bizi nahi dugun denon erronka.



Lelo berriarekin hasi gura dute urte berezia

Ekin Emakumeak Elkartek 30 urte beteko ditu laster euskara, emakumea eta aniztasuna erdigunean jartzen. 25. urtemuga ospatu ezin izan zuten, ilusio handiz dabilta prestatzen hogeita hamargarrena. Deialdia egin dute, leloak proposatzeko

H.L.H. ARRASATE

AED elkartearen sorreretakoa eginkizunetako bat izan zen emakumeentzako aisialdi euskalduna sustatzea; horretaz arduratzen zen Ekin Emakumeak lantaldea. Helburu nagusi horri eraginkortasun handiagoz erantzun ahal izateko, 1995ean ibilbide propioa urratzeko pausoa eman zuen, elkarte gisa eratu. "Izan ere, hasieratik kontziente izan ziren emakume eta, gainera, euskaldun izateak eskubideen urraketa bikoitza eragiten zela. Hori gainditzeko grina horretatik abiatu zen arlo horretan esku hartzeko beharra", egin dute atzera begiratu Laura Bueno Rodriguezek eta Oihane Pildain Etxanizek.

Bi haiek gidatzen dute elkartearen egunerokotasuna. Ardatza ez, baina jarduerak-esparrua dezente aldatu dela nabarmendu dute: "Urteotan hainbat jatorritako emakumeen behar eta interesetara zabaldu da gure esku-hartze esparrua. Pertsona

guztion arteko aukera berdintasuna eta kultur arteko elkarbizitza baitugu helburu, euskara izanik kohesiorako tresna".

Orain, urteurrenak ekarriko dituen kontu gehigarriak antolatzeko, Ainara Alkorta Abaurrea batu zaie. Horrez gainera, elkarte zuzendaritza batzordea eta urteurrenerako sortutako talde motorra izango dituzte aldamenen. Izan ere, ilusioz eta gogotsu begiratzen diote datorrenari: "Erronka polita daukagu; 2020an ezin izan genuen 25. urtea ospatu, pandemiagatik ezinezkoa zelako ekonomikoki zein teknikoki ezer egitea. Hori dela eta, datorren urtean indar handiagoarekin egin nahiko genuke".

EUSKARA ARDATZ, JATORRI ASKOTAKO EMAKUMEEN BEHAR ETA INTERESETARA ZABALDU DA EKIN

Hazten jarraitzeko

Ospakizunak askotariko ekin-tzekin borobiltzea "oso garrantzitsua" izango da Ekinentzat: "Elkarte txiki bat garen heinean". Aurreratu dute hiru lan-ildoren gainean egingo dituztela jarduerak: euskara eta aniztasuna; emakumea eta feminismoa; eta memoria historikoa. Helburuei dagokienez, hauexek aipatu dituzte: "Elkartera pertsona gehiago etortzea, ikusgarritasun gehiago lortzea, egiten diren ekimenen bitartez gure lan-ildoan inguruan hausnarketarako espazioa zabaltzea eta elkartearen parte izan diren pertsona guztiei aitortza egitea".

Lanketa horiek urte osoan banatutako ekintzekin egingo dituzte, eta, hasteko, lelo lehaketak jarri dute martxan gaur bertan. "Parte hartzeko, bidali mezu bat, bi aste epean, gure Whatsapp -651 70 79 36-, Instagram -@ekinmakumeak- edo posta elektronikora -ekinmakumeak@gmail.com-. Animatu!".

30. urtebetetzea ospatuko du hilaren 14an Txatxilipurdik

Seber Altuben kalejira eta Kulturolan ekitaldia antolatu ditu datorren ostegun arratsalderako hezitzaile elkarteak

H.L.H. ARRASATE

Hiru hamarkadatan aisialdi hezitzaile euskalduna sustatu du Txatxilipurdi elkarteak, "gozamina ardatz", eta ibilbide hori arrasatearrekin eta debagoien-darrekin ospatu gura du, kaleak hartuta. "Txatxilipurdi erraldoi bat egingo dugu, halaxe nahi dugulako gure ingurua eta gure mundua aldatu; askotan egin dugu igeri izokinen antzera, korrontearen aurka bidea irekiz, eta haur, nerabe zein familiekin batera, mundua ulertzeko moduak asmatuz eta gure buruak

ere berrasmatuz", azaldu dute elkarteak ordezkariek.

Hori irudikatuzko, "kalejira koloretsu, alai eta bizia" eta "ekitaldi formalago bat" antolatu dute hilaren 14rako, osteguna. Kalejira 18:00etan hasiko da, Seber Altube plazatik, eta, ostean, ekitaldia egingo dute Kulturo-lako aterpean; bertan, 1994tik gaur egun arte txatxilipurdi izandako hainbat pertsonaren bizi-penak jasotzen dituen dokumental labur bat eskainiko dute, baita Txatxilipurdiren marka berria aurkeztu ere.

'Euskara eta disidentzia' hitzaldi zikloa hasiko dute eguaztenean

Ekin Emakumeak eta AED elkarteek antolatuta, Morbor eta Lohixak talde transfeministek hartuko dute hitza

H.L.H. ARRASATE

Mahai-inguru ireki batek eta elkarrizketa batek osatuko dute *Euskara eta disidentzia* zikloa. Lehenengo hitzordua azaroaren 13an izango da, 18:30ean, Kulturategiaren Jokin Zaitegi gelan. Sexu eta genero disidentzia euskaratik egiteko hautu politikoaz jardungo dute Arrasateko Morbor eta Aretxabaletako Lohixak talde transfeministetako kideek. Hiruki Larroxako kide Garazi Beramendik gidatuta, erabaki horren arrazoien, zailtasunen eta aukeren inguruko gogoeta

partekatuko dute *Eta Debagoienetik, zer?* izenburuko mahai-inguruan.

Hurrengo saioa ordu eta toki berean izango da, baina azaroaren 26an: Marta Luxan eta Jone Miren Hernandez EHUko ikerlariak gonbidatu dituzte Ekin Emakumeak eta AED elkarteek, euskararen erabileraren ustezko feminizazioaz egin duten irakurketa kritikoaren berri eman dezaten. Izan ere, genero rolerak XX. mendetik hona euskal hiztunaren eraikuntzan izan duten eragina aztertu dute.

Elizondora joango dira hilaren 21ean Abaroako bazkideak

Abaroa jubilatuko elkarteak egun-pasa joango dira azaroaren 21ean, eguna, Elizondora (Nafarroa). Izen-ematea irekita dago, Etxaluzeko egoitzan, 42 eurotan. Plana Baztan Hotelean hamaiketako eta bazkaria egitea da, eta bien bitartean herria ezagutzeko. Opariak jokoan egongo diren bingoa, dantzaldia eta sorpresak ez dira faltako.

Santa Teresa auzo inguruko birgaitze-lanen azalpenak

Santa Teresa eta Doneztebe Portuko kaleetan egiten dabilzan birgaitze-lanen berri emango diete auzotarrei Arrasateko Udaleko ordezkariek. Hitzordua azaroaren 13an izango da, asteazkena, 18:30ean, Avesantes elkartearen egoitzan. Auzo elkarteak aurkezpena bertaratzeko gonbidapena egin diete bizilagunei.



Ekin-en egoitzan, otordu batekin hasi aurretik, jolasean eta kantuan. EKIN EMAKUMEAK



Aurreko denboraldian Musakola kiroldegian Mondratek eta Donipari taldeak jokatu zuten ligako azken partiduan. GOIENA

Erregularitasuna lortzea du helburu Mondratek

Denboraldia hasi berri den arren, lidergoa eskuratu nahi du Arrasateko areto futbol taldeak, eta horrela iritsi liga amaiera arte. Hain zuzen, Bigarren B Mailara zuzenean igo nahi dute, eta duten taldearekin egingarria dela uste dute

Imanol Beloki Unamuno ARRASATE
Maila Nazionalan ari den Mondrate areto futbol taldeak ondo hasi du denboraldia. Izan ere, lau partidu irabazi ditu eta bi galdu. Hala, sailkapenean laugarren postuan dago, hamabi punturekin, eta domekan Albartero-Rivabellosa taldearen kontra kanpoan jokatu duen zazpigarren jardunaldian garaipenaren bila joango dira arrasatearrak.

Aitor Cortizar basauriarra ari da taldea gidatzen, eta bigarren entrenatzaile gisa Arkaitz Ribera eskoriatzarra ari da; batez ere, estrategiak zehazten eta jokalariekin lotura-lanak egiten dihardu Ribera, eta adierazi du asmo handiak dituztela denboraldi honetarako. "Gure helburua liga irabaztea da. Iaz, play-off-erako sailkatu ginen eta ezin izan genuen aurrera egin. Aurten, aldatu egin dute mailaz igotzeko modua, eta lehenengo postua eskuratzen duena zuzenean igotzen da Bigarren B

Mailara. Hori da gure helburua, eta, lortzeko, erregularitasuna lortzea izango da gakoa", azaldu du Arkaitz Ribera, Mondrateko bigarren entrenatzaileak.

Bi porrot, ondo jokatura

Gernikaren aurka galdu zuten lehen partidua, eta bigarrena, berriz, Antiguoko taldearen aurka. "Maritxu Egunaren ostean jokatu genuen bat, eta ez dago azaldu beharrik zer gertatu zen... Bigarrena, berriz, Antiguokoren aurkakoa izan zen; 3-4 galdu genuen. Gure aurkari zuzenak dira, eta goiko postuetan egoteko aukera asko dituzte. Gutxi-gatik galdu genuen; nire ustez, berdinketa edo garaipena mezezi genuen", dio Ribera.

**ETXETIK KANPORA
JOKATUKO DU
MONDRATEK
HURRENGO PARTIDUA,
DOMEKAN**

Talde gaztea eta berria

Iazko denboraldiarekin alderatuz jende berria eta gaztea dagoela azpimarratu du Ribera, eta kalitate handiko jokalariek dituztela nabarmendu: "Iazko taldea baino hobea dugula esango nuke. Ondo jokatzen dugu areto futboleko, baina ez dugu punteriarik. Gol onak sartu ditugu, baina zoriz sartutakoak gutxi; aspektu horretan komeni zaigu hobetzea".

Futbol eskola, gainezka

Lehenengo taldeaz gain, Hirugarren Mailatik behera kategoriatan dituzten taldeak Mondratek, eta areto futboleko eskola antolatu du. 2013 eta 2016 artean jaiotako gazteak gonbidatu dituzte kirola probatzera. Eskola egubakoitzetan egiten dute, Musakolako kiroldegian, 17:00etatik 18:30era. "Interesdun asko dago eta atea zabalik dugu. Hala ere, baliabide gehiago beharko genituzke datozen guztiak mantentzeko".



Mondragon CF futbol klubeko jokalariek guztien talde-argazkia. HASIER LARREA

Elastiko zuri-morea harro erakutsi dute familia-argazkian

300 futbolariarik gora batu dira Mojategiko futbol zelaietan, 30 talde baino gehiagotan banatuta

I.B. ARRASATE

Mondragon CF futbol klubeko jokalariek azaroaren 1ean batu ziren Mojategin familia-argazkia ateratzeko; 300 futbolariarik gora, 30 talde baino gehiagotan banatuta.

Kluba handitzen

Futbol Eskolan hamahiru talde eta hortik gora kategoriatan bakoitzean beste hiru gutxienez, Mondrago familia hazten eta hazten doa urtetik urtera. Denboraldian zehar bakoitza bere aldetik entrenatzen da, baina joan den domekan denak elkartu ziren

etxean, Mojategin, partiduetako uniformeak jantzita, talde-argazkiak ateratzeko.

Xabi Etxeberria presidentearentzat ariketa berezia izaten da urtero egiten duten hori: "Oroitzapen bat edukitzeko egiten dugu; batzuek hamar urte daramatzate, beste batzuek bost, eta beste batzuentzat lehenengo urtea da hau. Denboraldi bakoitzeko argazkien errepaso egiterakoan, jokalariek bakoitzaren ibilbide historikoa jakin dezakegu, txikienetatik hasi eta nagusietaraino. Gauza polita da".



SAIOA KARATE TALDEA

Kumitean brontzezko bi domina

Saioa Karate Taldeko borrokalariek brontzezko bi domina lortu zituzten kumitean. Kadete, junior eta senior mailetako Euskadiko Karate Txapelketak jokatu zituzten joan de zapatuan Hondarribiko Jostaldi pilotalekuan. 260 karateka aritu ziren lehian; tartean, Saioa Karate Taldeko Irati Izurrategi eta Xavier Varteniuc.



Eihara Irazusta, Mikel Kaye, Sambou Diaby eta Ander Lipus aktoreak daude taularen gainean *Minan* antzezlanean. AINHOA RESANO

'Minan' liburua antzezlan formatuan ikusgai

Amets Arzallusek Ibrahim Balderen ahotik 'Minan' liburuan kontatutakoak antzokietara eroan ditu Artedrama taldeak, izen bereko antzezlan sortuta; Amaia antzokian egingo dute, bihar, zapatua, 19:30ean, baina sarrera gutxi geratzen dira

Aitziber Aranburuzabala Juldain ARRASATE

Londresko Timberlake Wertebaker dramagileak egin zuen liburuaren egokitzapena *-A little brother-*, hango aretoetan erakusteko asmoarekin, eta Artedramako zuzendari artistiko eta aktore Ander Lipusek euskarazko bertsioa egitea proposatu zion. "Haren erruz hasi nintzen hau guztia proiektatzen. Euskaraz sortutako kontakizuna izanik, ingelesez taularatu aurretik, euskaraz antzeztea proposatu nion, datorren maiztera arte ez dutela eskainiko jakinda. Ametsen eta Ibrahimaren baietza jasota lantzen hasi ginen, orain dela bi urte", dio Lipusek.

Bilboko Arriaga antzokian estreinatuta zuten, urriaren 18an, eta harrezkero zortzi aretotan izan dira; ondo hartuak guztietan. "Sentsazio oso onak ditugu. Espektatibak bete egin ditugu. Amets oso hurbil izan dugu eta Ibrahimak lehenengo emanal-

diko hamar bat minutu ikusi zituen. Zauri asko zabaldu zaizkio, baina oso eskertuta dago".

Lau aktore taularen gainean

Aktore gazteak eta ezezagunak ditu Lipusek taularen gainean lagun: Sambou Diaby, Eihara Irazusta eta Mikel Kaye. "Sambou Ibrahim da; ez nuen ezagutzen, baina harekin elkartu nintzen argi ikusi nuen hura zela protagonista papererako aproposena. Arabarra da Eihara, eta, aktore moduan lan gutxi egin duen arren, interesa zuen, eta hori zen niretako inportanteena. Mikel Kaye ermuarra Loraldia eta Dantzeritik ezagutzen nuen. Gustura ari gara".

"SENTSAZIO OSO ONAK DITUGU; ESPEKTATIBAK BETE DITUGU 'MINAN'-EKIN"

ANDER LIPUS (AKTOREA)

Lau aktore diren arren, haizka dira antzeztzen dituzten pertsonaiak. "Obra bi mailatan banatuta dago: alde batetik, Ibrahim dago publikoari narrazioa kontatzen; eta, bitartean, beste hirurok gogoratzen dituen pasarte edo istorioak eszenatzen ditugu. Hogei bat pertsonaia egiten ditugu bakoitzak".

Lantalde handia atzean

Artedramaren marka da ekipo tekniko eta artistiko handia izatea, eta ikuskizun horretan 25 lagun ari dira. "Adibidez, Parisko koreografo Philip Ducau zuzendari laguntzailea da; ezinbesteko laguntza izan da niretzako kanpo begirada hori. Manex Fuchs alboan izan dugu, aktoreekin lanean; Ikerne Gimenez jantzien arduraduna, Aitor Agiriano *Toro* musikaria...".

Debagoienean gehiago

Arrasaten izango dira bihar; Antzuolan abenduaren 28an; eta urtarrilaren 26an Oñatin.

Jokin Zaitegi sariketan, Han Kangen 'Barazkijalea' eleberria

Aurtengo Nobel saria eskuratu duen Hego Koreako idazlearen eleberria euskarara itzultzea proposatu dute

A. Aranburuzabala ARRASATE

Arrasateko AED elkarteak eta Elkar argitaletxeak Arrasateko Udalaren eta Laboral Kutxaren laguntzarekin antolatzen duten euskarazko itzulpen sariketan parte hartzeko epea zabalik dago, abenduaren 31ra bitartean. Literatura unibertsala euskaratzea du sariketarak helburu.

Bakarka zein taldean eman daiteke izena eta parte hartzaileek proposatutako lagin bat bidali beharko dute aed@aedelkartea.eus helbidera. Itzuli beharreko jatorrizko laginari dagokionez, antolatzaileek azaldu dute "kontuan izanik gutxi direla koreeratik zuzenean euskaratzeko abilak direnak, gaztelaniazko eta frantsesezko bertsioak" ere eskainiko dituztela. Sariketako oinarriak eta lagina postdata.elkar.eus atarian daude eskuragarri.



Han Kang idazlea. NOBEL PRIZE

2025ean argitaratzeko asmoz

Xabier Etxeberria, Joannes Jaurigi eta Leire Vargas epaimahai-kideek erabakiko dute nork eskuratuko duen 5.000 euroko saria, eta irabazleak irailaren 30a bitartean izango du liburua entregatzeko epea.

Azaroaren 22an, 23an eta 24an zarzuela emanaldiak Arrasaten

Geldialdi luze baten ondoren, ibilbide luzeko Arrasateko Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak *Antología de la zarzuela* ikuskizuna egin zuen urtarrilean, eta apirilaren 8an ekin zieten azaroaren 22an, 23an eta 24an Amaia antzokian eskainiko duten Jacinto Guerreroren *El huésped del sevillano* izeneko prestatzeko entseguak.

Orain arteko ikuskizunetan moduan, Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak kideak izango dira taularen gainean kantuan eta antzeztzen, parte hartzaileek eta elkartearen bueltan jarduten duten askotariko laguntzaileek egindako dekoratuekin eta bestelako eszenografia osagaiekin. Hiru emanaldi egingo dituzte: azaroaren 22an, egubakoitza, 20:00etan; eta azaroaren 23an eta 24an, 19:30ean. 20 eurotan daude Arrasate.eus atarian sarrerak eskuragarri.

Euskadi Brass-en disko berrirako diru-bilketa abian dago

Arrasateko Alberto Urretxo musikariak gidatzen duen Euskadi Brass taldeak hamar urte bete ditu, eta, hori ospatzeko, disko bat argitaratzeko asmoa dute; hori horrela, diru-bilketa abiatu dute Verkami plataforman, azaroaren 24ra bitartean. "Diskoa kaleidoskopioa da eta sorpresa erakargarriak aurkituko dituzte", dio Urretxok.

Hillbilly estiloa datorren asteko Kooltur Ostegunetan

Orain dela pare bat urte Gasteizen sortutako Old Time Spooks laukotea izango da azaroaren 14an, 22:00etan hasita, Arrasateko gaztetxeke agertokian protagonista; ohi moduan, sarrera zazpi euro da. "Ipar Amerikako hillbilly musika estiloa dute oinarri, askotariko musika bitxiak erabilia", azaldu dute antolatzaileek.



DEBAGOIENENKO OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANDO IRIARTE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

VITALDENT

Arrasate / Otalora lizentziaduna kalea 1 / 943 06 03 22

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11
43

OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.
943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11



Aurreko egunean egin zuten urriko ohiko osoko bilkuraren une bat. AMAIA TXINTXURRETA

Hondakinen tasa %30 igoko da datorren urtean

EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJren abstentzioarekin onartu dituzte Aramaion 2025eko zergak eta tasak arautuko dituzten ordenantza fiskalak; zaborren tasak %30eko igoera izango du, urarenak %20koa eta saneamenduarenak %15ekoa

Amaia Txintxurreta Guridi ARAMAIO Azken osoko bilkuran ordenantza fiskalen aldaketa onartu zuten 2025eko ekitaldirako, EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJren abstentzioarekin. Hiru igoera egongo dira, eta gainontzeko zergak eta tasak mantendu egingo dituzte.

Ordenantza fiskalen aldaketa Igoera handiena hondakinen tasak jasango du: %30ekoa. Europako legediaren arabera, zabor-bilketaren zerbitzua ezin da defizitarioa izan udalendako, eta neurri hori hartu dutela azaldu du Asier Agirre alkateak: "Zaborrarekin sortzen diren kostuak herritarrek ordaindu behar dituzte, eta, alde batetik, legedia kontuak direla-eta, eta, bestetik, etorkizunera begira gauza batzuk eguneratu behar ditugunez, %30 igoko dugu zaborren tasa. Ez gara kasu bakarria Aramaion; eskualdean bertan beste hainbat herritan egin dituzte gurea

bezalako igoerak". Hala, etxebizitza bakoitzak hilean ordaindu beharrekoa bi euro pasatxo igoko da.

Uraren tasa, berriz, %20 igoko dute. "Aramaion daukagun ur-sareak kostu handia dauka eta zahartzen ari da. Hor %20ko igoera egingo dugu eta etxebizitza bakoitzak hilean horregatik ordaindu beharrekoa beste bi euro inguru igoko da", esan du alkateak.

Azkenik, saneamenduaren tasa %15 igotzea ere onartu zuten. Hilabetero etxebizitza bakoitzak ordaindu beharrekoa euro bat inguru igoko da kasu horretan, eta, beraz, guztira hilero bost euro inguru gehiago ordaindu beharko dute herritarrek.

AMENABARREK SALATU ZUEN EZ ZUTELA JASO OSOKO BILKURAREN DEIALDIA GAI-ZERRENDAREKIN

EAJko zinegotzi Alberto Amenabarrek salatu zuen berak ez zuela jaso ohiko bilkuraren deialdia gai-zerrendarekin, eta, beraz, abstenitu egin zen. "Ez dugu jaso deialdia gai-zerrendarekin eta nik, informazio gabe edo lehenagotik jakin gabe zertaz hitz egin behar dugun, ez daukat denborarik erabakitzeko. Informazioa lehenago jaso behar dugu", esan zuen. Horregatik, erabaki zuten ordenantza fiskalen gaiak zuten lehentasuna ikusita gai hori jorratzea osoko bilkuran, baina gainontzeko puntuak azaroan egingo duten ezohiko osoko bilkurarako utzi zituzten.

Bukaeran, herritar batek hartu zuen hitza; esan zuen alkatearen dekretu bitartez Udalak zigor bat jarri ziola eta Udalak ez diola esan zein arauk babestuta jarri zion zigorra. Alkateak erantzun zion hainbat gai blokeatuta egon direla pertsonal faltagatik, baina hasiko direla lanak antolatzen, eta haren kasua aztertuiko dutela adierazi zion.



Gazte Egunean, herritarrek bazkaltzen. ARAMAIXO TROPIKALEKO GAZTE ASANBLADA

Kintada Eguna ospatuko dute zapatuan, bigarren urtez

Gazte Asanbladak antolatuta, askotariko kintadetako 43 lagunek eman dute izena biharko bazkarirako

A.T.G. ARAMAIO

Duela bi urte antolatu zuen lehenengoz Kintada Eguna Aramaio Tropikaleko Gazte Asanbladak. Egunaren helburua zen gazteak zein nagusiak, herriko askotariko kintadak elkartzea eta ospakizun egun bat izatea. Orduan, gazteak bakarrik animatu ziren, eta, ondorioz, iaz Kintada Eguna ospatu beharrean Gazte Eguna antolatzea erabaki zuten. Dena den, aurten bigarrenaz Kintada Eguna antolatzeko ardurua hartu du Gazte Asanbladak, eta bertako kide June Ballesterosek adierazi du bazkarirako

43 lagunek eman dutela izena:

"Hainbat kintadatak gazteek eman dute izena, eta gogotsu gaude egunerako. Ea datorren urtean nagusiagoak ere animatzen diren, guztiondako jai bat izatea nahi dugu eta", esan du.

Egun osoko jai

Bihar, 13:00etan Anbototik hasita, triki-poteoa egingo dute. Bazkaria Bizente Goikoetxea plazan egingo dute, eguraldi ona bada; bestela, frontoian edo udaltxeko arkupeetan. Bingoa izango dute gero eta Gantzagako jaietara joango dira ondoren.



ARAMAIOKO LAGUNKOIA

Lehen ibilaldia, arrakastatsua

Aramaioko Lagunkoia taldeak lehenengo irteera egin zuen eguazten goizean. Hamabost laguneko taldea elkartu zen eta, Alaiak Jubilatuen Elkartetik aterata, Arraga, Arrikoiti, Arriola, Arexola eta Uribarri auzoak zeharkatu zituzten, eta Ibarra itzuli ziren. Goizaren balorazio positiboa egin zuten eta aurreratu dute abenduan beste bat antolatuko dutela.

Esperantzaz betetako bi emakumeren ihesa

Asteburuan bi antzezlan izango dira ikusgai kultur etxean: bihar, 'Ihesi' antzezlan estreinatuko du Senpereko Iduzkilore antzerki taldeak; eta domekan, berriz, Sustrai Teatroaren 'Munduari itzulia 80 egunetan' obraren txanda izango da

Idoia Aranbarri Arzuaga ARAMAIO

Senpereko Iduzkilore antzerki taldeak *Ihesi* antzezlan aurkeztuko du bihar, 19:00etan, kultura etxean. Duela bi hamarkada idatzi zuten Frantziako Pierre Palmade eta Christophe Duthuron egileek bi emakume protagonista dituen istorioa, eta, Frantzian zehar hainbat urtean aurkeztu ostean, euskaraz antzeztuko dute Bernadette Iratzoki eta Maider Beheran antzezleek. "Guk gidoia erosi dugu eta Maddi Zubeldiak euskarara itzuli eta egokitu du. Horrenbestez, Parisko bi emakume izan beharrean, bi emakume euskaldun izango dira: bat lapurtarra eta bestea baxenabartarra. Maika Etxekopar zuzendari profesionala da zuzendaria", azaldu du Iratzokik.

Halaber, lehen bertsiotik berrikuntza ere sartu diote: musikaria. Ainhoa Elizondok zuzenean joko du musika. "Gertatukoaren lekuko izango da musikaria; bukaeran, hark ere sentipenak agertuko ditu. Beste pertsonaia bat gehituko dio".

Bi emakume protagonista

Lapurdikoa eta Nafarroa Behereko bi emakumek topo egiten dute, euren egunerokotasunetik, bizitzatik ihesi, eta hortik emakumek bizi ditzaketen egoerak taularatzen dituztela kontatu du Iratzokik: "Bi emakumek topo egiten dute gau batean eta poliki-poliki Biarritzera doaz ihesi, eta bidean elkarri laguntzen diote. Amatasuna, laguntasuna, elkartasuna, bakartasuna... gai horiek landuko ditugu, eta egoera horiek Atharratzeko, Erandioko, Aramaioko edo edozein lekutako emakumek bizi ditzakete. Euskaldunak gara eta bat gabela sentitzen dugu; hori sentiarazi nahi dugu gure antzezlanarekin".



Bernadette Iratzoki eta Maider Beheran aktoreak taula gainean. IAT

Gai "sakonak" direla aitortu du, baina modu "komiko eta dibertigarrian" kontatuak direla. Gainera, azpimarratu du "oso bisuala" dela: "Esperantzaz betetako kontakizuna da".

Euskalkiaren garrantzia

Iparraldeko euskara entzungo da bihar ordu eta erdiz. Aurreratu duenez, nahiz eta hitz batzuk ez ulertu, haria ez dute galduko adin guztietako ikasleek: "Hemengo euskaraz egiten dugu eta joan garen leku guztietan ondo hartu dute gure antzezlan".



Iazko Gantzaga Saria txirindulari igoeran parte hartu zuten ziklistak. GOIENA

Sanmelixenak ospatuko dituzte Gantzaga auzoan asteburuan

Besteak beste, musikaz, txapelketez, txirindularitza lasterketaz eta jolasez gozatzeko aukera egongo da

I.A.A. ARAMAIO

Gaurtik domekara bitartean sanmelixenak ospatuko dituzte Gantzaga auzoan. 19:00etan hasiko dira jaiak, kanpai-errepikarekin eta suziriarekin, eta ondoren kontzertu akustikoa emango du Amaieur eta Unai bikoteak. Afariaren ostean, DJ Tiger Brothers-en txanda izango da.

Bihar goizean ere kanpai-errepikarekin eta suziriarekin ekingo diote egunari, 09:00etan, eta 12:00etan izango da meza nagusia. Ondoren, bermut-dantza eta bingoa egingo dituzte. 17:00etatik aurrera mus eta patata-tor-

tilla txapelketetan parte hartze-ko aukera egongo da eta umeak tailerretan eta puzgarrietan jolastu ahal izango dira. 19:30ean izango da patata-tortilla txapelketako sari-banaketa eta 23:00etan, berriz, dantzaldia.

Beste bi egunetan moduan hasiko da eguna domekan, eta 11:15ean Arrasate Musikaleko Txistulari Bandak kontzertua emango du. 12:30ean hasiko da 42. Gantzaga Saria txirindulari igoera. 13:00etan trikitilariak alaituko dute poteoa, eta, festak amaitzeko, tute txapelketa egingo dute, 17:00etan.



IMANOL SORIANO

Santa Zeziliarako entseatzen

Bizente Goikoetxea abesbatzako kideak hilaren 22an ospatuko den Santa Zezilia egunerako kantua entseatzen dabilta. Hilaren 24an, domeka, 12:00etako mezaren ostean emango dute kontzertua, San Martin elizan, eta bertan, besteak beste, Bizente Goikoetxearen *Ave Verum* kantua abestuko dute Musikarien Eguna ospatzeko.

Domekan, munduari itzulia

Ainhoa Alberdik zuzendutako eta Julio Vernerren eleberrian oinarritutako *Munduari itzulia 80 egunetan* antzezlan taularatuko du azaroaren 10ean Sustrai Teatroak, arratsaldeko bostetan hasita, kultura etxean. Hain zuzen ere, eleberria argitaratu zenetik 150 urte bete dira aurten. 3 urtetik gorakoendako antzerki familiarra da.



Eriz Alberdi aktorea, *Munduari itzulia 80 egunetan* antzezlanean. ST

Euskal hiztunen sarea indartzeko lanei ekitear

Euskara indarbertzeko eta euskaldunak ahalduzko helburuarekin, AROA plana landu du Eusko Jaurlaritzak, eta Aretxabaletako Udalak hori diseinatzeko prozesua jarri du abian. Horretarako, diagnostikoa egingo du lehenengo, herritarren laguntzarekin

Mirari Altube ARETXABALETA

Euskal hiztun aktiboak eta ahaldunduak dituen komunitatea indartzea helburu duen AROA izeneko plana garatu du Jaurlaritzak, eta udalerrien esku jarri. Aretxabaletako Udalak horri heldu dio eta prozesua abiatzea erabaki du. Horretarako, udalerrien gaur egungo egoeraren azterketa sakona egingo du, batetik, eta datozen urteetarako plan estrategikoa diseinatu, bestetik. Eta lan horietarako herritarren parte-hartzea "ezinbestekoa" izango dela adierazi dute.

Galdeketa betetzeko eskaera

Diagnostikoa egiteko datu-jasotzea egingo dute lehenengo, hiru bide erabilita: batetik, aurretik jasota dagoen informazioa aztertuta – txostenak, ikerketak...; bestetik, herritarrei eta eragileei elkarrizketak eginda; eta hirugarrenik, galdetegi bat zabaldua. Horren bidez ahalik eta herritar gehien iritziak jaso gura dituzte, eta 16 urtetik gorakoei bideratu diete; gaztelaniaz erantzuteko aukera ere egongo da. Galdetegi hori posta elektronikoz eta Whatsapez zabalduko dute, baita paperean ere, eta azaroaren 11tik 20ra bitartean bete beharko da.

Herritarrek beste zeregin bat ere izango dute: "Planaren diag-



Udal ordezkariak, elkarrizketetan parte hartuko duten hainbat eragilerek. M. ALTUBE

nostikoa kontrastatzeko eta aurrera begirako diseinua egiteko herritarren parte-hartzea lortu gura da". Horretarako, hausnarketa-batzorde bat eratuko dute, eta abenduaren 3an egingo duten batzarrean parte hartzea animatu dituzte. "Batzorde horretan planaren bide-orri egoki bat atondu gura da". Hiru saio izango dira: lehenengo aurten eta datorren urtean beste biak.

"Datu kezkarriak"

Udal ordezkariak kezkatuta daude, "urtez urte gaztelaniaren

erabilera indartzen" doala iritzi-ta. Soziolinguistika Klusterrak 2021ean egindako azken inkestaren arabera, hamar herritarretik lauk soilik egiten dute euskaraz kalean; duela hamar urtetik hona 9 puntu jaitsi da erabilera. Adin tarteari erreparatuta, 14 urte artekoak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, baina azken hamar urteotan 14 puntu egin du behera gazte-txoenen kaleko erabilerak. "Datu kezkarriak dira, eta, horregatik, zentzu handiagoa hartzen du AROA ekimena abiatzeak".

la 90 lagun elkartu dira ongizate emozionalari buruzko foroetan

Prozesuaren bigarren fasea amaitu berri da eta udal ordezkariak eskertuta daude herritarren inplikazioarekin

M.A. ARETXABALETA

Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek sustatutako Prebentzio Mahaia izan da gazteen ongizate emozionalaren gaineko diagnostikoa bideratu duena, eta bigarren fasea bukatu berri dute. Aretxabaletako eta Eskoriatzako herritarrak eta eragileak izan dira fase horretako protagonistak, eta bi herrietako udal ordezkariak eskertuta daude erakutsi duten "inplikazioarekin eta parte hartzearekin".

Bi forotan banatuta landu dute gaia: lehenengoan, ekainean, 40

nerabe batu ziren; bigarrena, ostera, herrietako eragileena izan da eta urrian zehar elkar-tu dira taldeak, eta, guztira, 48 pertsonak hartu dute parte.

Foroek iraun duten bitartean bi galdetegi zabaldu dituzte datuak osatzeko: herritarrei bideratutako galdetegian 211 erantzun jaso dira eta ikasleei zuzendutakoan, 909.

Urte bukaeran aurkeztuko dute diagnostikoa eta prozesuaren azken fasea 2025ean zabalduko da. Fase horretan "neurri zehatzagoak" definituko dituzte.



NIRE USTEZ

JULEN ABASOLO GALLASTEGI

Hau fan doie

Luze eitte jaku zain eotie. Sarri denborie alperrik galdu doulakotan izeten ga. Hegoameriketan autobus bidaie egin euen batek kontau eusten, autobuse aberixau jationien, egunek geldi egin zittuela basamortuen konpondu bittartien. Bera *denborie galtzen* hasarre, bertakuek barrez *denborie eitten* lasai asko.

Bikote arazuek bideraketan lagunketan dauen bati entzun dutzet askotan neure denbora faltie izeten dala harremana larriketan dauena. *Neure* denborie aisiakin lotzen doule. *Neure denborie*, barrez, norberan lanekue edo etxekue be badala zixuen.

Bi hitzordu batera dauketenien, bata aukeraketie kosteta jat, baina gero batera fanda bixek pasau diela ikusitte poztu eitten naz, lasaittu earra.

Joxe Ramon jubilaue zanien, elixpeien auzoko Patxik lanien jarraiketako asmoik ez ete euken galdetu eutzen. "Ez da hobeto izengo erlojue geldiketie?", erantzun ei eutzen.

Erlojue gustora geldituko geuke askotan. Baine denborie? Ezin, hau fan doie.

**INPLANTOLOGIAKO
ESPEZIALISTAK 3D
TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN**

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN
ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

"Biluzte prozesu bat izan da liburua kaleratzea"

LAURA PEREZ MARTINEZ DE LA HIDALGA IDAZLEA

'Siroren zilborra' izeneko liburua argitaratu berri du aretxabaletarrak, umeendako; ipuina idatzi du, eta ilustrazioak ere hark egin ditu, "mimo handiarekin"

Mirari Altube ARETXABAETA

Laura Perez Martinez de la Hidalga (Aretxabaeta, 1980) Haur Hezkuntzan irakaslea da eta umeendako liburua, lehenengoa, argitaratu du: *Siroren zilborra*. **Asko harritu egingo ziren zuk liburua idatzi izanarekin.**

Bai! Barruan beti izan dut har hori nik; haur literatura oso gustuko dut, gainera. Orain dela lau urte, pandemiari amatasuna batu zitzaion nire kasuan eta *katakarak* egin zidan zerbaitek orduan; eta esan nuen: "Ea ipuin bat idazteko gai naizen!". Hala, gauean hasi nintzen idazten eta ilustrazioak egiten. Ni ez naiz marrazten egunero dabilen horietakoa, eta zerbait txukuna egin gura nuen; hortaz, presarik gabe eta patxada handiarekin lan eginda, bederatzi bat hila-betean bukatu dut.

Haurdunaldi bat izan da orduan.

Bai, eta sekulako bultzada izan da proiektutxo bat nik neuk hasi eta bukatzea. Behin amaituta hasi nintzen pentsatzen harantzago joan nintekeela eta esku artean izango nuen liburuan amesten hasi ere bai. Egia da, gero, pausoa ematea asko kostatu zitzaidalda, handikeria iruditzen zitzaidalako, baina badut lehengusu diseinatzaile bat, eta haren bitartez egin dut.

Ilusioa egin zizun liburuak eskutetan izateak?

Urtarrilean jaso nituen etxean, eta izugarria! Erroka handia izan da, eta mimo handiarekin egin dudana proiektua.

Urtarrietik irail arte, baina, ez zenuen inon erakutsi!

Ez! Borroka bat izan dut neure barruan. Marraztea beti izan dut gustuko, baina neuretako marraztu izan dut, eta marrazkien karpeta sekula ez diot inori erakutsi. Oraingoan, biluzte prozesu bat izan da, sekulakoa, hazte pertsonal garrantzitsua izan da! Azkenean, erabakia hartu, eta irailean, sanmigele-



Laura Perez, liburua esku artean duela, Aretxabaletako liburutegian. MIRARI ALTUBE

"LAN GUZTIAK FORMATU TXIKIAN ETA GOXOAN EGIN GURAKO NITUZKE, MIMOZ LANDUTA"

tako azokan, atera nituen lehenengoz jendaurrera.

Eta zelako harrera egin zioten herriarrek?

Benetan polita. Jendeak ez zuen espero nik liburu bat idaztea, eta harriduraz eta atseginez hartu ninduten. *Feedback* positiboa jaso nuen eta pozik nago. **Zer kontatzen du *Siroren zilborra* ipuinak?**

Eguna bere zilborrari begira pasatzen duen hartz baten istorioa da. Gertakari baten ondorioz, burua altxatu eta mundua deskubrituko du. Kezkak sorrarazi eta hausnarketak eragiten dizkidaten gaiak landu gura izaten ditut ipuinetan.

Zein adinetakoei gomendatuko zenieke?

Liburuaren formatuari eta ilustraziorik begiratuta, 5 eta 7 urte artekoendako izan daiteke, nahiz eta istorioa edonorendako den.

Hala ere, sarritan diodan moduan, gutxienekoa da ipuina; horri esker umeari eskaintzen diogun unea da garrantzitsua.

Erosteke nora jo daiteke?

Hor ere badut ibilbide bat egiteko, ez daukat hedapenerako sistemarik eta. Neuk ditut etxean, eta neureganara etor daitezela.

Norberaren herriko liburutegian liburua ikusteak poztu zaitu?

Izugarri, bai. Eta ilusio handia egin dit artxibo historikoan ere beste ale bat gorde dutela jakiteak.

Barruan zenuen harra ase duzu ala ate bat zabaldu diozu?

Badituzte beste ipuin batzuk idatzita eta ilustrazio batzuk egin da. Dena den, esku artean beste proiektutxo bat dut orain, ipuin formatuan beharrean zinema formatuan. Irlandako lagun batek oparitutako eskuz egindako zinematxo bat dut, eta zeta-paperezko irudiak egiten nabil osatzeko; atzetik argiztatuta ipuina kontatuko dut. Sekulakoa lana da; hortaz, ez dakit noiz bukatuko dudana! Ipuin kontaketa saio batzuk egiteko gogoia ere badut. Hori bai, lan guztiak formatu txikian eta goxoan egin gura ditut.



UDA KARATE TALDEA

Domina bi Euskadiko Txapelketan

Joan den zapatuan Hondarrribian jokaturako Euskadiko Txapelketan "maila dotorea" eman zuten UDAkoek. Kumite modalitatean Ariane Bartolome kadeteak zilarrezko domina eskuratu zuen, eta Iñigo Uribeetxeberria juniorrak, brontzezkoa. Joanna Perez seniorrak ere "borrokaldi ona eta berdindua" egin zuen, domina barik geratu zen arren.

Basotxok abenduaren 31n esango dio agur Gurea tabernari

Ia bi urte iraun du Basotxo erretiratuen elkartearen eta Gurea tabernaren arteko hitzarmenak, eta abenduaren 31n bukatutzat emango dute. Erretiratuek ziztuzten beharrei irtenbidea eman zien horrek, eta, horregatik, eskertuta agertu da Basotxoko zuzendaritza batzordea: "Esker-rak Udalari, haren dirulaguntzari esker posible izan delako hitzarmen hori; eta eskerrak Gureari, egindako harreragatik eta jasotako tratuagatik". Orain komentuko instalazio berriaren zain daudela gaineratu dute: "Han dugu jarrita begirada eta itxaropena, eta epe laburrean martxan egotea espero dugu".

Agintaldiko planaren berri emango du Udal Gobernu Taldeak

Udal Gobernuak agintaldiko plangintza aurkeztuko du azaroaren 12an, martitzena; Arkupe izango da, 18:30ean. Datozen hiru urteetarako zehaztu dituzten lan ildo nagusien eta proiektuen berri emango dute Gobernu Taldea osatzen duten kide guztiak. Herritarrak eta eragileak gonbidatu dituzte, bertatik bertara ezagutzeko.

OHARRAK

Sareren batzarra

Orain artekoaren balorazioa egin eta aurrera begira jarriko dira, gai hauek landuta: gaur egungo egoera; *Gari Atxabaltara* dinamika; eta Gabonak. Gaur da, 18:00etan, udaletxe zaharrean.

Ipuin kontaketa

Izaskun Mujikak 4 eta 8 urte bitarteko umeendako saioa egingo du azaroaren 13an, liburutegiko Txiki Txokoa, 18:00etan.

'Haziak' liburua

Haziak. *Zergatik eta nola egin zureak* liburua aurkeztuko du egileetako batek, Miguel Arribas *Kelo-k*, azaroaren 14an, 18:30ean, Arkupen.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA



Ines Oyanguren eta Aritz Zugasti –amona eta biloba– ortuan lanean, *Amaiur* dokumentalean. SERGIO AZKARATE

Zubiste baserriko lanak, dokumental baten jasota

Sergio Azkarate zuzendari gasteiztarrek zuzendutako 'Amaiur' dokumentala gaur, egubakoitza estreinatuko da, 18:30ean, Zaldibar antzokian. Ines Oyanguren, Jesus Zugasti, Aitziber Zufiria eta Aritz eta Maialen Zugasti eskoriatzarrak dira lanaren parte

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Iaz, urte osoa grabatzen aritu ostean, Eskoriatzako Bolibar elizatean dagoen Zubiste baserri bizi diren eskoriatzarrek Sergio Azkarate zinemagile gasteiztarrek zuzendu duen eta Irati Lekuek ekoiztu duen *Amaiur* dokumentala ikusi ahal izango dute, baita interesa duten herriarrek ere; izan ere, gaur, egubakoitza, 18:30ean estreinatuko da lana, Zaldibar antzokian.

Amonaren gomendioa jarraituz "Ametza Films ekoiztetzeko Sergio Azkarate zuzendariaren amona eskoriatzarra da, eta mendiarekin, baserriarekin, kirolarekin eta naturarekin erlazioatzeko moduak batu nahi zituen ikus-entzunezko batean. Hala, haren amonari galdetu eta gure baserria aipatuta, bertara etorri zen proposamenarekin, eta guk baiezkoa eman genion", adierazi du Aritz Zugastik, Bolibarko Zubiste baserriko eskoriatzarrak eta

dokumentaleko protagonistetako batek.

Zubiste baserriko lanak grabatzeaz batera, eskalatzaile batzuk eta Gorbeia aterpetzeko arduradunak ere grabatzen izan da zuzendari gasteiztarra. Guztien baturatik sortu du *Amaiur* dokumentala, hainbat ikuspegiatik ezagutzeko euskal kulturaren mendiarekin duen harremana eta bizitzaz beteriko natura, besteak beste.

Ekintzak grabatzen

"Ardiekin eta behorrek mendian aritu garenean grabatu gaitu, baita ira moztera joan garenean ere. Etxe inguruko lanak egin ditugunean ere bertan izan da; sasiak eta belarra mozten aritu

ZUBISTE BASERRIKO LANAK GRABATU ETA IKUS-ENTZUNEZKOA EGIN DU AMETSA FILMS EKOIZTETXEA

garenean, oiloei jaten ematen... 83 urte dituen nire amona ere grabatu du ortuan lanean, eta fardotan aritu garenean, etxekoez gain, laguntzen izan direnak ere grabatu ditu. Emaitza ikusi dugu etxekook dagoeneko eta oso polita iruditu zaigu. Urte osoko lana dago atzean, eta pozik gaud egingoarekin, baita emaitzarekin ere".

Gordetzeko lana

Grabaketetan, batez ere, Ines Oyanguren –amona– eta Aritz Zugasti –biloba– grabatu dituztela azaldu du Zugastik, eta oroitzen ederra gordeko dutela azpimarratu du. "Baserriko lanen bat egin behar genuenean, mikrofona jarri eta grabatu egiten gintuen; grabaketa geratu gabe, esaten genuen guztia gordetzen zuen. Gero, material osotik hark egin du aukeraketa. Esperientzia polita izan da, baina, batez ere, nire amonarekin batera dokumental baten agertzeak hunkitu egiten nau".

'20 urte kartzelan, Marixol Etxera!' mendi martxa zapatuan

Atxorrotx Kultura Elkartek eta Sare Eskoriatzak antolatutako mendi martxa bi ibilbide izango ditu

I.B. ESKORIATZA

Sare Eskoriatzak eta Atxorrotx Kultura Elkartek antolatuta, *20 urte kartzelan, Marixol Etxera!* mendi martxa egingo dute bihar, zapatua. Bi ibilbide egiteko aukera izango da eta ez da izenik eman beharko parte hartzeko.

Bi ibilbide aukeran

Ibilbide luzea hamabi kilometrokoa izango da; 09:00etan Fernando Eskoriatza plazatik irtena, Atxorrotx mendia igo, Uxar zeharkatu, Gatz Bidera jaitsi eta Mazmela elizatean amaituko da bidea. Ibilbide motza, berriz, sei kilometrokoa izango da; 10:30ean Fernando Eskoriatza plazan hasita, Mazmelara joango dira, Bidebarrietatik. 12:00etan, berriz, parte-hartzaile guztiek batera talde-argazkia aterako dute Mazmela.

Salatzea helburu

Urriaren 26an, Marixol Iparragirre preso eskoriatzarrak kartzelan daramatzan hogeitau urteak salatzeako manifestazioa egin zuten Donostian, Antiguako Txilardegi plazan hasita, eta orain Eskoriatzan mendi martxa egitea erabaki dute: "2024ko urriaren 3an Marixol Iparragirrek hogeitau urte bete ditu espetxean. Euskal presoan, erbesteratuen eta deportatuen egoerari behin betiko konponbidea emateko premia azpimarratu nahi dugu. Elkarbizitzan aitzina egiteko ezinbestekoa dela uste dugu. Gatazka luze honen beste ondorio batzuek oinazea eta bidegabekeria eragiten dute oraindik ere. Ordua da! Behin betiko: konponbidearen, bakearen eta elkarbizitzaren unea da! Marixol etxean nahi dugu".

Berdintasun Diagnostikoa, kontraste fasean

Eskoriatzako Berdintasun Diagnostikoa osatzeko prozesua martxan jarri zuen Eskoriatzako Udalak, Emun Aholkularitzaren laguntzarekin. Diagnostiko horren helburua da herriko errealitateak ezagutzea eta genero-berdintasuna lortzeko eman beharreko pausoak identifikatzen laguntzea. Hala, azaroaren 13an, eguaztena, kontraste-saio irekia

egino dute kultura etxean, 18:00etan.

Urte hasieratik hona hainbat lan eginda, diagnostikoaren zirraborra ezagutarazi eta herri-tarren iritziak jaso nahi dituzte. Proposamena ezagutu eta kontrastea egiteko bi modu egongo dira: bata, aurrez aurrekoa; eta bestea, online. Aurrez aurrekoa azaroaren 13an izango da, 18:00etan, kultura etxean, eta online egin nahi duenak udal webguneko estekaren bitartez egin dezake.

Beldurrak batu eta sutara

Urriaren 31n, Fernando Eskoriatza plazan egindako Gaba Baltzeko ospakizun-ekitaldian beldur-harrapakariak aritu ziren haurren beldurrak jaso eta sutara botatzen. Figura hori gorpuztu eta sendotu egin dute aurten, eta, horrekin batera, Gorosarri Dantza Taldekoen dantzak izan ziren ikusgai, bertso-eskolako haurren saioa eta abar.



"Klubak duen balio handiena zaleak dira"

MIKEL ALKAIDE ESKORIATZA ARETO FUTBOL TALDEKO ENTRENATZAILEA
Laugarren denboraldiari ekin dio Alkaidek areto futboleko taldearen gidaritzapean, eta taldekideen arteko "giro onak" emaitza onak ekarriko dituela uste du

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA
Bi garaipen, hiru porrot eta berdinketa bat lortuta hasi dute denboraldia Mikel Alkaideren (Eskoriatza, 1993) mutilek. Maila Nazionalako Hirugarren Maila hasi bakarrik egin dute, eta, denboraldia luzea bada ere, puntuak batzen segitu nahi dute eskoriatzarrek, denboraldi hasieran ezarri dituzten helburuak bete-
tzeko.

Zelan hasi duzue denboraldi berria?
Aurreikusten genuen moduan hasi gara. Zenbait baja izan ditugu; izan ere, lau jokalarik taldea utzi dute eta bigarren taldetik lehenengora igo ditugunak zein etorri diren jokalariek berriak gazteak dira. Beteranoen presentzia falta da, eta, egia esan, hasiera gogorra izan da; lesioak ere izan ditugu tarteko, gainera. Adibide bat jartzearen: Guztira hamahiru jokalarik eta hiru atezain ditugu taldean, eta azken partiduan sei jokalarik eta bi atezain izan genituen.

Hala ere, saikapenean erdialdean zaudete.

Etxean ez dugu partidurik galdu, eta hori oso garrantzitsua da. Etxetik kanpo galdu arren, oso pozik nago taldearekin, panorama ikusita; baina, batez ere, dagoen giroarekin nago pozik eta ilusioz. Izan ere, iaz, denboraldiaren ha-



Mikel Alkaide. GOIENA

sieran giro txarra egon zen, arazo dezente, eta asko sufritu nuen. Irabazitakoaren sekretua hori izan dela uste dut, taldearen batura.

Talde-giro ona aipatu duzu; harmailetan, berriz, ze giro dago?

Izugarria da; klubak duen balio-tsuen da une honetan. Partidu guztietan bete egiten dira harmailak; agian, 300 pertsona batuko dira. Eta ez etxean bakarrik. Kanpoan jokatu ditugun zenbait partidutara autoz joan gara klubeko Narciso Pavo, Adrain Garnateo eta hirurok, zaleei lekua

uztearren autobusean. Horrez gain, Mondrateren aurkako derbietan hazi egiten da zale kopurua; urteko hitzordurik gustukoena izaten da eta Arrasaten eta Eskoriatzan izaten den giroa sekulakoa izaten da. Bete-beteta izaten dira harmailak.

Zein da helburua?

Saikapeneko goiko postuak ez ditugu begiz jota. Mailari eustea da asmoa, baina; hitz egingo dugu hemendik bi hilabetera... Agian, helburua aldatuko dugu... Ea horrela den. Iaz, *play-off*-etarako sailkatu ginen, eta aurtan, berriz, ez dago halakorik: taldea zuzenean igo daiteke mailaz; ikusiko dugu...

Taldearen gidari gisa eta maila onean, gainera, hainbat urtez, ezta?

Hala da; Eskoriatzako areto futboleko lehen taldeko entrenatzailea Iker Molina zela igo zen taldea Hirugarren Maila Nazionalera, eta, bertan bi urtez izan ostean, entrenatzaile jarri nindutenetik lau urte daramatzat.

Azken mezurik?

Jokalariek badakite mezua zein den; bide onetik goaz. Zaleei, berriz, eskerrak ematea. Izan ere, harmailak betetzeaz batera, animoak ematen izaten dira une oro, eta, horrekin batera, partidu onak eta politikak jokatzeko saiatuko gara esan dezaket.

Musikaz gainezka

Inkernu tabernako musika kontzertuak bueltan dira. Urriaren 31n, Zero taldearen emanaldia izan zen, musika-zikloaren ikasturteari hasiera emateko, eta datozen emanaldien berri ere eman dute Atxorrotx Kultura Elkarteko kideek. Esaterako, Oñatiko Larru Beltzak taldea izango da azaroaren 22an, Santa Zezilia egunean, 21:00etan.



AITZOL ZUBIZARRETA

LEINTZ GATZAGA | 19



Iaz, sanmilixanetan, talo-postutik ateratako erretratuak. GOIENA

Artisau-azoka, herriko bisitak eta bestelakoak sanmilixanetan

Herriko historia eta bertako monumentuak ezagutzeko bisita gidatuak egingo ditu Aitor Larrañagak

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA
Sanmilixanak ospatuko dituzte domekan, eta artisautza azokan hamabost eta hogeita postu artean izango dira. Bertan, Sorginak Emakume Taldeko kideek prestatutako talo goxoak, piper erreak erosteko postua eta Gatz Museoko produktuen postua izango dira; azken hori, lehenengoz.

Iaz moduan, Aitor Larrañagak Gatzagako hiribilduko bisita gidatuak eskainiko ditu; 12:30ean euskaraz 13:00etan gazteleraz; eta 13:30ean, haurrentzat. Herriko arkuak, iturria, jauregiak... izango ditu berba-
gai,

herriko historiarekin batera. Gurel Guraso Elkartekoek ere jarriko dute postua, urtero bezala, eta bertan, kalabazaren pisua asmatzeko jokoa egiteaz batera, gaztaina erreak egingo dituzte. Gatz City Krew gazte taldekoek, berriz, tonbola jartzeko asmoa dute.

Korrika Arrasatetik Gatzagara
Bederatzigarren urtez egingo dute Arrasate eta Gatzagara arteko lasterketa, Sordan bideetatik, 10:30ean hasita -parte hartzeko, idatzi gatzbideankorrika@gmail.com helbidera-.



AINHOA BARANDIARAN

Gaba Baltzean lagunartean

Gurel Guraso Elkarteko kideek antolatuta, herriko gaztetxoek ekintza ugari izan zituzten Gaba Baltzean. Kalera ateratzeko aurpegiak margotu zituzten, mozorroak jantzi, eta *Altxorraren bila* aritu ziren herriko hainbat txokotan. Gozoki-eskea ere egin zuten, eta, eguna amaitzeko, Toki-Eder elkartearen elkarrekin bapotea zuten.



Salaberria, Artola eta Dominguez, Vasquezekin batera, *BlackBox_* erabiltzen. BERGARAKO UDALA

Adimen artifiziala, Kutxa Beltzarekin konektatzeko

ZTB jardunaldien barruan aurkeztu zuten martitzenean 'BlackBox_' erakusketa "aitzindaria"; Laboratoriumen kokatu dute adimen artifizialarekin elkarrizketa izatea ahalbidetzen duen eta esperimendazio fasean dagoen lau interakzio-aurpegitako kutxa

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza jardunaldiek aurrera jarraitzen dute eta aste honetan bertan aurkeztu dute Bergarako Udalak eta Laboratorium museoak adimen artifiziala jorrazten duen *BlackBox_* (Kutxa Beltza) erakusketa, Caja Navarrarekin eta La Caixa Fundazioarekin elkarlanean eta Bartzelonako Unibertsitatearekin,

Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Enpresareren laguntzarekin. Otsailaren 16ra arte egongo da ikusgai, Laboratoriumen.

Javier Tejada fisikari eta zientzialariak eta Norbert Bilbeny etika katedradunak asmatutako proiektua da Kutxa Beltza, baina Indissoluble enpresa ardura da hura elikatzeaz. Bergaran

martitzenean aurkeztu zutena 1.0 bertsioa da, eta, enpresako zuzendari Juan Roberto Vasquezek aitortu zuenez, "berezia" izan da Bergaran aurkeztea, zientzia arloan Gipuzkoan garrantzi handia duen tokia dela iritzita.

Lehenengo bertsioa

Vasquezek ekitaldian azaldu zuenez, "lau interakzio-aurpegi

dituen kutxa bat" da: "Adimen artifizialarekin elkarrizketak edota bizitzako hainbat garaitako argazkien interpretazioak egiten ditu garaian bertan integratzeko. Gainera, ibilbide interaktiboak ditugu, non, bakoitzaren erabakien arabera, bide batetik edo bestetik eramaten zaituen. Asmoa da elkarrizketa eztabaida sortzea bizitzeko modua aldatuko digun adimen artifizialari buruz. Lan horren helburuetako bat da herritarren adimen artifizialari buruz hausnartzea eta horren arabera erabakiak hartzea". Hala ere, esperimendazio fasean daude, baina ikasteko unea ere badela dio.

Adimen artifiziala elikatuz

"Laboratorium gizarte-museo bat denez, gizartean pil-pilean dauden gaiak ezagutzera ematea" da museoaren helburua, Laboratorium museoko zuzendari Rosa Errazkinen arabera. Kutxa Beltzari dagokionez, Vasquezek azaldutako esperimendazio fase horretatik jo zuen. Izan ere, azaldu zuenez, Kutxa Beltzak egiten dituen galderekin eta herritarrek ematen dizkioten erantzunekin elikatuko da. Horregatik, adimen artifizialaren erabilpen egokian jarri zuen azpimarra: "Azkenean, adimen artifizialak onurak dauzka, baina haren erabilpen egokia kontuan hartu behar da. Guk, beldur horiek ekiditeko, informazioa gizarteratzen dugu".

Zientziaren mugarri

Laboratoriumen "aitzindariak" izaten saiatzen direla aitortu du Bergarako alkate Gorka Artolax, eta "gaurkotatutako eztabaida bat herritarren artean zabaltzeko aukera" aprobetxatu gura izan dute. Adimen artifizialak, gizar-

tearen etengabeko eraldaketa eragiteaz gain, "sakonera handiko erronka etiko eta moralak" proposatzen dituela esan du, eta horiek mahai gainean jartzea ere izan da euren helburuetako bat.

Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako diputatu Azahara Dominguezek nabarmendu zuen Debagoieneko eskualdeak eta Bergarak, bereziki, izen propioa dutela munduko panorama zientifikoan: "Lurralde gisa behartuta gaude ez bakarrik historiako mugarri zientifiko batzuetan dugun papera ezagutzera, baizik eta baliostera eta munduari ezagutzera ematera".

Azken ekintzak

Halaber, aste honetan hiru hitzaldi eta jarduera egin dituzte Seminarixoan eta Miguel Altuna Lanbide Heziketako Zentroan, eta datorren astean bi saio egingo dituzte ZTB jardunaldien barruan: batetik, Imanol Teran estrategia digitalerako aholkularia eta teknologia berrietako prestatzaileak *AA ikertzen: zer den, nola dabilen eta eragina duen* hitzaldia egingo du astelehenean, Seminarixoan, 10:00etan.

Eta hilaren 13an, Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Prozesaleko katedradun Patxi Etzeberriak *Aurpegi erre-konozimendua eta identifikazio biometrikorako beste modu batzuk: erronkak eta arriskuak* hitzaldia egingo du Seminari-xoan, 10:00etan.

**ERAKUSKETA
2025EKO OTSAILAREN
16RA ARTE EGONGO
DA IKUSGAI,
LABORATORIUMEN**

Udalak lehiaketara atera du Barrenkaleko lanen lizitazioa

Interesatuta dauden enpresek azaroaren 18ra arte aurkeztu ditzakete euren proposamenak

I.A.A. BERGARA

Bergarako Udalak Barrenkalea kalea berriro urbanizatzeko lanen lizitazioa lehiaketara atera du. 1.600.570,26 euroko exekuzio-aurrekotua du -BEZa barne-, eta obrak egiteko epea lanak

hasi eta hamar hilabetera amaituko da. Interesatuta dauden enpresek azaroaren 18ra arte aurkeztu ditzakete euren proposamenak.

Pleguan jasotzen denez eta BEB Arkitektoak SLren proiektuak

jasotzen duenez, Bergarako erdigunean egingo diren lan horietan jabari eta erabilera publikoko lurzorua berrituko dira. Lanak hiru zatitan egitea aurreikusten da: lehenengo zatiak Barrenkalea hartzen du, Irizar kalearekin eta Arrese kantoiarekin bat egiten duenetik Masterrakaino; bigarrenak, San Martin plazatik Irizarrekin bat egiten duen tokira; eta hirugarrenak Egin Mallea eraikinaren plaza eta Irizar jauregiko lorategiekin duen lotura hartzen ditu.

OHARRAK

Ezkur-bilketa domekan


Kukubaso elkarteak antolatuta, ezkur-bilketa egingo dute Agirretxeberrin. 10:00etan elkartuko dira, Miguel Altunan.

Hitzaldia azaroaren 14an

Zaintzaren sektorean lan egiten duten emakume migratzaileentzako bizitegi-alternatibei buruzko mahai ingurua egingo dute Irizar jauregian, 18:00etan.

BKEren Gabonetako kanpaina

Futbol sailak kirol arropa eta bestelako materialak jarri ditu salgai. Produktuak Bidekurutzeta kaleko bulegoan daude erakusgai. Eskerak egiteko: www.bergarakedenda.com.



Arriola, Ubera, Arregi eta Aristegi, martitzeneko hitzaldian. I.U.

Osasun sistema publikoaz hausnartzen

Osasun sistema publikoaren eta Osakidetzaaren egoeraren diagnostikoa eta puntu horretara iristeko arrazoiak azaldu zituzten martitzenean Larraitz Arriola familia-medikuak, Ander Arregi larrialdietako medikuak eta Rebeka Ubera EH Bilduko parlamentariak

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Gipuzkoako jubilatuen eta pentsiodunen Duintasuna elkarteak antolatuta, *Zer ari da gertatzen Osakidetzan?* hitzaldia egin zuten martitzenean Larraitz Arriola familia-medikuak, Ander Arregi larrialdietako medikuak eta Rebeka Ubera EH Bilduko parlamentariak Seminarixoan. Arriolak eredu olista garatu zuen. Azaldu zuen osasungintzaren eredu horrek pertsonaren gaixotasuna kontuan hartzeaz gain haren ingurua ere aztertzen duela: "Osasuna gaixotasuna baino askoz gehiago da. Solidaritatea da, erlazioak edukitzea, zorionsu bizitzea... Kontuan hartu behar ditugu determinante sozialak".

Horiez gain, estrukturalak ere aintzat hartu behar direla zioen, eta botere ardatzek ere eragina izan dezaketela osasunean, eta horiek kontuan izanda egin behar dela politika: "Osasun sistema potentia eduki behar dugu, baina osasuna txertatu behar dugu politika guztietan gauza horiek guztiak aldatzeko". Datuak ere eman zituen: "Ikerketen arabera, osasun sistemaren kalitateak %10 eragiten du osasunean; baldintza sozioekonomikoek, %40; bizimoduak, %40; eta ingurumenak, %10". Hala, nabarmendu zuen beste ikerketa batek dioela hamabost urtean mediku talde bera izanez gero %25-30 jaisten dela hilkortasun-tasa. Era berean, osasun sistemaren

irisgarritasuna gertu izanez gero, orokorrean, norbanakoaren osasuna hobetu egiten dela.

Kausa printzipalen hiru eremu
Arriolaren bide beretik jo zuen Uberak; esan zuen hemengo osasun sistema publikoa gaixotasunean oinarrituta dagoela, eta ez "osasunaren eraikuntzan". Hala, nabarmendu zituen pertsonal politikak, gobernantza eta publikoaren eta pribatuaren arteko harremana. Pertsonalari dagokionez, behin-behinekotasuna bultzatu dela zioen, eta horrek jarraikortasuna haustea, gainzama, profesionalizazio gabezia eta desmotibazioa ekarri dituela. Gobernantzari dagokionez, berriz, Osakidetza "oso erakunde itxia" dela esan zuen, eta legea bete arren arduradunak nahierara aukeratzaren zirela. Zera gehitu zuen: Eusko Jaurlaritzak apirilean argitaratutako txostenaren arabera, azken hamar urteetan pribatizazioa %50 areagotu dela.

100dik gora txanda bete gabe
Arregik salatu zuen ordezeko prekario "asko" daudela, besteak beste, larrialdi zerbitzuetan, eta horietako askok ez dauzkatala "Osakidetzako akordio erregulatzailak" markatzen dituen baldintzak. Gainera, lantaldean hutsuneak daudela azaldu zuen, eta baldintza txarretan lan eginez gero zerbitzua okertzen duela. ZIU Mugikorretan lantalde ara-

zoa urte osoan badago ere, udan "sakondu" egiten dela dio. Eman dako datuen arabera, udan ZIU Mugikorretan 100 txanda baino gehiago egon dira bete gabe; Debagoienean, ia 50.

Lizarrara irteera eta tailerra egingo ditu San Joxepe azaroan

Azaroaren 15ean Mutrikun ospatuko den jubilatuen elkartearen abesbatza topaketa hartuko dute parte

I.A.A. BERGARA

Azaroarako ere hainbat ekintza antolatu ditu Bergarako San Joxepe jubilatuen elkarteak. Urtero bezala, eguaztenean ospatu zuten Gaztaina Erre Eguna, eta 50 kilo gaztaina erre banatu zituzten kideen artean.

Azaroaren 8an, 15ean eta 29an, berriz, Agijupens-ek -jubilatuen zentroen federazioa- antolatu duen abesbatza topaketa egingo dute Mutrikun, eta San Joxepekoa han izango da, hilaren 15eko emanaldian. Hamabi taldek hartuko dute parte eta San Joxepetik adierazi dute musika-ekin lotutako jarduerak "oso komenigarriak" eta "sustatu beharrekoak" direla.

Lizarrara irteera

Azaroaren 14an, Lizarrara egingo dute txangoa Bergarako erretiratuek. 08:30ean elkartuko dira,

Ibargaraiko autobus geltoki nagusian, eta hamarretako egingo dute Lizarrara heltzean. Ondoren, aukeratu egin beharko da azoka edo Morapio upategia bisitatu. Iratxe jatetxean bazkalduko dute eta 18:30 aldera hartuko dute bueltako autobusa. Izena emateko epea itxita dago.

Hilaren 18an eta 25ean hitzaldia

Azken urteetan izan duen arrakasta ikusita, aurtengo ere azken borondateen dokumentuari buruzko tailerra antolatu dute, Duintasun Hiltzeko Eskubidea elkartearekin elkarlanean. Tailerrak bi saio izango ditu eta biak San Joxeperen egoitzan izango dira, 18:30ean hasita. Dokumentua osatzearen helburuak eta zalantzak azalduko dira lehenengo egunean; bigarrean, berriz, dokumentua osatzen hasiko dira.



Bergarako Udala

Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, ondoko hau erabaki da behin-behineko izaeraz:

Ondorengo ordenantza fiskalak aldatzea:

1. Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duena.
2. Ekonomi jardueren gaineko zerga arautzen duena.
3. Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duena.
4. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duena.
5. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duena.
6. Jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituena.
7. Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden tasak arautzen dituena.
8. Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden prezio publikoak arautzen dituena.

Erabakia Udalbatza Osoak 2024ko urriaren 28ko bileran hartu zuen. Erabaki hori behin betiko bihurtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

11/1989 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorritik, behin-behineko erabaki hau 30 lanegun jarriko da ikusgai jendaurrean udaleko iragarki-taulan, interesatuek espedientea aztertu eta egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal dituzten.

Erakustaldia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean bitartez jakinaraziko zaio jendeari, eta iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da epea kontatzen. Informazio honen arauzko epea erreklamaziorik gabe igaro ondoren, hartutako akordioak eta adierazitako agiriak behin betirako onartuak izango dira akordio berririk hartu beharrik izan gabe.

Bergara, 2024ko urriak 28
ALKATEA



Azaroaren 3an egindako bigarren irteeran 28 emakume elkartu ziren; hurrengo azaroaren 17an egingo dute. HANKALUZE TRAIL

Antxintxika egiteko batu, eta bidea dute helmuga

Hankaluze Trail taldeko Maria Sanchez korrikalariak gidatuta eta Udalaren laguntzarekin, herriko emakume talde bat antxintxika egiteko elkartzen hasi da, eta batzuk dagoeneko animatu dira San Silvestre Trail proban izena ematera; atek zabalik dituzte, "erabat"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA 2014an hasi zen lasterketetan parte hartzen Hankaluze Trail taldeko Maria Sanchez (Bergara, 1992), eta, ordutik, ia etenik barik hartu du parte askotariko probetan. Sanchezen arabera, badira Bergaran hainbat emakume lasterketetan parte hartza animatuko lirakeenak baina "lotsagatik edo beste arrazoi batzuegatik" izenik ez dutenik eman orain arte.

Hain zuzen ere, Udalaren deia jaso zuten Hankaluze Trailen egoera horri buelta ematen saiatzeko, eta Sanchezek hartu zuen gidaritza: "Emakumea trail munduan ere ikusarazi nahi dugu. Gertatu ohi da emakumeok nahi dugula antxintxika hasi, baina lotsagatik, bideak ezagutzen ez ditugulako edo beste motibo batzuegatik ez garela animatzen. Ni gizonetaz inguratuta hasi nintzen, gustura. Helburua hori da, lotsak alboratzea eta lasterketetan parte hartzeko ere herriko emakumeak ahalduntzea".

San Silvestre, "aitzakia" bat Abenduaren 31ko San Silvestre Trail proba "aitzakia bat" da, Sanchezen arabera: "San Silvestre Trail proba aitzakia bat da prestaketak hasteko. Oraingoz, bi saio egin ditugu, bi asteburutan jarraian, eta oso ondo joan dira. Lehen entrenamenduan hamazortzi emakume elkartu ginen hamar kilometro egiteko eta bigarrenean 28 elkartu ginen 14 bat kilometro egiteko; Itxumendiko tontorra egin genuen bigarren irteeran, helburua ere badelako herri inguruan ditugun bideak eta parajeak ezagutzea. Maila ezberdinak daude taldean, baina denok batera joaten gara; hau da, alde zehatzetik zehaztutako toki batera nor bere errit-

TALDERA BATZEKO, PALMONDOAREN BIRIBILGUNERA JOAN BEHAR DA HILAREN 17AN (09:30)

moan doa, baina leku horretara heldutakoan geratu, eta atzetik datozei itxaron egiten diegu. Helburua da denok batera egitea ibilbidearen zati handiena".

Sanchez eta Udaleko ordezkariak pozik daude ekimenak jaso duen erantzunarekin. "Whatsapeko talde bat ere sortu dugu; ea lortzen dugun gure laguntza barik ere taldetxo bere kabuz irtetea korrika egitera. Abenduaren 31ra bitartean guztira bost saio egingo ditugu eta dagoeneko badira batzuk izena eman dutenak. Pozik gaude", gaineratu du Sanchezek. Azaroaren 17rako egin dute hurrengo hitzordua, eta egun horretan bertan erabakiko dute hurrengo irteera noiz egin: "Domeketan elkartuko gara, taldean badirelako herriko dendetan lan egiten dutenak eta zapatuan lan egiten dutelako". Taldearekin bat egin nahi duenak azaroaren 17an Ibargaraiko Palmondoko biribilgunearen ondora joan behar du, 09:30ean.



NIRE USTEZ

INAZIO NARBAIZA

Gure heroiak

Hasteko, gaiak ikaragarriko garrantzia duela argi dago. Nola eraikiko dugu gure komunitatea, herria edo nazioa, garbi ez badugu zein pertsonaiari egiten diogun ohore gure kaleen izenekin, jai eta ospakizunekin eta beste? Jarraitzeko, Dekolonizatu Bergara taldearen asmoa txalotzeko iruditzen zait. Gazteak gorago aipatutako helburu aztertzaileaz arduratzea pozgarria da. Kontua zera da, asmo hori nola gauzatzen den. Ez naiz izan aurten talde horrek Iralaren inguruan antolatutako ekintzetan, baina nik Iralaz dudana irudi negatiboa ez dut ezkututzen. Hala ere, aurreko hitzaldi baten izan nuen aukera Dekolonizatu Bergara taldeko batzuei entzuteko, eta Axier Lopezen *Gure heroiak* liburua erreferentzia absolututzat erabiltzen zutela iruditu zitzaidan. Agian, gehiegi, zehaztasun historiko gehiago eskatu daiteke. Bestetik, zer egiten dugu San Martinekin? (Hurrengo baterako). Gizarte demokratiko baten erabakiak hiritarrenak izan behar dira lirake, baina horretarako, azterketa historiko sakon eta zehatza egin behar lehenengo. Ondoren, hiritarrei galdetu zer mantendu eta zer aldatu.



Maiatzean Basalgon egindako bazkariaren osteko talde-argazkia. HILARIO AZKARGORTA

Athleticzaleen lagunartekak 25 urte bete dituela ospatuko dute

Azaroaren 13an Artatsen elkartuko dira (18:30); besteak beste, Andoni Goikoetxea jokalaria ohia etorriko da ekitaldira

J.B.L. BERGARA

Bergarako athleticzaleen lagunartekak 25 urte bete dituela ospatzeko Artatsen elkartuko dira azaroaren 13an, 18:30ean. "Andoni Goikoetxea jokalaria ohia etorriko da, eta baita beste bi jokalaria ere; bi jokalaria horiek zeintzuk diren ez digu zehaztu oraindik. Horrez gain, Athletic-eko zuzendaritza taldeko ordezkariaren bat ere etorriko da", adierazi du lagunarteko kide Mikel Gomezek. 1999ko maiatzean sortu zuten lagunartea eta gaur egun 140 bat bazkide dira gutxi gorabehera: "Hildako bazkideak

ere gogoan izango ditugu ekitaldian. Bide batez eskerririk asko gurekin bat egin duten enpresa, taberna eta pertsonari. Gora Athletic! Gora Bergara!".

Gabonetako loteria: 68.280

Bestalde, jakinarazi dute Gabonetako loteriako zenbakia 68.280 dela. Txartelak honako leku hauetan eros daitezke, besteak beste: Rotulos M2 dendan eta Bergarako Intxorta, Arkupe, Pol-Pol, Ogi Berri -Matxiategikoa eta Ibargaraikoa-, Amilotx eta Belengua tabernetan. Antzuolako Larrean ere salgai daude.

Miguel Okinaren lanak aitzakia, Sagarpera eta Gure Ametsara bisita

Aurten Miguel Okina margolaria jaio zela 100 urte betetzen direla ospatzeko ekitaldiekin aurrera dihardu Beart elkarteko batzordeak. Hurrengo ekintza elkarte gastronomikoetara bisita izango da, elkarteotan ikusgai dauden Okinaren artelanez gozatzeko; horretarako lehen hitzordua zehaztu dute azaroaren 16rako. Bi bisita egingo dituzte: 11:00etan Zubiaurre kalean da goen San Miguelpe elkartera joango dira eta 12:00etan, berriz, San Antonio auzoko San Migel kaleko Gure Ametsa elkartera. Bisita horietarako edukiera mugatua denez, alde aurretik izena ematea eskatu dute antolatazaileek: 613 44 82 17.

2025ean Aroztegin erakusteko deialdia martxan artistentzat

"Komunitatearen sormena eta adierazpen artistikoa" sustatzeko helburuarekin, Udalak deialdia ireki du 2025ean Aroztegi aretoan euren lanak erakutsi nahi duten artistei begira. Lanak Aroztegin erakutsi nahi dituzten artistek Bergarako Udal Erregistro Elektronikokoaren bidez aurkeztu dezakete eskabidea; betiere, Udalak prestatutako ereduari jarraituta. Gainera, ibilbide artistikoa jasotzen duen dosierra, lanen argazkiak eta lan horien behin-behineko zerrrenda ere aurkeztu beharko dituzte. Eskaerak aurkeztu behar dira azaroaren 22ko 13:00ak baino lehen. Argibide gehiago, www.bergara.eus webgunean.

ZinemaOn: 'Traineras' lana eta solasaldia azaroaren 20an

ZinemaOn zineklubak iragarri ditu azaroko eguaztenetako filmak, Seminarixuan, 20:00etan: Pilar Palomeroren *Los destellos* emango dute azaroaren 13an; hilaren 20an, Telmo Irigorriren *Traineras* ikusi ahalko da -filmarekin batera solasaldia ere egongo da-; eta hilaren 27an, azkenik, Coralie Fargeat-en *The Substance* pelikula proiektatuko dute.

"Patxada irabazi eta lotsa galdu dugu gure bidean"

ANDER SOLOZABAL KORTABARRIA ETA EKAITZ ARANBERRI ZEZEAGA BIDELAPURRAK Errepidera bueltan dator 2014an Gasteizen sortu zen taldea, 'Inorenak ez diren lurretan' diskoarekin: "Entzuleak eman diogun mimo eta goxotasunarekin gozatzea espero dugu"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Ander Solozabal Kortabarria (Gasteiz, 1991) eta Ekaitz Aranberri Zezeaga (Bergara, 1990) dira Bidelapurra. 2014an elkarrekin ziren, adiskidetasuna oinarri, folk rock doinuak lantzeko, eta, egindako bidea inork lapurtuko ez dien harrotasunarekin, gogotsu daude kaleratu berri duten diskoa zuzenean aurkezteko.

Bada denbora bat ez genekiela ezer Bidelapurrez; mendian ezkutatuta egon zarete errepidera irten gabe?

Ander Solozabal: Sumatu ez izanak ez du esan gura ezkutuan ibili garenik. Nire kasuan, Iramo edo Harakin proiektuetan; eta, Ekaitzen kasuan, Harriarekin.

Ekaitz Aranberri: Hamar urte baino gehiago dira Ander eta biok elkartzen hasi ginenetik; adiskidetasun harreman batena izan da gure bidea. Garai batzuetan modu jarraituagoan eta beste batzuetan ez horrenbeste, baina beti elkartu izan gara abestiak jotzeko edo kontzerturen bat eskaintzeko.

2018an zenioten, besteak beste, ez zaretela talde konbentzional bat; zertan zarete, bada, ezberdin?

A.S.: Egun bizi dugun erritmo frenetikoari bizkar emanda bizi gara. Gure talde kutuna da, espektatiba handirik gabekoa; umil mantentzen saiatzen gara.



Solozabal eta Aranberri -bi izkinetan-, Bidelapurra taldeko bidelagunekin. BIDEAPURRAK

E.A.: Ezer berririk asmatu bari, gure inguruan gutxi lantzen den musika estiloa da gurea. **Inorenak ez diren lurretan jarri diozue izenburu kaleratu berri duzuen diskoari; zergatik?**

A.S.: Ainhua Narbaizari zor diogu. Islatzen ditu gure abestiak. Geureak ez diren arren, eroso gabiltza AEBetako lur edo doinu haietan; betiere, gurera ekarrira. **Nolakoa izan da grabaketa?**

E.A.: Aurreko diskoei eskaini ez diegun mimoa eta patxada eman diogu abesti sorta honi. Helduagoak ere bagara, eta kon-



BIDELAPURRAK 'INORENAK EZ DIREN LURRETAN'

- Generoa Folk rocka.
- Estudioa Pottoko estudioa (Beasain).
- Azalaren egilea Mikel Aginagalde.

plexu eta lotsa batzuk bidean galdu ditugu; gai batzuei abesteko, esaterako. Eta musikari moduan, bagabiltza ikasten abestiei behar dutena ematen, ez gutxiago eta ezta gehiago ere.

Zeintzuk izan dituzue bidelagun?
A.S.: Ekaitzez eta bioz gain, Jon Aranburuk -lap steel-a eta gitarrak elektrikoak-, Gorka Etxebarriak -bateria eta perkusioak- eta Irati Olaziregik -baxua- osatu dute Bidelapurra disko honetan. Asier Elorza lagunak tronpeta eta kornuak sartu ditu abesti bannatan, eta Maitane Azkaratek kornuak. Horrez gain, Fredi Pelaezen itzala oso luzea da diskoan; ekoizpenaz arduratu da, eta harenak dira nahasketa eta mastera. Bestetik, musikari ere aritu da, pianoa eta *hammond*-a sartuz, besteak beste.

E.A.: Lehen aldia da ekoizle batekin egin duguna lan, eta nabari da. Behar genuen laguntza hori. Abestiek hartu behar zuten bidea aukeratzen lagundu digu, eta lanari kalitatea hobetu dio.

Gustura geratu zarete emaitzarekin?
A.S.: Oso. Eta espero dugu entzuten duenak ere gozatzea eman diogun mimo eta goxotasunaz; hau da, denbora eskaini eta behar den bezala entzutea.

Ze kontzertu dituzue lotuta?

E.A.: Azaroaren 15ean, Andoaino gaztetxean joko dugu, Unidad Alavesarekin; eta hilaren 29an, kartzela zaharrean egongo gara, Amustei taldearekin. Etorriko dira gehiago; gogoz gaude. Jendeak diskoarekin goza dezala, harro gaude eta. Bestalde, lan honekin, gure leku kutunak bisitatzeaz gain, oraindik zapaldu ez ditugun oholta batzuetara heldu nahiko genuke.

Ezer gaineratu nahiko zenukete?
A.S.: Biba Joakin Iturbe eta Debagoieneko bandoleroak!

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630


ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Proiektuak · Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

21
KALITATEA

Empresa Registrada N°99/025



Irukurutzetara egin zuten iaz irteera Mendi Astearen barruan. ARROLA

Solasaldia, irteera eta baba-jana Mendi Astean

Arrola Mendizale Elkarteak antolatatu du, eta azaroaren 13an eta 16an egingo dituzte ekintzak. Baba-jana egingo dute zapatuan, eta izena eman behar da: horretarako, etzi arte dago aukera. Bazkalondoren, bertso saioa izango da, hiru bertsolarirekin

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria ANTZUOLA

Mendi Astea ospatuko dute antzularrek, beste urte batez, datorren astean, Arrola Mendizale Elkarteak antolatuta. Hilaren 13an izango da lehen ekintza, datorren eguaztanean, *Kharut 2, tontor birjina* dokumentalaren emanaldia izango baita egileen solasaldiarekin batera, 18:30ean, Torresoroan. Vicente Barcena eta Koldo Zubimendi mendizale erandiotarrak dira, hain zuzen, lanaren egileak, eta Asiako Karakorun mendilerroko Kharut II gailurrerako bide bat zabaldu zuten iaz, 2019tik horrekin amesten aritu ondoren: bada, han bizitakoak bildu dituzte lanean, eta hori izango dute gogoan aurkezpenean.

Hilaren 16an, berriz, zapatuan, egun osoko egitaraua izango da: Irimora irteera egingo dute lehendabizi, eta, horretarako, 10:00etan aterako dira parte-hartzaileak Herriko Plazatik. Egniko esfortzuak, gainera, saria izango du, baba-jana izango baita Gaztelu Gain elkartearen bazkaltzeko orduan.

Bazkaria bertsolariekin

15 euroko prezioa du bazkariak, eta etzi arte –hilak 10– dago izena emateko aukera, helbide

KOLDO ZUBIMENDIK ETA VICENTE BARCENAK KHARUT MENDIAN BIZITAKOAK IZANGO DUTE HIZPIDE

honetan: labur.eus/mendiastekobazkaria2024. Ondoren, gainera, bertso saioa izango da, hiru bertsolarirekin: zehazki, Unai Izagirre azkoitiarra, Ane Beloki legazpiarra eta Eneko Araiztegi segurarra arituko dira bertsotan, herriko gai-jartzaile batekin alboan.

Etxalar-Bertiz irteera

Euskal Herriko natura parkeak ezagutzeko proiektuak martxan jarraitzen du, eta Nafarroara joango dira bihar, Bertiz-Etxalar zeharkaldia egingo baitute. 18,5 kilometroko ibilbidea da, 960 metroko desnibel positiboa duena, eta 6,5 ordukoa. Egun osoko irteera izango da, eta goizeko zortzietan aterako da autobusa geltokitik. Izen-ematea: labur.eus/HzUDN.

Trekutz parke eolikoaren egoera

Capital Energy enpresak, Cilda Energyren bitartez, 2021ean eman zuten Trekutz parke eolikoa egiteko asmoaren berri, eta enpresak aurkeztutako proiektua iazko abenduaren 15ean argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Otsailera arteko epea egon zen proiektu horri alegazioak aurkezteko: Udalak, alde batetik, ofizialak aurkeztu zituen; eta

Meaka-Irimo herri plataformak, beste aldetik, herrikoiak. Erresoluzio fasean dago ordutik hona; horrenbestez, gaur-gaurkoz, ez dago erantzunik.

Plataformako kideek jakinarazi dutenez, administrazio epeen arabera Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak abuztu hasierara arte zuten jarritako alegazioei erantzuna ematekoa, baina ez da horrela

izan; alegia, Udalak zein plataformak –eta, horrenbestez, herritarrek– jarritako alegazioek ez dute erantzunik oraindik.

Elkarretaratzeak

Plataformak, bien bitartean, mobilizazioekin jarraituko du: hala, elkarretaratze bana egingo du hilaren 19an –10:30etik 11:30era– eta abenduaren 20an –10:00etatik 11:00etara– Eusko Jaurlaritzaren atarian, Gasteizen.



Suteak ikastolaren eraikinetako bat erre zuten. IRULEGIKO IRRATIA

Aihertarrak ikasle diren Arberoa ikastolari laguntzeko kanpaina

Kiskali egin da eraikinetako bat, eta diru-bilketa abiatu dute eskolaren eguneroko jardunean aurrera egiteko

A.R.K. ANTZUOLA

Sute batek Donamartiriko (Nafarroa Beherea) Arberoa ikastolako hiru eraikinetako zaharrena erre zuten urriaren 28an; teilatua eta barnealdea kiskali egin ziren eta kalte material handiak eragin zituen. Eta horri irtenbide bat emateko, elkartasun kanpaina bat abiatu dute, ikastola sostengatzea helburu: labur.eus/B5CKh. Horrez gain, kontu korrante bat ere jarri dute nahi duenaren eskura: FR76 1005 7195 2500 0202 0160 520.

Arberoa ibarreko ikasleak hartzen ditu barne ikastolak;

tartean, hainbat aihertar. Kiskalitako eraikinari dagokionez, 200 metro koadroko prefabrikatu bat zen, eta bertan ziren, besteak beste, 3 eta 6 urte arteko haurren ikasgela eta irakasleen bilera-gela.

Herri Urrats

Peio Jorajuriak, Seaskako lehen-dakariak, iragarri du datorren urteko Herri Urrats Senpereko Kattalin Elizalde kolegioaren handitze lanak ordaintzeko aurreikusia zutela, baina, horrez gain, Arberoa ikastola sostengatzeko ere izango dela.

GORA ETA BEHERA



Zigarroak itzaltzeko zutikakoak

Zigarroak itzaltzeko zutikakoak jarri ditu Udalak herriko hainbat lekutan –tartean, Eroski alboan, irudian–, eta erabakia txalotu egin du herritar batek: "Zigarrokinak lurreen gera ez daitezen bermatuko duen zerbait izan dadila, herria garbi mantendu dadin".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.





Euskarazko irakurle taldea 2022ko otsailean eginiko saio batean. GOIENA

Euskarazko literaturaren zaletasunean eragiten

Irakurle taldeak hilaren 14an emango dio hasiera ikasturteari, Alaine Agirre idazlea gidari dela. Sei saio egingo dituzte, eta taldea irekia da: euskarazko literatura oinarri, hausnarketarako espazio bat sortzea da helburuetako bat, eta eztabaida sustatu

Amaia Ramirez de Okariz
Kortabarría ANTZUOLA

Euskarazko literaturaren inguruan zaletasuna pizteko asmoz egin zituen lehen urratsak Antzuolako euskarazko irakurle taldeak, eta,aldi berean, herritarren artean irakurketa ohiturak sustatzeko. "Halaber, euskaraz irakurri eta gogoeta egiteko espazio bat sortu nahi da,

irakurleek liburuak partekatuz ikuspegi berriak deskubritzeko", adierazi du Miren Zubikaraik, Antzuolako liburutegian.

Hiru urte igaro dira ordutik, eta martxan jarraitzen du horretarako aukerak, datorren egunean hasiko baitu taldeak 2024-2025eko ikasturtea, hilaren 14an, Alaine Agirre idazlearen gidaritzapean. "Hirugarren urtea

du taldeak, eta Alaine ere hirugarren aldiz egongo da. Haren lana da saioak dinamizatzea, liburuaren inguruko galderak eta iritziak bideratzea eta parte-hartzaileen hausnarketak eta eztabaidak sustatzea".

Taldearen egunerokoa

Urteek aurrera egin ahala "gero eta herritar gehiago animatu"

direla nabarmendu du Zubikaraik, eta gaur egun "dozena bat parte-hartzaile" elkartu ohi direla egiten diren saioetan. "Parteideek esan ohi dute taldean irakurtzeaz gain elkarriketa aberasgarriak eta ikuspuntu ezberdinak aurkitzen dituztela espazio horretan".

Taldeak, hain zuzen, hilabetean behin egiten ditu saioak, gutxi gorabehera, eta aurrez hautatzen dute saioetako bakoitzean landu beharreko liburua, irakurtzeko denbora izan dezaten. Saioetako bakoitzean, horrenbestez, liburua aztertzeaz gainera, "irakurleek euren ikuspegi eta iritziak partekatzen" dituzte.

Ikasturte honetako saioak ere zehaztuta dituzte dagoeneko, eta, datorren egunekoaz gain, beste bost egingo dituzte aurrerantzean: zehazki, urtarrilaren 16an, otsailaren 13an, martxoaren 13an, apirilaren 10ean eta maiatzaren 15ean izango dira, 18:00etan, liburutegian. "Askotariko lanak landuko dira; aurten, esate baterako, nobela, thrillerra eta ipuinak, irakurleek aukera zabala izan dezaten literatura generoak ezagutzeko".

Parte har daiteke

Irakurle taldea irekia da, eta, horrenbestez, Zubikaraik azpimarratu du interesa duen oro sar daitekeela. Haren esanetan, ez da derrigorrezkoa saio guztietan parte hartzea, baina ohartarazi du aurrez izena ematea komeni dela liburutegian, parte-hartzaileen kopuruak jakiteko eta liburuak mailegatzeko: "Liburuak liburutegian eska baitaitezke; horrela, parte-hartzaileek erosi beharrik gabe irakurri dezakete saio bakoitzean hautatutako liburua".

Sei liburu landuko dira ikasturtean

Datorren egunean hasiko da euskarazko irakurle taldearen ikasturtea, hilaren 14an, eta herritarrek sei liburu lantzeko aukera izango dute. Hauek dira datak, egileak eta liburuak:

Azaroak 14

Karmele Jaio idazlearen *Maitasun kapitala*. Nobela da.

Urtarrilak 16

Ekaitz Goienetxea idazlearen *Zaldi mamarroa*. Nobela da.

Otsailak 13

Iñaki Petxarroman idazlearen *Lehendakariaren alaba*. Nobela-thrillerra da.

Martxoak 13

Lizar Begofia idazlearen *Mundu zitalaren kontra*. Nobela da.

Apirilak 10

Eider Rodriguezen *Haragia*. Ipuin liburua da.

Maiatzak 15

Karmele Jaio idazlearen *Aitaren etxea*. Nobela da.

Ohikoena ez den arren, saio batzuetan idazleek ere hartu izan dute parte; gaur-gaurkoz, ordea, ez dago aurreikuspenik ikasturte honetarako.

Errigorako saskia eska daiteke liburu-dendan hilaren 14ra arte

Saski beltza, berdea eta gorria daude, eta eskuorri bat bete behar da eskaera egiteko; online aukera ere bada

A.R.K. ANTZUOLA

Nafar hegoaldeko uzta, *euskarari puzka* izenpean, martxan da Errigorako saskiak eskatzeko kanpaina, eta bada horretarako aukera Antzuolan ere, Itzar liburu-dendan eskuorri

bat betetzea nahikoa baita horretarako. Alabaina, egun gutxi gelditzen dira eskaera egiteko, hilaren 14a baita azken eguna, eguna.

Horrez gainera, online eskatzeko aukera ere badago; *erri-*

gora.eus webgunean sartu behar da horretarako.

Hiru saski aukeran

Saski beltza, berdea eta gorria daude aukeran; hurrenez hurren, 55, 65 eta 75 euroko prezioa dute. Nafarroako produktuz osatuta daude, eta tartean daude piperrak, zainzuriak, leka-leak, edari alkoholduak eta gozoak. Saski bakoitzak dakartzan produktuak zeintzuk diren jakiteko, ordea, webgunean dago informazio zehatza.

Gabonetako azokan parte hartzeko izen-ematea martxan da

Udalak antolatuta, iaz egin zuten lehenengo aldiz Gabonetako azoka Antzuolan: abenduaren 24an izan zen, goizean, eta, izandako erantzungaren ondoren, horrela egingo dute aurten ere; hala, Udalak zabalik du dagoeneko izen-ematea.

11:30etik 14:30era egingo da, hain zuzen ere, Gabonetako azoka, iazko egun berean, Zu-

rrategi plazan. Herriko sortzaile eta artisauek ez ezik, parte hartzeko aukera izango dute bigarren eskuko gauzak salgai jarri nahi dituzten herritarrek ere; bada, horretarako, abenduaren 21era arte dago izena emateko aukera, udaletxean bertan. Udalak emandako azalpenen arabera, haren ardura izango da azokan beharrezkoak diren mahaiak jartzea; gainontzeko materialari dagokionez, ordea, postua jarri nahi duenaren ardura izango da.

Heriotzari buruz hitz egiteko gonbidapena

Gaba Beltzak ekarri ditu heriotzaren bueltako lehen ekintzak, eta nagusiki ludikoak izan dira. Bestelako hurbilketa bat proposatzen du liburutegiko BiblioHotz zikloak. Alberto Agirreazaldegik emango dio hasiera, gaur, 'Heriotza Euskal Herrian' hitzaldiarekin

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Kalabazak hustu eta jantziak prestatu ostean heldu ziren puskabatzea, frontoi zaharrean egindako Gaba Beltzeko jaia eta haur nagusiagoendako jarraian antolatutako beldurrezko ipuin kontaketa. Modu ludikoan egindako ekintzak izan dira.

Heriotzak, ordea, tabu izaten jarraitzen du gizartean, eta, gaia lehen lerroa ekartzeko ahaleginean, BiblioHotz zikloa antolatu du aurten Elgetako liburutegiak. Hiru ekintza iragarri ditu Geaxi Ezpeleta liburuzainak, eta gaur izango da lehenengoa: hain zuzen ere, *Heriotza Euskal Herrian* izeneko liburuen jasotako inguruan arituko da Alberto Agirreazaldegik elgetarra, 18:30ean. 1989an argitaratu zuen liburua eta hiletako errituen eta zeremonien ingurukoak jaso zituen bertan. Horien inguruan hitz egingo du hitzaldian.

Solasaldia eta ipuin saioa

BiblioHotz zikloaren bigarren proposamena hilaren 21erako iragarri dute: *Hil arte bizi* egitasmoko kide Nerea Erkiaga izango da Elgetan, eta heriotzari buruzko tailerra gidatuko du. Hark uste du heriotzaren aurrean eraiki den beldurra deseraiki egin daitekeela, eta askotariko tailerrak egiten ditu ikastetxeetan, adinekoen egoitzetan eta elkarteetan. Herritar guztiei zabalik dagoen solasaldia da.

Zikloa ixteko, *Azken bisitaria* izeneko ipuin kontaketa saioa egingo du Bego Alabazanek hilaren 29an. "Ipuin saioak aukera emango du heriotzari beste begi batzuekin begiratze-

'HIL ARTE BIZI' HITZALDIA ETA 'AZKEN BISITARIA' IPUIN SAIOA ERE IZANGO DIRA AZAROAN



Gaba Beltzeko jaialdia, aurreko barikuan, frontoi zaharrean. I.A.A.

ko. Gustatu edo ez, denoi etorririko zaigu azken bisitaria den Heriotza. Ez dugu zertan beldurtu; izan ere, ipuinek hainbat bide eskaintzen dizkigute pertsonaia ezagutzeko, onar-

tzeko eta, zergatik ez, engainatzeko", esan du. Helduentzako saioa izango da.

Gaztaina erre janak gaur

Bestetik, eskola komunitateak eta Xalbadorpe elkarteak gaztaina erre jan bana egingo dute gaur. Euskal kulturarekin lotutako ohitura eta erritual zaharrak daude urteroko ospakizun horien atzean, eta badute zerikusia heriotzarekin. Ohitura zen azaro hasierako egunetan elkartzea, besteak beste, joandako arbasoak gogoan izateko, eta, gaztainak sasoikoak direnez, sarri prestatzen ziren, taldean jateko.

Elgetan urteroko ohiturari jarraipena emanez, eskolako ikasleak, irakasleak eta gurasoak danbolinaren bueltan elkartuko dira. Guraso elkarteak hamabost bat kilo gaztaina erreko ditu, Iratxe Bravoren laguntzarekin, eta prest edukiko dituzte 15:00etarako. Frontoi zaharrean egingo dute ospakizuna.

Xalbadorpeko erretiratuak ere mahaiaren bueltan elkartuko dira gaztaina erre jana egiteko: 17:30ean, Ozkarbi elkarte.

Hitzordu nagusiak

Azaroak 8, barikua

- **15:00** Gaztaina erre jana eskolan.
- **17:30** Xalbadorpe elkartearen gaztaina erre jana Ozkarbi elkarte.
- **18:30** Alberto Agirreazaldegiren *Heriotza Euskal Herrian* aurkezpena liburutegian.

Azaroak 21, eguena

- **18:30** Nerea Erkiagaren *Hil arte bizi* solasaldia liburutegian.

Azaroak 21, eguena

- **19:00** *Azken bisitaria* ipuin saioa liburutegian.

Galdeketa egingo dute eskolako jangela eredu aldatzeari buruz

Proiektuaren lehen planoak ikusgai daude eta lantaldeak bilera eskatuko du Hezkuntza Sailarekin

L.Z.L. ELGETA

Hainbat ekimen egin dira eskolako jangela zerbitzuak sukalde propioa izan dezan. 2021-2022ko ikasturtean abiatu zen lanketa, eta iazko abenduan sortu zen Jangela Eraldaketa Batzordea. Udaleko, eskolako eta guraso elkarte ordezkariek daude batzorde horretan, baita hainbat guraso boluntario ere.

Aurreko astean egin zuten familiendako lehen informazio batzar irekia. Jakinarazi zuten abendu aurretik izango dituztela esku artean Udalak enpresa espezializatu bati eskatutako jangela proiektuaren behin betiko planoak. Hezkuntza zinegotzi Kepa de Vegak baieztatu zuen asmoa dela kafe antzokiko sukaldari eta jangelari eskolako jangela erabilera ematea. Behin-behineko planoak ere aurkeztu zituen. "Obrak inbertsio

handia ekarriko du. Hainbat bilera egin ditugu Hezkuntza Saileko teknikariekin, eta esan digute Hezkuntza Sailak ez duela obra bere gain hartuko. Bideratzen gaituzte Udalguntza dirulaguntza-programara; inbertsioaren %60 estaliko luke".

Hurrengo urratsak

Behin betiko planoak eskuan, batzarra eskatuko dute Hezkuntza zuzendariekin, baina aurretik galdeketa egingo dute herrian. "Jakin gura dugu eskola komunitateak zenbateraino babesten duen proiektua. Otorduen prezioa publikoa da eta jangela eredu aldaketak ez luke horretan eraginik izango. Norbaitek proiektuaren lehen zirriborroaren planoak ikusi nahi baditu, hezkuntza.elgeta@gmail.com helbidera idatz dezake", esan dute Jangela Eraldaketa Batzordekoek.

Saguzarrendako habia-kutzak

Udaberrian Naturtzaindiarekin elkarlanean egindako ekintzei jarraipena emanez, saguzarrendako hogeitabi habia-kutxa jartzeko auzolana deitu du Udalak zapaturako. Taldea 11:00etan elkartuko da, herriko plazan, eta habia-kutzak San Roke osteko zuhaitzetan kokatuko dituzte. Herritar guztiei zabalik dagoen ekintza da.



ELGETAKO UDALA

OHARRAK

Patata-tortilla egiten ikasteko saioa Ozkarbin

Iker Herranek gidatuko du 19:00etan, eta Ozkarbi elkarte baxkide gazteendako da.

Sukaldaritza tailerra domekan gaztelekuan

Gazteleku zerbitzuaren ikasturteko lehen ekintza izango da, eta 2008-2012 urteen artean jaiotako gazteendako da. Gaur da izena emateko azken eguna. Domekako saioa 16:00etan hasiko da.

'Energia argitu' saioa eguaztenean udaletxean

Aste honetako saioaren ostean, eguaztenean egingo dute hurrengo. Energia berriagarrien inguruko izango da, 18:30ean. Izen-emateak: energiabulegoa@gipuzkoa.eus.



Eskuratu **DOAN** goienakideek dituzten abantaila guztiak

Ordaindu orain 2025eko kuota, 65 euro, eta
DOAN izango dituzu abantailak abendura arte



Gai biziz betetako aldizkaria

Puntua aldizkaria, zure buzoian,
egubakoitzero



Otordu onenak

Debagoieneko jatetxeetan bi
lagunendako otordua irabazteko
aukera astero.



Futbola bertatik bertara

Realaren partidua Reale Arena
futbol zelaiko premium gunetik
ikusteko zozketa jardunaldi
guztietan.



Hileroko zozketa bereziak

Teknologia-gailuak, jaki-otarreak,
ikuskizunetarako sarrerak eta askoz
gehiago! 2024an, dagoeneko 100
goienakideek baino gehiagok jaso dute
sari bat.



Poltsikorako abantailak

Deskontuak Debagoieneko hainbat
komertziotan eta Arrasateko Avia
gasolindegian.



Deskontuak Goienako zerbitzuetan

Eskelak, iragarki sailkatuak...



Lehentasuna aldizkarietan

Inork baino goizago, *Goiena* eta
Puntua aldizkariak, eguenetan,
00:00etarako irakurtzeko aukera
aplikazioan.



Kalitate onena

Goienako argazki-galeriak eta
bideoak kalitate handian eta
ur-marka barik deskargatzeko
aukera.



Eta, gainera, onura fiskalak

Errenta aitortpenean, Goienarena
lehentasunezko jarduera delako,
%30eko hobaria.

goiena[™]
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

Egin zaitez
goienakide:
943 25 05 05

Deitu eta
eman izena!



INFORMAZIO GEHIAGO

Beste fase batean sartu da Emakumion Etxia

Emakumion Etxia Eraikitzen prozesuaren baitan, bost lantalde jarriko dira martxan azaroan: Zubigileak, Gobernantak, Programatzaileak, Saltserak eta Bisionariak. Datorren astean dira lehen bilerak eta ateak zabalik daude emakume guztiendako

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Oinarriak eta funtzioa finkatuta, ekintzei eta zereginei heltzeko fasean sartuko da Emakumion Etxia Eraikitzen parte-hartze prozesua azaroan. Ikasturte honetan izango diren lanak zehaztu dituzte, bai etxea ireki aurreko tartean baita etxea zabaltzen denean bete beharko direnak ere, eta horiek egiteko bost talde eratu dituzte. Datorren astean egingo dituzte lehen bilerak eta parte hartzeko dei egiten diete herriko emakume guztiei. Bilera horiek orokorrak dira eta gero talde bakoitzak bere autonomia hartu du lanerako.

Hainbat bide zabalik

Momentuz, bost talde jarriko dira martxan: Bisionariak, Gobernantak, Programatzaileak, Zubigileak eta Saltserak. Eta prozesukoek dei egin gura diete emakume guztiei taldeetara batzeko eta proiektu horren parte izateko: "Oso lan ezberdinak izango ditugu esku artean: teorikoak, praktikoak, jarraipen handiagokoak edo oso puntuak... Denontzat dago tokia eta denok izan gaitezke proiektu honen parte".

Dagoeneko zabalik dago taldeetan parte hartzeko izen-ematea. Hiru bide hauetako bat erabili dezake proiektura batu gura duenak: telefonoz deituta edo *whatsapp* mezua bidalita 688 62 12 13 zenbakira, *berdintasuna@onati.eus* helbidera idatzita edo *www.onati.eus* webgunean sartu eta mezua bidalita. "Egin beharreko lanak askotarikoak izango dira: teorikoak batzuk, praktikoak ere bai, baita jarraipen handiagoa edo oso puntuala eskatzen dutenak ere", zehaztu dute. Bitartean, emakumeendako espazioa izango den eraikineko lanak aurrera doaz. Proiektua idazten amaitzen ari dira orain.



Emakumion Etxia izango den eraikina. O.E.G.

Taldeko bilerak egiteko egunak

Datorren astean egingo dituzte bost lantaldeetako batzarrak.

Azaroaren 11n, astelehena, udaletxean

- 16:00 Zubigileak.
- 18:00 Gobernantak.

Azaroaren 12an, martitzena, San Juan kaleko lokalean

- 17:00 Programatzaileak.

Azaroaren 13an, eguaztena, San Juan kaleko lokalean

- 16:30 Saltserak.
- 18:00 Bisionariak.



NIRE USTEZ

IRENE PEREZ ZUMALDE

Pazientzia

Liskarra izan zuten oraina bi ikaslek, mutila bata eta neska bestea. Irakasleei dagokigun bitartekotza lanean neskarekin ari nintzela, hitz hauek entzun nituen ezpain artetik iheska: "Pazientzia eduki dezala, badaki-eta mutikoak nolakoak diren". Jarraian, presaka hurrengo saiora, zapore mingotsa ahoan. Azkar esaten diren hitz horiek eman didate zer pentsatua azken boladan eta sortu dituzte berbeta interesgarriak mahai inguruan. Zenbateraino da mutilen garapen biologiko geldoagoa neska-mutilen heldutasun aldearen arduradun? Zenbaterainokoa da neska-mutilei ezartzen zaizkien generorolen pisua erantzule? Nola azaltzen dugu krisketa itxi ondoren barkamenik eskatu gabe eragin dituen kalteei itzuri egitea onargarri ikusten duen gizona? Bizitzan zehar jendeak berarekin pazientzia eduki duelako, akaso. Azaroaren 25a bertan dugu, honen inguruan gogoeta egiteko egun paregabea; gure kargu ditugu nerabeak errespetutik eta bizikidetzatik hezteko; jarrera matxistak antzematen eta arbuatzen irakasteko.

GORA ETA BEHERA



San Martingo ermitako pintaketa salatu dute



San Martin auzoko ermitan egindako pintaketa ikusi, eta "egindako astakeria hori" salatu gura izan du GOIENAKO irakurle batek, argazkia bidalita.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:688690007).

OHARRAK

Hotz Oñatiren elkartasun azoka

Hotz Oñati elkarteak ohiko elkartasun azoka egingo du bihar, zapatua, 11:00etan hasita.

Miko-poteoa Arantzazun

Miko-poteo jardunaldia egingo dute zapatuan Arantzazun: 17:30ean hitzaldia Gandiaga Topagunean eta ondoren miko-poteoa Arantzazuko jatetxeetan.

Odola emateko txanda online hartzeko

Hilaren 15erako iragarri dute azaroko odol ateratze eguna, eta txanda aurrez hartu daiteke, martitzenetik eguenera, *gotatanta.eus* helbidean sartuta.

Ohi baino emanaldi gehiago 'Marco' ikusteko

Aitor Arregi eta Jon Garaño zuzendariak egindako 'Marco' filma emango dute asteburu honetan Oñatin, pelikula zinema-aretoetara heltzen den asteburu berean. Bederatzi emanaldi egingo dituzte guztira; azkena, martitzen gauean

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Gaur, egubakoitza, estreinatuko da zinema-aretoetan *Marco* filma, Aitor Arregiren eta Jon Garaño-ren azken lana, eta Oñatin ere asteburu honetan egongo da ikusgai. Gainera, herritarren artean ikusmina sortuko duela pentsatuta, normalean baino emanaldi gehiago izango dira, lau gehiago zehazki; bederatzi guztira. Egubakoitzean, zapatuan, domekan eta astelehenean birritan botako dute, 19:30ean eta 22:00etan; horiez gain, martitzenarako ere programatuta dago, 22:00etarako.



Eduard Fernandezek antzeztan du Marco. MORIARTI

Mezua ikusleendako

Venezian erakutsi zuten filma lehendabiziko aldiz, hango zinema jaialdian, eta Donostia-koan ondoren. Orain, baina, zinema guztietara iritsiko da. Egin dituen aurreko lanen estreinaldietan egon izan da Arregi Oñatin, zinema-aretoera joandakoekin berba egiteko eta lanaren ingurukoa eurekin partekatzeke. Gustatzen zaiola hori egitea aitortu izan du hark. Oraingoan, baina, ezinezkoa du; Kanariar uharteetan dago, Maspalomasen, beste produkzio batean grabaketak egiten, eta ezingo da hemen egon. Hala ere, adierazi du saiatuko dela

"bideo bidez edo" herriko ikusleei mezua bidaltzen.

Zergatiak erakarrita

Enric Marco Batlle kataluniarra dago pelikularen erdigunean. CNT edo Lanaren Konfederazio Nazionaleko kidea, nazien kontzentrazio-esparruetatik bizirik irtetea lortu zuela esan zuen hainbat urtean, 2005ean guztia gezurra zela jakin zen arte. Haren historia erreskatatu baino gehiago, atzean zegoen erretratu psikologikoa ulertu eta erakutsi gura zuten zuzendariak

lan horrekin: zergatik erabakitzen duen gezurra esatea, identitatea faltsutzea, zeren beharra duen hori egiteko...

Duela bi urte hil zen Marco, baina filmaren zuzendariak izan zuten aukera hura ezagutzeko eta harekin egoteko. 2006an jaso zuten haren gaineko dokumentala egiteko proposamena eta orduan hasi ziren lehen elkarriketak egiten. Duela hemezortzi urte hasi ziren, beraz, film bihurtu den ikus-entzunezkoarekin. Zinema-aretoetara helduko da orain.

Hika konpainiaren 'Zorretan' antzezlan gaur Santa Anan

Ama-alaben arteko harremana, zaintza eta bikote harremana lantzen ditu, umorez eta absurdotik

O.E.G. OÑATI

Hika antzerki konpainiaren eskutik dator gaur, egubakoitza, *Zorretan* antzezlan Oñatira. Agurtzane Intxaurreaga da egilea eta zuzendaria, eta Miren Gaztaña, Jabi Barandiaran eta Iñake Irastorza aktoreak. Duela asteburu pare bat estreinatu zuten, Donostian, astean egin dute Bilbon, eta herrietako ibilbidea hasiko dute gaur, Oñatin. "Hamaika astez ibili gara lantzen lan hori, eta badut gogoa Euskal Herrietako antzokietara heltzeko, hiriburuetako ekitaldiak

eginda", dio, pozik, Miren Gaztañaga aktoreak.

Ama-alaben arteko harremana, bikote harremana, maitasuna, zaintza... pisu handiko gaiak, baina umorearekin eta absurdotik kontatuta. "Kapa asko dituen antzezlan da. Duen bereizgarria, baina, tonua da. Tonu askotatik egiten da berba eta ikusleari dibertigarria egiten zaio hori", aurreratu du Gaztañagak.

Santa Ana antzokian egingo dute *Zorretan* antzezlan gaur, arratsaldeko zazpietan. Sarrera hamar euro da.

Pirata Garrapataren abenturak kontatzera dator zapatuan

Urgain Eskolak gonbidatuta, Pirata Garrapatak munduan zehar egindako bidaietan bizi izan dituen abenturak kontatzera etorriko da Patata Tropikala antzerki taldea bihar, zapatua, Oñatira. *Magia*, antzerkia eta txotxongiloak tartekatzen dituen ikuskizuna da, eta kutsadurak naturan duen eraginaz hitz egin nahi duena.

Zapatuan, hilak 9, Oñati Institutuko aretoan izango da antzezlan, 17:00etan. Sarrerak Txokolateixan daude salgai, bost eurotan. 2 urte edo gutxiago duten haurrek ez dute sarrerarik ordaindu beharko, baina ikustera joateko txartela aurretik hartu behar da.

Abeslari ohien kontzertua egingo du Kantu Eskolak

Ganbara Kantu Eskolak XX. urteurrena betetzen du aurten, eta abeslari ohi guztiekin kontzertua egingo du abenduaren 14an; hala, 2004az geroztik partaide izan diren guztiei gonbidapena egin gura diete kontzertu horretan parte har dezaten. Abeslari ohi horiendako helbide bat ahalbidetu dute, hara idatzita izena emateko. Azaroaren 15a aurretik helbide honetara idatzi beharko dute interesatuek euren parte-hartzea baieztatzeke: [idazkaritza.ganbaratxiki@gmail.com](mailto: idazkaritza.ganbaratxiki@gmail.com). Taldeak ohikoak izan dituen kanta ezagunak eta sinpleak abestea da asmoa, eta bi entsegu egingo dituzte: abenduaren 4an eta 11n.



Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com



Antxon Iturriza, *Mendian gora* erakusketaren bisita gidatua egiten kultura etxean. GOIENA

'Mendian gora'-k ireki du Mendi Hamabostaldia

Erakusketa azaroaren 22ra arte egongo da ikusgai Oñatiko kultura etxean, astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara. Bestalde, hurrengo hitzordua azaroaren 14an izango da eta Mendi Film Festivaleko sei film labur eskainiko dituzte

Julen Murua Mesonero OÑATI

Abian da Aloña Mendiren Mendi sailak urtero antolatzen duen Mendi Hamabostaldia, eta oraingo honetan, *Mendian gora* izeneko erakusketak eman dio hasiera ekimenari. Euskal Mendizaletasunaren Museoa Fundazioa (EMMOA) da erakusketaren sortzailea, eta kultura etxean dagoen erakusketaren inaugu-

razioan bisita gidatua egin zien bertara joan zirenei Antxon Iturrizak, fundazioaren idazkari, idazle eta kazetariak. Hain justu ere, mende bat baino gehiagoko ibilbidea jasotzen duten 22 panelek osatzen dute erakusketak, eta Iturrizak dio euskal mendizaletasunaren ikuspegi zabalak eskaintzen duela: "Historia nola sortu zen eta gaur egun

non gauden islatzen du erakusketak. Munduari eta historiari buelta bat ematen diogu, baina gainez gain". Duela bi urte Antzuolan ikusi zuten erakusketa Aloña Mendiko mendi sailekoek, eta bertako kide Mikel Oterok dio erakusketak euren "interesa" piztu eta "Oñatira ekartzea" erabaki zutela: "Erakusketa polita da. Euskal Herrian mendia-

rekiko zaletasun handia dago, eta Oñatira ekartzea interesgarria iruditu zitzaigun". Oterok gaineratu zuen urtarrilean "emakumeek 100 urtean mendian izan duten ibilbidea azaltzen duen erakusketa" ekartzeko asmoa duela mendi sailak.

Txartela, digitalean

Aurten ere azaroan berrituko dituzte mendiko federatuen txartelak Aloña Mendiko mendi saileko zuzendaritzako kideek, eta bi bide egongo dira horretarako: saileko kide batekin aurrez aurre eginda edo helbide elektronikora mezua bidalita. Saileko kide batekin egoteko Aloña Mendiko bulegora joan beharko da azaroaren 11n edo 13an, 18:30etik 20:00etara bitartean. Tramitazioa helbide elektronikora idatzita egin nahi izanez gero, alonomendi.mendi@gmail.com helbidera bidali beharko da mezua azaroaren 24a baino lehen. Bestalde, aurtengo denboraldi txartela fisikoa izatetik digitala izatera igaroko da.

Azaroko irteera

Azaroaren 17an egingo dute hilabete honetako mendi irteera Aloña Mendiko mendi sailak antolatuta. 08:00etan elkartuko dira, Postetxe parean; bertatik Araotzera igo eta Elorregiraino egingo dute irteera. Plazak mugatuak dira -40 lagunentzat lekua egongo da- eta izena hilaren 14a aurretik eman behar da, alonomendi.mendi@gmail.com helbidera idatzita. Antolatzaileek emandako datuen arabera, hamasei kilometroko ibilbidea izango da, 6-7 ordu bitartean egiteko modukoa eta batera zailtasunik gabea -800 metroko desnibela-.

Osatutako egitaraua eta hitzorduak

Hau da Mendi Hamabostaldirako antolatutako egitaraua:

Erakusketa

- **'Mendian gora'** euskal mendizaletasunaren historiaren erakusketa kultur etxean egongo da ikusgai azaroaren 22ra arte; astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara. Sarrera doakoa izango da.

Film emanaldia

- **'Mendi Film Festival'** egingo da azaroaren 14an, 19:30ean, 5 euroren truke.

Ikus-entzunezkoak

- **'Baltoro. Oinez eta hegan'** lana erakutsiko dute zinema-aretoan. Azaroaren 19an 19:30ean izango da emanaldia; sarrera doakoa izango da.
- **'Colorado'** lanaren proiektzioa egingo da azaroaren 22an, 19:30ean, zinema-aretoan. Sarrera doakoa izango da.

DIGITALIZATU EGIN DITUZTE AURTENGO DENBORALDIKO FEDERATUEN TXARTELAK

Bertan behera gelditu da GZR eta Olloki taldeen kontzertua

Burrunda Faktoriak gaurko antolatuta zuen kontzertua bertan behera gelditu dela iragarri du, "azken orduko arazoengatik". GZR eta Olloki "taldeetatik bat bera ere etorri ezin denez", kontzertua ez egitea erabaki du elkarteak. Hurrengo kontzertuak azaroaren 22an izango dira: eta Vibora eta Armari taldeak igoko dira Antixeneko oholtzara.

Musikegunak ekimeneko bigarren kontzertua, domekan

Astigarrako Eragiyok abesbatzaren emanaldiaren ostean, Soinuak Haizean elkarteak izango da Musikegunak zikloko bigarren kontzertua eskainiko duena (Santa Anan, 19:00etan). Bilbotik datorren taldeak zazpi emozio lantzen ditu emanaldian, musikaren bidez eta atrezzo koloretsu batekin. Sarrera arruntak salgai daude, 7 eurotan.

Kore-stretcha eta yoga lantzeko ate irekiak Zubikoan

Kore-stretch eta yoga saioetarako ate irekiak izango dira Zubikoa kiroldegian. Azaroaren 13an eta 20an egingo dituzte ate irekietako saioak eta diziplina bakoitzak bere ordutegia izango du: kore-stretch saioa 18:15ean izango da eta yoga saioa, 19:15ean. Plaza mugatuak egongo dira eta Zubikoako harreraren egongo da izena emateko aukera.

ETEN LOW COST DELUXE REBEL NOISE K-PO

Bergarako
Seminarixoa
Azaroak 15
21:30

Chill out gunea
20:00etatik aurrera
San Martin plazan
DJ CHICABEAT

Sarrera arrunta **5 €**
Goiena aplikazioan alta emanda **2 €**
Goiena txartela erakutsita **0 €**

3. kontzertua
AZAROAK 29

DEL VAL
HENKO
TXERRIKUMEAK
KARENA

4. kontzertua
ABENDUAK 13

BANANA SHAKE
ONDARE
721-GOGOR GABILTZA
MAIDER MIMI

Finala
URTARRILAK 17



Begarako Udala



GIPUZKOA
Kultura



SEIN
Luzeneko, Erakundearen
Kultura, Berrikuntza, Inklusioa

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



Ibarreko 288 atleta etzi Behobia-Donostian

ATLETISMOA Bergara da korrikalari gehien eramango dituen herria (89). Aramaioarren parte-hartze datua falta da; iaz bi lagun izan ziren. Azken urteotan azkarrenak izan diren Ainhoa Aranburu eta Mikel Velasco erreleboa emateko gertu daude

Xabier Urtzelai Atxa ARRASATE

Domekan egingo duten 59. Behobia-Donostia lasterketan bailarako 288 korrikalari izango dira, baina kopuru horri aramaioarrak batu behar zaizkio, antolatzaileek arabarren artean ez dute-eta herrikako bereizketarik egiten –iaz, Aramaioako bi lagun izan ziren–. Hala, iazko datuekin alderatuta beherakada nabarmena izan da debagoiendarren artean, 70 lagun gutxiago izango dira-eta irteera puntuan –Arrasaten eta Oñatin izan da jaitsiera handiena–.

Eta, hala ere, Behobia-Donostia askoren ahotan egongo da egunotan, herri mailako lasterketen artean erreferentziazko proba izaten jarraitzen du-eta –astelenean *Harmailatik* saioan jarraipen berezia egingo zaio lasterketak emandakoari–.

Erreleboa azkarrenen artean?

Azken bi urteotan arrasatearrak izan dira bailarako korrikalarien artean azkarrenak. Gizonezkoetan Mikel Velasco (1.09.26) eta emakumezkoetan Ainhoa Aranburu (1.22.15) nabarmendu ziren iaz, eta 2022an ere eurak izan ziren lehenak helmugaratzen. Domekan, baina, aldaketak egongo dira. Hasteko, Ainhoa Aranburu ez delako irteera puntuan



Korrikalari debagoiendar batzuk, iaz, aulki gupildun bati bultza egiten. GOIENA

Atletak herrika

Herria	Kopurua
ANTZUOLA	15
BERGARA	89
ELGETA	1
ARETXABALETA	40
ARRASATE	84
ESKORIATZA	11
LEINTZ GATZAGA	1
OÑATI	47
GUZTIRA	288

OHARRA: DATUAK GIPUZKOAKO HERRIETAKOAK DIRA, HORREGATIK EZ DAUDE ARAMAIOKO DATUAK.

egongo. "Eta dagoeneko damutzen hasita nago; inbidiaz pasako dut domekako eguna, baina lagunak animatzera joango naiz eta beste modu batean gozatuko dut lasterketaz. Datorren urterako motibatzeke balioko dit", adierazi dio arrasatearrak aste barruan GOIENARI. Izan ere, aurtent bestelako helburuekin ibili da Aranburu: "Urriari Lisboako maratonia egin nuen bikotekidearekin batera, eta horixe izan da gure aurtengo erronka nagusia. Distantzia luzera salto egiteko erabakia hartu genuen eta Lis-

boako maratonia aukeratu genuen, besteak beste, gero turismoa egiteko aprobeztatu genuelako. Eta izugarri gozatu genuen. Helburua lasterketa amaitzea izan zen, distantzia berria zen-eta niretako, baina ez zitzaidan luzea egin eta pozik geratu nintzen egindako lanarekin (3.24). Cascanten hasten da maratonia, eta ibilbide oso polita du, Lisboaraino oso leku gogoangarrietatik pasatzen zara eta. Egia da hurrengo egunetan giharretako minarekin turismoa egitea ez dela erosoa [Barre], baina tira, asko gozatu dugu". Hala, arrasatearrak ez du baztertzeko aurreago maratoni gehiago egitea: "Bakarria egiteko asmoa neukan, zer zen ikusteko, baina ikusita zelan gozatu genuen... ez, ez dut esango azkena izan denik. Entrenamenduak erritmo lasaigoan egin behar dira, baina denbora luzeagoan egin behar da korrika, eta erritmo horretara ondo egokitzen naiz ni; gustatzen zait korrika lasai egitea".

Domekara begira, baina, penaz dago, hain zuzen, ondo erreperatu delako. "Uste genuen maratoniarekin nahikoa izango genuela, baina orain Behobia-Donostia egiteko harra daukat barruan, eta damututa nago dortsala erosi ez izanagatik. Seguruena, polikiago egingo nukeen, beste erritmo batzuetan entrenatu naizelako, baina probarekin gozatzea da kontua. Tira, datorren urtean gogoz bueltatuko gara".

Velasco, orkatila zaintzera

Mikel Velascok ez dauka garbi azken bi urteotan egindako denboren bueltan ibiltzeko aukera izango duenik, tendoi tibiala –orkatila– burukominak ematen ari zaizkio eta. Aurreko edizioe-

tan baino gutxiago entrenatu da, eta, lasterketa txukuna egiteko asmoz irtengo bada ere, ez du itsutu gura: "Ondo egitera irtengo naiz, baina beste urte batzuetan baino lasaigo ibiltzea tokatuko da. Berez abenduan Gasteizko maratoni erdia egin nahiko nuke, eta domekan Behobia-Donostia entrenamendu saio moduan erabiliko dut, test moduan. Gainera, kuadrillako hiruzpalau lagun joango gara korrika egitera, eta beste sei lagun inguru animatzera datoz; hortaz, egun-pasa polita egingo dugu". Arrasatearrak otsail inguruan egiten dituzten hamar kilometroko hainbat lasterketa ditu begiz jota, eta minez bada bil nahiago du aste hauek lasai hartu, ondo erreperatzeko. "Gimnastica de Uliá lasterketak gustatzen zaizkit; ea ordurako hobeto nagoen".

"KORRIKALARIAK ANIMATUKO DITUT AURTEN, ETA INBIDIA PASAKO DUT, SEGURU"



AINHOA ARANBURU
ATELETA

"ORKATILA MINBERA DAUKAT ETA EZIN IZAN NAIZ IAZ MODUAN ENTRENATU; TESTA IZANGO DA"



MIKEL VELASCO
ATELETA



Realaren eta Betisen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Betis norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeraturako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik. Partidua abenduaren 25. asteburuan izango da. Parte hartzeko azken eguna: azaroaren 25a.

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzue!

goiena"
kide

Okm: batzen gaituen distantzia



Eneko Azurmendi, Uxue Otxoa, Iñaki Igartua eta Malen Osa, *Bihotza ala burua?* solasaldian. ASIER EGAÑA

Osasun mentalak ere izan behar duelako berbagai

Gai tabua izatea alde batera utzita, luze mintzatu ziren osasun mentalaz 'Bihotza ala burua?' solasaldian. Malen Osa, Iñaki Igartua eta Uxue Otxoa izan ziren protagonistak, eta gaiaren garrantziaz aritu ziren zinema-aretoa bete zutenen aurrean

Julen Murua Mesonero OÑATI

Osasun mentala izan da hizpide, asteon, Oñatiko kultura etxeko zinema-aretoa; izan ere, Aloña Mendi kirol elkartearen 75. urteurrena ospatzeko antolatuta dituzten ekintzetako bat izan da eguaztenean egin zuten solasaldia: *Bihotza ala burua?* Hain justu, galdera horren bueltan ibili ziren solasean Malen Osa,

mendi korrikalaria eta Aloña Mendiko kirolari ohia; Iñaki Igartua, kirol egokituko kirolaria eta Aloña Mendiko kirolari ohia; eta Uxue Otxoa, errendimenduen eremuan espezialista den kirol psikologoa; Eneko Azurmendi kazetariak egin zituen moderatzaile lanak, eta solasaldira bertaratu ziren ikus-entzuleek ere izan zuten galderak eta

ekarpenak egiteko tartea. Osasun mentalaren gaia bada azken urteetan pil-pilean dagoenetako bat, eta, besteak beste, kirola izan da gai horren lanketa egin behar izan duen esparruetako bat. Kirolaz jardun zuten solaskideek, baita buruaz ere, eta azaldu zuten nork bere esparruan osasun mentalaren gaia nola lantzen duen eta egoerak azken

urteetan izan duen bilakaera nolakoa izan den.

Tabua izan ez dadin

Solasaldian hitz egiten ibili zirenek behin baino gehiagotan aipatu zuten osasun mentalaren gaia "gai tabu bat" izan dela orain arte, eta gaur egun ere, askotan, izaten jarraitzen duela. Otxoaren arabera, "pandemiaren ostean, eta kirolari dagokionez, Rio de Janeiroko Olinpiar Jokoetan" areagotu zen gaiaren bueltan hitz egiten dutenen kopurua, eta gaur egun osasun mentalari tokia ematea "oso garrantzitsua" dela aitortu zuten Osak, Igartuak eta Otxoak, "gaiak tabu izateari utz diezaion".

Aretoa, ia beteta

Gaiak askorako ematen duela erakutsi zuten kultura etxeko zinema-aretoa bertaratu zirenek; izan ere, aretoa ia guztiz bete zen, eta solaskideek ere eskertu gura izan zuten aulkietan eserita zeudenen parte hartzea. "Pozgarria da aretoa beteta ikustea eta herrian osasun mentalaren gaiaren bueltako mugimendua egotea", adierazi zuten protagonistek.

Azken hitzordua

Bihotza ala burua? solasaldia eginda, hitzordu bakarra gelditzen da 75. urteurrenako egitarauari amaiera emateko. Hain justu, azaroaren 30ean izango da, eta material bilketa solidarioa egingo da Larrañako egoitzan dauden errefuxiatuei laguntza eskaintzeko -11:00etatik 14:00etara bitartean egingo da bilketa, herriko plazan-. Amaieran, *merchandising* kanpainatik jasotako ekarpenaren txekoa entregatuko diete antolatzaileek Hotz Oñatiko ordezkari.



MALEN OSA
MENDI KORRIKALARIA

"Pozgarria da herrian horrelako ekimen bat bultzatzea; are gehiago, aretoa bete egin dela ikustea. Tabu izateari utzi eta zabaldu egin behar da osasun mentalaren gaia".



IÑAKI IGARTUA KIROL EGOKITUKO KIROLARIA

"Gizartean dagoen gai bat da, horren inguruan hitz egitea gustuko ez badugu ere. Ezinbestekoa iruditzen zait duen garrantzia ematea; zaindu beharreko zerbait da eta espero dut jendeak horrela egitea".



UXUE OTXOA
KIROL PSIKOLOGOA

"Nire esker ona adierazi nahi dut. Ez da ohikoa gai honen inguruan hitz egitea, kostatzen da. Osasun mentala lantzeari aukera bat ematea ederra da, eta jendeak izan duen parte hartzearekin, are gehiago".

FUTBOLA Denboraldiko aurrenako derbia jokatu da Bergaran

Gizonezkoen Ohorezko Erregional Mailako oilarretako bat izaten jarraitzen du Bergarak; gaur-gaurkoz, hirugarrena da sailkapenean, eta, aurretik talde gogorrak baditu ere, badirudi iazko helburu berbera dutela mahoneroek: sailkapeneko goiko postuetan egoteko lehian ibiltzea. Mailaz igo berri den Mondra izango dute aurrean

Ruiz de Larramendirenek. Denboraldi hasiera ona egiten ari da talde zuri-morea; izan ere, iaztik hona entrenatzailea aldatu eta hiru jokalarri berri batu bazaizkie ere, sailkapenaren erdialdean dago Xuban Epelderen taldea, eta zapatuko derbian hiru puntuak lortuz gero goiko postuetara gerturatzeko aukera izango lukete arrasatearrek. Derbiak beti izaten dira bereziak; eta, denboraldi hasiera izan arren, hiru puntu baino gehiago egongo dira jokoan Agorrosinen.

PILOTA Murua Agirrerren ordezkialderdietakoan

Ander Muruak jokatu du, Agirrerren ordezkialderdietako aurkako Lau eta Erdiko Txapelketako B serieko finalerdietako partidua -gaur, 21:00etan, Legutian-. Hain justu, joan den asteburuan Muruaren aurka jokatu duen partiduan hartu zuen min Agirrek, eta arrasatearrek hartuko du haren lekua, Baikok ohar bidez jakinarazi duenez.

SASKIBALOA Hirugarren partidua jarraian irabazi nahi du MUK

Azkenengo bi jardunaldietan Becedo Santanderrri eta Baskoniari irabazi eta gero, hirugarrena jarraian irabazi nahi du Mondragon Unibertsitateak, Iturripen. Sailkapeneko azkenengo postuan dagoen Tabirako taldearen aurka jokatu dute arrasatearrek, domekan, 18:30ean, goiko postuei eusten jarraitzeko helburuarekin.

ESKUBALOA Etxean batu nahi dituzte aurtengo lehenengo bi puntuak

Construcciones Ugarte Aloña Mendiren aurkako partiduko "sentsazio txarrak" amaitzeko, denboraldiko lehenengo garaiaren bila aterako dira Mondragon Lingua Bergarako jokalarriak Labegarrietako kiroldegira. Zapatuan jokatu dute partidua, 15:30ean, eta Errenterriako Ereintza Beissier taldea izango dute aurkari.

'Hamelingo txirularia', Bergarako soinuarekin

Bergarako Antzerki Musikala elkarteak Grimm anaiek jasotako kondairan oinarritutako 'Hamelingo txirularia' ikuskizuna estreinatuko du bihar, Seminarixoa aretoan; bi egunetan banatuta, lau emanaldi egingo dituzte, eta sarrera gutxi geratzen dira

Aitziber Aranburuzabala Juldain
BERGARA

Bergarako Antzerki Musikala elkarteak (BAM!) dena prest du bihar, zapatua, *Hamelingo txirularia* musikala estreinatzeko. Grimm anaien istorio ezagunean murgilduko dituzte ikusleak, baina euren modura edo markarekin egingo dutela azaldu du ikuskizuneko zuzendari Valen Moñuxek: "Orain dela urte asko ezagutzen dugun Iñigo Casali konpositorearen lehen opera dugu oinarri, baina gure musikal formatura egokituta eta euskaraz. Orain arte egin ditugun ikuskizun gehienetako obren egileak kanpokoak edo guretako ezezagunak ziren, baina oraingoan, orain dela urte batzuk ezagutzen dugun Iñigo Casali musikariak sortutako obra dugu oinarri; bada, esperientzia interesgarria ari da izaten egilea bera gu zuzentzen izatea. Eta Casalik berak dio berarentzako ere bizipen aberasgarria ari dela izaten, hark

"ESPERIENTZIA OSO POLITA DA OBRAREN EGILEAK BERAK GU ZUZENTZEA"

VALEN MOÑUX ZUZENDARIA

sortutako opera beste formatu eta hizkuntza batean erakusteko aukera eman diogulako".

BAM!-ek egin duen hamahirugarren ikuskizuna da, eta argi dago jarraitzaile asko dituztela; horren erakusle da asteburuan egingo dituzten lau emanaldietarako sarrera ia guztiak agortu egin direla –bihar, zapatua, 17:00etan eta 19:00etan; eta domekan, ordu berean, bi emanaldi gehiago–; hala ere, *Seminari-xoa.eus* atarian badaude oraindik gutxi batzuk eskuragarri. Aretoko eserlekuaren kokapenaren arabera bi prezio dituzte: hamabost edo hoge euro.

Etxekoek egindakoa dena

Aurreko ikuskizunetan moduan, Valen Moñuxek du ikuskizuna zuzentzeko ardura, baina oraingoan, Ander Arrutirekin partekatatu du rol hori. "Esperientzia zoragarria ari da izaten gazte bat, nire semearen eta alabaren belaunaldikoa, alboan izatea. Musika kontuetan gurekin ha-

"NARRATZAILEAREN SARRERA IZAN EZIK, ELKARRIZKETARIK EZ DAGO IKUSKIZUNEAN"

ANDER ARRUTI ZUZENDARIA

zitakoa da, gainera; hastapenetako ikuskizunetan kantuan ibilitakoa eta ordutik hona ardura gehiago hartzen joan dena, erregidore edo zuzendari laguntzaile lanetan ibili izan da, eta honako hau bion artean zuzendu dugu. Hura arduratu da, bereziki, dekoratu guztiak eraikitzen eta jantziak prestatzen, alboan izan dituen laguntzaileekin".

Izen horiez gainera, Marije Ugaldereen ardura izan da abeslariak eta abesbatzak zuzentzea eta Oihan Vegak jardun du zuzendari laguntzaile lanetan. Oinarritzko libretoa, berriz, Iñaki Elizalde ondu du, eta Miren Amasorrainek, Jone Larrañagak



Hamelingo txirularia musikalaren entsegu batean, serio lanean. I.S.

eta Vegak berak egin dituzte euskarazko zuzenketak.

Kantuekin kontaktuta

Grimm anaien ipuinaren espiritua oso ondo zaindu dute, nahiz eta berrikuntzak ere sartu dituztela gaineratu duen Moñuxek: "Pertsonaia gehiago daude, esaterako, alkatea eta zinegotzia, baina pertsonaia berezianak arratoiak dira. Pisu handia dute

kontakizunean; abesbatza bat dute euren lider eta guzti".

Ander Arrutik nabarmendu du elkarrizketarik ez dagoela; aurreko ikuskizunekin alderatuz, ezberdintasun handiena: "Ipuinaren barruan sartuko gaituen narratzaile bat izango dugu, baina, behin istorioa kokatuta, gero guztia segidan doa, hitzei musikak eta kantuek lekukoa hartuta".

Ehun lagun inguru taularen gainean

Musika tradizio luzea du Bergarak eta gaur egun ere herri oso musikala denaren erakusle da, oholtzaren bueltan izango diren abeslariak eta musikariak bertakoak direla.

"Eskarmentudun hamar musikaririk osatutako orkestra dugu eta abestu eta antzeztu egingo duten 30 abeslari heldu eta harrobi ederra ere bai, 40 haurrek osatutako abesbatza".



Iñigo Casali, entsegu batean musikariak eta abeslariak zuzentzen. I.S.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

'BIXI IBILI!'
OÑATIN


AZAROAREN 12AN, MARTITZENA,
20:00ETAN ETA 22:00ETAN



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.





Oñatiko Txinparta Bertso Eskolako Maider Arregi eta Aitor Tatiegi, domekan, Tolosan jokaturako kanporaketan. HASIER LARREA

Maider Arregi oñatiarra, eskualdeko ordezkaria

Datorren astean ekingo diete Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalerdietako saioei eta abenduaren 14an jokatuko dute finala, Donostian. Hiru kanporaketa izango dira; horietako bat abenduaren 1ean Arrasaten, eta han lehiatuko da Maider Arregi

A. Aranburuzabala OÑATI

Udaberrian jokaturako Gipuzkoako Bertsotan sailkapen fasearen ostean, irailaren 14an abiatu zuten 34 bertsolarik Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. Horien artean ziren Debagoieneko bost bertsolari: Ane Zuazubiskar arrasatearra, Eskoriatzako Haizea eta Oihana Arana eta Oñatiko Maider Arregi eta Aitor Tatiegi. Arrasatekoak izan ezik, beste laurek egin zuten txapelketan aurrera, final laurdentarako txartela lortuta.

Domekan jokatu zuten azken finalurreko kanporaketa, Tolosako Leidor antzokian, eta han izan ziren Oñatiko bi bertsolariak. Orokorrean guztiek "saio

txukuna" egin ondoren, bigarren postua lortu zuen, Nerea Elostondoren atzetik, Maider Arregik. "Ez zitzaizkidan bertsoak oso samur etortzen, baina neure buruari esaten nion 'lan egin, lan egin', eta uste dut asmatu dudala eusten; hortaz, gustura geratu naiz", kontatu zuen Arregik, Tolosako saioa bukatuta. Txapelketako saio guztietan izan du ondoan eskolako kide Tatiegi, nahiz eta domekakoan bakarrik izan zuten elkarrekin kantatzeko aukera. "Maiderek eta biok ofizio ederra egin dugula esango nuke, baina penatxoaz nago, plaza ederra izanda ez dudalako gura beste gozatu; ahal duguna egin dugu, eta ez dago

atxera bueltarik orain", gaineratu zuen Tatiegik.

Arregik, abenduaren 1ean

Azken txanpara helduta, Maider Arregi da eskualdeko ordezkari bakarra, Eskoriatzako Haizea Arana finalerdietako txartela lortzeko atarian geratu zela aipatuta. Oñatikoak zioen "bere onena" ematen saiatuko dela, sailkapen orokorraren berri jasota, "Arrasaten kantatzeak ilusio handia" egiten diola gaineratuta. Gertu izango ditu herriko eta eskualdeko bertso-kideak eta bertsozaleak, Tatiegik berretsi moduan: "Badugu zein animatu, eta horretan arituko gara ahalik eta ondoen".

Thrash doinuak protagonista bihar Oñatiko gaztelekuan

Zarauzko Anestesia eta Legazpiko Anker taldeen kontzertuak izango dira bihar, 22:00etan hasita

A.A.J. OÑATI

Azken heriotza abestia argitaratu du aurten Anestesia taldeak, egiten ari diren birari ere izena ematen diona. Mikel Kazalis gitarra-jolea da hastapenetatik jarraitzen duen kide bakarra,

eta alboan ditu Ibon Esteibar abeslaria, Dani Aizpurua baxu-jolea eta Jon Albizu bateria-jolea. Oso bizirik eta indartsu ari da laukotea, egindako zuzenekoetan erakutsi izan duten moduan, eta hala egingo

dute bihar ere Oñatiko gaztelekuko agertokiaren gainean.

Brinkola auzoko Anker aurretik

2019an sortutako metal laukoteak zabalduko du kontzertua, thrasha, metal klasikoa, metalcorea, death melodikoa eta power metal doinuak eskainita.

Leihatilan, hamabost eurotan

Oñati.eus atarian sarrerak aurrez erosteko aukera dago, hamabi eurotan; bihar, leihatilan, hamabost eurotan izango dira.

Goienakideen txokoa

AZAROKO SARIAK

Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: errigora



ERRIGORA

Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
OSTATZOKO BAK

www.harremandenda.org

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOENAKIDE "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileon artean egingo da zozketa. Indarrez dagoen (LDFD 13/1995) legaren arabera, aukeratu den zozketaren pertsonak Goiena komunikazio zerbitzuaren bitartez automatikoki loten sartuko dira. Datu-bildetza horien helburua bakarra da indarrez dagoen zozketaren gozotasuna. Erabakia goiena app-aren bidezko zozketaren bidez. Hala zozketaren edozein txartela lehiatu behar da datu: goienakide@goiena.eus

MAULANDA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: azaroak 12

☎ 943 25 05 05 ✉ goienakide@goiena.eus 📱 "Goiena app"-a / zozketa atalean.

📱 GOIENAKIDE Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...

Ordaindu 2025eko kuota, 65€, eta abantailak DOAN aurtengo abendura arte
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU

Debagoiena. Hiru logeladun etxebizitza errentan hartuko genuke. Legezko agiriak ditugu eta lan-kontratu mugagabea. 611 34 50 25 edo 631 19 75 84.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Odontologo orokorra Aretxabaletan. Odontologo orokorra behar dugu Aretxabaleta Hertz klinikan 2 egunez lan egiteko.

ko. Interesatuak bidali kurrikuluma email honetara: garai.hortzklina@gmail.com edo deitu 646 11 43 24 telefono zenbakira.

402. ESKAERA

Arrasate. Zaintza lanak egingo nituzke lanaldi erdian. Soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Esperientzia. Deitu 685 46 91 11 telefono zenbakira.

Arrasate. Larunbatetan, orduka, garbiketa lanak egingo nituzke. Deitu 612 51 42 99 zenbakira.

GARAI HORTZ KLINA (ARETXABALETA)

Odontologo orokorra behar dugu Aretxabaleta Hertz klinikan 2 egunez lan egiteko. Interesatuak bidali kurrikuluma email honetara: garai.hortzklina@gmail.com

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak ditut. 632 34 22 25.

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak ditut. Garbiketa lanak egin edota pertsona nagusiak zaintzeko eta supermerkatuetan lan egiteko gertu dagoen emakumea. Deitu telefono zenbaki honetara: 611 19 50 43.

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke pertsona nagusien zaintzan. Esperientzia eta soziosanitario titulua ditut, baita legezko agiriak ere. Deitu telefono zenbaki honetara: 611 75 39 92.

Debagoiena. Etxe etxeko zainzaile profesionala, esperientzia duena, karismatikoa eta arduratsua. Berehalako prestasuna asteburuetan, astegunetan edo orduka lan egiteko. Deitu telefono zenbaki honetara: 677 14 64 27.

Debagoiena. Garbiketa lanak egin edota pertsona nagusiak zaintzeko eta beste lan motak egiteko gertu dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Garbiketa ikastaroa eginga dut. Deitu telefono zenbaki honetara: 611 24 18 98.

Debagoiena. Gizonezkoa garbiketa lanak egin edota pertsona nagusiak zaintzeko eta supermerkatuetan lan egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak ditut. Deitu 617 16 68 44 telefono zenbakira.

Debagoiena. Lan bila nabil ostalaritzan, kafetegietan, fabriketan edo adinekoen zaintzan. Hainbat ikastaro ditut ostalaritzan eta sukaldetan arituzko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egiteko gertu. Deitu telefono zenbaki honetara: 611 31 93 76 (Raul).

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan lan egingo nuke. Esperientzia dut eta soziosanitario ikasketak ditut. Erizaintzako ikasketak eginak ditut nire herrialdean. Deitu 643 50 56 62 telefono zenbakira.

Debagoiena. Taberna, etxe edo lantegietan garbiketa lanak egin, pertsona nagusiak zaindu edo beste lanetarako gertu dagoen emakumea. Etxean bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Soziosanitario titulua dut. 624 83 95 19.

Debagoiena. Etxeak, lantegiak, elkarteak eta bestelakoak garbitzeko prest dagoen gizonezkoa. Esperientzia dut ospitalen eta enpresa industrialen garbiketan. Ordutegi aldetik malgutasuna daukat. Gidabaimena eta kotxea ditut. Deitu 645 72 92 87 zenbakira.

Debagoiena. Zainketa lanetan, garbiketan edota margolari lanetan aritzeko prest nago. 604 28 78 39.

Debagoiena. Zainketa lanetan, garbiketan, erai-kuntzetan edota margolari lanetan aritzeko prest nago. 632 18 53 17.

8. DENETARIK

808 - BESTELAKOAK

Oñatitiek Bergarara kotxea partekatzea. Oñatitiek Bergarara 14.35etan kotxean joaten den norbaiten bila nabil. Gastuak elkarbanatuko nituzke. 652 73 12 34.

ZORION AGURRAK



BERGARA Garazi Araxaga Arabolaza 14an, 10 urte. Zorionak! Ondo pasau eguna! Patxo haundi bat etxeko danon partetik.



ARETXABALETA Eñaut Pagaldai Atxa 11n, 9 urte. Zorionak! Ederto pasau eguna eta muxutxo pilo bat etxeko danon partetik.



ARRASATE Aratz Perrino Garcia 11n, 6 urte. Zorionak! Oso ondo pasau zure eguna txapelund. Pila bat maite zaitzugu!



BERGARA Andde Lazkano Bilbao Azaroaren 10an, 7 urte. Zorionak! Asko disfrutau! Asko maite zaitzugu!



ARRASATE Oihan Viguri Hernandez 10an, 6 urte. Zorionak! Kandeletik putz egiteko prest? Asko maite zaitugu.



OÑATI Ganix Erostarbe Aramburu 9an, 5 urte. Zorionak! Ederto ospatuko dugu familian eguna. Muxu potolo bat!



OÑATI Irati Azkona Dorado 9an, 4 urte. Zorionak! Muxu erraldoia familia osoaren partetik, izugarri maite zaitugu!



OÑATI Izadi Garcia Aranburu 9an, 12 urte. Zorionak! Disfrutau zure egunaz urte askuan. Patxo haundi bat danon partetik!



OÑATI Chloe Ochotorena Mendiola 8an, 9 urte. Zorionak! Muxu bereziki Lucca, Skye eta Tiagotxon partetik.



ARRASATE Ion Oianguren Berrocal 8an, 7 urte. Zorionak! Besarkada bat familian partetik batez ere Izar eta Unaxen partetik!



OÑATI Hodei eta Izar Iriondo Ugarte Azaroaren 8an, 11 urte eta Izarrek azaroaren 10ean 9 urte. Ondo-ondo pasau zuen egunak! Asko maite zaituztegu! Zorionak!



ARAMAIO Izaro Pereira Flores 7an, 6 urte. Zorionak, sorgintxiki, familian partetik! Besarka eta muxu erraldoia!



ARRASATE Ane Solis Hernandez 7an, 6 urte. Zorionak! Heldu da ospatzeko eguna. Sei patxo potolo familia guztian partetik.



BERGARA Eñaut Lete Cobo 6an, 4 urte. Zorionak! Disfrutau eguna. Muxu potolo bat danon partetik.



ARRASATE Manex Barbero Hernández 5an, 3 urte. Zorionak! Besarkada handi bat etxekoan partetik. Asko maite zaitugu.



OÑATI Ane Arregi Orueta 2an, 11 urte. Zorionak! Etxekoan partetik batez be ahizpa irai eta Aiantzen partetik!



ARRASATE Nahia Domingos Garay 2an, 12 urte. Zorionak! Muxu handi bat etxekoan partetik. Maite zaitugu.



OÑATI Elene Zumalde Olariaga Urriaren 30an, 4 urte. Zorionak! la 4 urteko. Patxo haundi haundi bat prexioxa.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEAK BEHAR DU

MARKETIN ETA KOMUNIKAZIOAN ADITUA

BETE BEHARREKOAK:

- Komunikazioan eta marketin digitalean ezagutza.
- Komunikaziorako gaitasuna: komunikazio tresnen ezagutza eta euskari ezberdinak menderatzea: lengoaia, erremintak...
- Euskara: ahozko zein idatzizko maila ona
- Unibertsitate titulua: Komunikazioa, Kazetaritza, Publizitatea, Harreman Publikoak edo Marketin ikasketak.

Kontuan hartuko da

- Pertsona dinamikoa, sortzaile eta harremanetarako gaitasuna izatea.
- Gidabaimena.
- Ingelesez moldatzea.

Curriculumak aurkezteko epea: 2024ko azaroaren 10ean
Nora bidali: pertsona1a@goiena.eus

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

ABAO KOMUNIKAZIO AGENTZIAK BEHAR DU

IKUS-ENTZUNEZKO ERREALIZATZAILEA

BETE BEHARREKOAK:

- Ikus-entzunezko ikasketak.
- Euskara maila ona.
- Postproduktzioarako programen ezagutza (Final Cut, After Effects, Adobe Premiere, Photoshop...).
- Gidabaimena.

Kontuan hartuko da

- Antzeko lanetan esperientzia.
- Ikus-entzunezkoetan lizentziatua izatea.

Curriculumak aurkezteko epea: 2024ko azaroaren 10ean
Nora bidali: admi@abao.eus

abao
KOMUNIKAZIO AGENTZIA

Korosti
Inmobiliaria

Bergara: Ibaiondo pasealekua, 96m², 3 logela, bi trasteleku, igogailua, garajea aukeran. **340.000€**

Bergara: Goenkale, 100m², unifamiliarra, 3 solairukoa, 3 logela, egongela tximinia. **295.000€**

Bergara: Zubiaurre, 80m², 2 logela, miradorea, igogailua, trasteleku. **150.000€, negoziagarria**

Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

Informazio gehiago:

BABELEA

Oroilore

Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi,
maitasunez agustu

Gure artean agurtutako gaitiei esker bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta gaitiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak gurasu izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Mario, Iban eta Maribi


617 44 21 55

BERGARA • ANTZUOLA • Moya OÑATI



OROIGARRIA

Juan Cortabarría Madina



2024ko urriaren 30ean hil zen.

Zure alaitasuna eta irribarrea gurekin egongo dira betirako.

Barrenekuako sendia.
Oñatin, 2024ko azaroaren 8an.

OROIGARRIA

Jesusa Mugica Garitano



2024ko azaroaren 1ean hil zen.

Lurrak goxo har zaitzala, amama. Zurekin bizitako momentu danak gurekin eramango ditxugu beti.

Etxekoak.
Bergaran, 2024ko azaroaren 8an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarría edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 220 € / Goienakideko bazkideendako 195 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 195 € / Goienakideko bazkideendako 160 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.



URTEURRENA

Gori Larrañaga Gallastegui



2023ko azaroaren 29an hil zen, 91 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 10ean, 12:30ean, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2024ko azaroaren 8an.

URTEURRENA

Roman Gallastegui Unamuno



2023ko azaroaren 24an hil zen, 85 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 10ean, 12:30ean, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2024ko azaroaren 8an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ
Egubakoitza, 8 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Zapatua, 9 IRIZAR: Erquin 11 7 943 79 12 39
Domeka, 10 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Astelehena, 11 ESPAÑOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Martitzena, 12 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Eguaztena, 13 JAIO: Zaruvalde 38 / 943 77 16 30
Eguena, 14 AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15
BERGARA EGUNEZ
Egubakoitza, 8 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05
Zapatua, 9 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Domeka, 10 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Astelehena, 11 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Martitzena, 12 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguaztena, 13 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Eguena, 14 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK
Egubakoitza, 8 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Zapatua, 9 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Domeka, 10 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Astelehena, 11 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Martitzena, 12 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguaztena, 13 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguena, 14 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
ARRASATE GAUEZ EGUNERO (22:00etatik 09:00etara)
Urtea bukatu arte: FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
BERGARA GAUEZ EGUNERO (22:00etatik 09:00etara)
Urtea bukatu arte: OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

BERRI-ZAKUA



Gau Beltza ospatzen

Ipuin kontaketak, antzerki laburrak, kalejirak eta dantzak egin zituzten Debagoieneko herrietan, Gau Beltza ospatzeko. Arimen Biltzarren inguruan batu ziren, askotariko ekintzak egiteko. Beldurra sentitu zutenei laguntzen ibili ziren harrapakariak, beldurrak jaso eta sutara botatzeko.



400 jokalaria 2024-2025eko denboraldian

Aloña Mendiren futbol sailak taldeak aurkeztu zituen azaroaren 1ean. Talde-argazkiak egin zituzten, eta erakutsi zuten futbol saila "osasuntsu" dagoela. Futbol eskolatik hasi eta Ohorezko Erregional Mailara arte dituzte taldeak, hainbat kirol helbururekin. Guztira, hamalau talde.

ASTE A GOIENA TELEBISTAN

**'GIPUZKOAN EGINA'**

Oñatiko Natra txokolate-fabrika eta Arroagoiko Bidasoa Inprimatzeko Zentroa ezagutzeko aukera.

'Gipuzkoan egina' Egubakoitza, 20:30 eta 22:30

**BEHOBIA-DONOSTIA**

Urteroko lasterketa jendetsuenak ematen duenaren laburpena, Debagoieneko korrikalarien eskutik.

'Harmailatik' Astelehena, 20:00 eta 22:00

**GALDERA-ERANTZUNEN JOLASA**

Bailarako herrien arteko tribial jokoarekin joango da Oñatira Aitor Agiriano. Zenbat asmatuko dituzte txantxikuek?

'Bixi ibili!' Martitzena, 20:00 eta 22:00

**ARDI LARREEN LEKU ALDAKETA**

Lur Pagoaga artzaina Degurixatik Aretxabaletara eramango ditu ardiak. Gontzal Belategi harekin egongo da.

'Hemen Debagoiena' Eguaztena, 19:30, 21:30 eta 23:30

**JON GARAÑOREKIN SOLASALDIA**

Marco filmaren zuzendarietako bat da Garaño. Filma ikusgai dago aretoetan, eta Goiatz Aranarekin egingo du berba, grabaketa-lanaz.

'Berbagai' Eguaztena, 20:00 eta 22:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 8**ARETXABALETA Tute eta mus txapelketak**

Erretiratuendako: tutea 11:00etan eta musa 16:00etan.
Gurea tabernan.

ARETXABALETA Menopausia tailerra

Informazioa jaso eta esperientziak partekatzeke.
Osasun zentroan, 12:30ean.

ARRASATE Menopausia tailerra

Informazioa jaso eta esperientziak partekatzeke.
Osasun zentroan, 13:00etan.

BERGARA Adimen artifiziala dendariendako

Bi orduko ikastaro, Sonia Perezekin.
Irizar jauregian, 14:00etan.

ELGETA Gaztaina erre janak

15:00etan eskolan eta 17:30ean Ozkarbi elkartearen.
Leku horietan.

ARETXABALETA Sareren batzarra

Gaur egungo egoera konpartitzeko eta, balorazio bat eginez, aurrera begirako ekimenak zehazteko.
Udaletxe zaharrean, 18:00etan.

OÑATI Gaztaina erreak

Gaztainak eta botila bat sagardo, bost euro.
Lagun Lekun, 18:00etan.

ELGETA Literatura solasaldia

Alberto Agirreazaldegiren *Heriotza Euskal Herrian* liburuaren gainekoa, egilearekin.
Liburutegian, 18:30ean.

ESKORIATZA 'Amaiur' dokumentala

Mendiarekin eta naturarekin erlazioatzeko moduak erakusten dituen lana. Debalde.
Zaldibar antzokian, 18:30ean.

ARRASATE Emakume* Abertzaleon X. Topaketa Feministen aurkezpena

Hilaren 16an Laudion egingo da topaketa. Ekitaldi irekia.
Irati topalekuan, 18:30ean.

OÑATI 'Zorretan' antzezlan

Amatasunari, zaintzari eta maitasunari buruzko tragikomedia absurdoa, Hika Teatroyen eskutik. Sarrerak, hamar euro.
Santa Anan, 19:00etan.

ARAMAIO Gantzagako jaiak

19:00etan, kanpai errepikak eta etxafuegoak; 19:30ean, kontzertu akustikoa; ostean, sandwichak eta pizzak; eta bukatzeko, DJ Tiger Brothers.
Gantzagatan.

BERGARA Bikustik taldea

Azaroa Gaztainatan ekimenaren baitan.
Osintxun, 22:00etan.

ZAPATUA 9**ARAMAIO Gantzagako jaiak**

09:00etan, kanpai-errepikak eta etxafuegoak; 12:00etan, meza; 13:00etan, bermut dantza eta bingo-jokoa; 17:00etan, mus txapelketa; 17:30etan, patata-tortilla lehiaketa; 17:30ean, umeendako tailerrak eta puzgarriak; eta 20:30ean, Akorde taldearekin dantzaldia. Ostean, txokolate-jana.
Gantzaga auzoan.

ESKORIATZA 'Marixol etxera!' mendi martxa

Hamabi kilometroko martxa, Sare Eskoriatzaren eta Atxorrotx Kultura Elkartearen eskutik.
Fernando Eskoriatza plazan, 09:30etan.

ARRASATE 'Baserritar jantzia burutik oinetara' ikastaroa

Buruko zapia, alkandora, gona, amantala, alpargatak... nola jantzen diren erakutsiko dute. Debalde.
Kulturolan, 10:30ean.

OÑATI Elkartasun azoka

Hotz Oñatiren eskutik.
Foruen plazan, 11:00etan.

OÑATI Bisita gidatu berezia Arantzazun

Jorge Oteiza en la *Basílica de Arantzazu: entre la obra religiosa y la escultura moderna* delako bisita egingo du Elena Martinezek,

gazteleraz. Izena emateko: 688 61 38 40 edo adiskideak@arantzazu.org.

Santutegian, 11:00etan.

ARETXABALETA Dantza tailerra

Dancehall estiloan murgiltzeko saioa egingo dute, Matilde Aizpurua gidatuta. Izena emateko: matildeaizpurua98@gmail.com.
Kuartelean, 11:00etan

ELGETA Saguzar-kutxak jartzeko auzolana

Hilerrri inguruko zuhaitzetan ipiniko dituzte.

Mendizaleen plazan, 11:00etan.

DEBAGOIENA Movember taldeen topaketa

Oinez edo bizikletaz joateko deialdia egin dute, eta ondoren parrilla piztuko dute, askotariko jakiak prestatu eta elkarrekin dastatzeko.
Elorregin, 11:30ean.

OÑATI Olagarro Eguna

Ordutegia: 12:00-14:00 eta 19:00-21:00. Prezioa: hamabi euro.
Pake Lekun.

ARAMAIO II. Kintada Eguna

13:00etan, triki-poteoa, Anboton hasita; 15:00etan, kantu bazkaria; eta 17:00etan, bingo-jokoa.
Aramaion.

OÑATI 'Pirata Garrapataren abenturak' antzezlan

2-12 urte arteko umeendako, Patata Tropicala antzerki taldearen eskutik, Urgainek gonbidatuta. Sarrerak, bost euro.
Oñati Institutuan, 17:00etan.

BERGARA 'Hamelingo txirularia' ikuskizuna

Iñigo Casalik eta Iñaki Elizalde 2008an egindako *El flautista de Hamelín* gaztelaniazko musikaren euskarazko bertsioa, BAMen eskutik, 17:00etan eta 19:00etan. Sarrerak, hoge euro.
Seminarixoan.

OÑATI Arantzazuko miko-poteoa

17:30ean, hitzaldia Gandiaga Topagunean; ondoren, miko-poteoa hanga jatetxeetan.
Arantzazun.



SOINUAK HAIZEAN ELKARTEA

ANTZUOLA Gaztaina erreak Erretiratuendako.
Landatxopen, 18:00etan.

ARRASATE 'Palestina, un siglo de resistencia' hitzaldia Taher Ali, Samidoun eta Al Yudur antolakundeetako kideak izango dira hizlariak.
Gaztetxean, 18:00etan.

ARRASATE Taldekako ginkana Gaztetxoendako.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

ARAMAIO 'Ihesi' antzezlanaren iduzkilore antzerki taldearen eskutik.
Kultura etxean, 19:00etan.

ARRASATE 'Minan' antzezlanaren izen bereko liburuan oinarritutako antzezlanaren Artedramaren eskutik. Sarrerak, hamar euro.
Amaia antzokian, 19:30ean.

OÑATI Anestesia eta Anker taldeak Sarrerak: hamabi euro aurrez eta hamabost euro leihatilan.
Gaztelekuan, 22:00etan.

DOMEKA 10

ARAMAIO Gantzagako jaiak 09:00etan, kanpai-errepikak eta etxafuegoak; 11:15ean, txistulari doinuak; 12:30ean, 42. Gantzaga Saria txirindulari igoera; 13:00etan, poteoa; eta 17:00etan, tute txapelketa.
Gantzagan.

LEINTZ GATZAGA San Milixan azoka Informazio osoa 19. orrian.
San Migel plazan.

OÑATI Jolas inklusiboak familian Arantzazuko ibilbide irisgarrian. Izena emateko: 943-78 28 94.
Parketxean, 11:00etan.

BERGARA Txistulari Bandaren kontzertua Azaroko kontzertua egingo du. Irekia, herritar guztiendako.
Osoko bilkuren aretoan, 13:00etan.

OÑATI 'Soinuak haizean' emanaldia Emozioetan zehar bidaiatzeko kontzertua egingo du Soinuak Haizean Elkartek, Musikegunetan. Horretarako, musika instrumentuak erabiliko dituzte: biolina, biola eta kontrabaxua, besteak beste. Sarrerak, zazpi euro.
Etzi, domeka, Santa Ana, 19:00etan.

BERGARA 'Hamelingo txirularia' musika ikuskizuna Bi saio: 17:00etan eta 19:00etan. Sarrerak, hoge euro.
Seminarixuan.

ARAMAIO 'Munduari itzulita 80 egunetan' antzezlanaren Sustrai Teatrotan eskutik, Eriz Alberdi aktorearekin.
Kultura etxean, 17:00etan.

ARRASATE Pegatina tailerra Gaztetxoendako.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

OÑATI Soinuak Haizean elkartearen Musikegunak egitasmoaren baitan. Sarrerak, zazpi euro.
Santa Ana antzokian, 19:00etan.

ASTELEHENA 11

DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea Antzuolan, Arrasaten, Bergaran eta Oñatin.
Herri horietan, 12:00etan.

OÑATI Menopausia tailerra Informazioa jaso eta esperientziak partekatzeke.
Osasun zentroan, 13:00etan.

OÑATI Haurren Irakurketa Kluba Peru Magdalenak gidatuta, LHko 4. eta 5. mailakoentzako.
Liburutegian, 17:00etan.

BERGARA Mizpirualderen Astea 17:00etan, barreterapia tailerra Virginia Imazekin; eta 18:15ean, musika eskolako hari eta biola ikasleak.
Mizpirualden.

MARTITZENA 12

BERGARA Mizpirualderen Astea Eva Akademiaren emanaldia; 18:15ean, musika eskolako trikitilariak.
Mizpirualden.

ARRASATE Idazketa tailerra Alejandro Fernandez Aldasorok gidatuta.
Kulturaten, 18:00etan.

ARRASATE Autodefentsa feministaren gaineko liburuaren aurkezpena Maitane Monroy egileak aurkeztuko du, gaztelaniaz.
Emakume Txokoan, 18:30ean.

ARRASATE 'Venezuela en el punto de mira' hitzaldia Salvador Gonzalezek eta Glenna Cabellok egingo dute berba.
Kulturaten, 18:30ean.

ELGETA Hitzez Pitz irakurketa taldea Adriano Mataren *Sanroketarako*, etxean liburuaren gainean.
Liburutegian, 19:00etan.

EGUAZTENA 13

BERGARA Aurpegiaren ezagutzaz eta identifikazioaz hitzaldia Jose Francisco Etxeberriak egingo du berba.
Seminarixuan, 10:00etan.

BERGARA Kafe Konpon Etxeko tresna txikiak konpontzeko tailerra.
San Joxepen, 16:00etan.

BERGARA Mizpirualderen Astea 17:45ean, flamenko jaialdia; eta 18:15ean, musika eskolako biolin ikasleak.
Mizpirualden.

ARETXABALETA Ipuin kontaketa 4-8 urte artekoentzako, Izaskun Mujikarekin.
Liburutegiko Txiki Txokoan, 18:00etan.

ARRASATE Komiki kluba Quan Zhou Wu idazlearen *Gazpacho agridulce: una autobiografía chino-andaluza* komikiaren gaineko saioa, Azucena Mongek gidatuta.
Kulturaten, 18:00etan.

ELGETA 'Energia argitu' tailerra Izena emateko: *energiabulegoa@gipuzkoa.eus* edo 605 75 76 87.
Udaletxean, 18:00etan.

ANTZUOLA 'Kharut 2, tontor birjina' dokumentala Koldo Zubimendirekin eta Vicente Barcenarekin, Arrolaren Mendi Astearen baitan. Ostean, solasaldia.
Torresoroan, 18:30ean.

ARRASATE 'Erdi Aroko euskal lurretako emakumeak' hitzaldia Janire Castrillok egingo du berba, Iragana Astintzen zikloaren baitan.
Kulturaten, 19:00etan.

BERGARA 'Los destellos' filma Zineklubean. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixuan, 20:00etan.

EGUENA 14

ESKORIATZA Odol ematea Ordutegia: 16:30-20:15.
Fernando Eskoriatza plazan.

BERGARA Mizpirualderen Astea 17:15ean, opera eta zarzuela emanaldia, Andonik zuzenduta; eta 18:15ean, musika eskolako dantzarien emanaldia.
Mizpirualden.

ARRASATE Txatxilipurdiren 30. urteurrena Kalejiran joango dira Seber Altubetik Kulturako aterpera. Han, 1994tik gaur egunera arte taldeko kide izan diren pertsona batzuen bizipenak

jasotzen dituen dokumental laburra erakutsiko dute, eta Txatxilipurdiren marka berria aurkeztuko dute.
Kulturoloko aterpean, 18:00etan.

BERGARA Zaintzako langile diren emakume migratuentzako mahai ingurua Maria Juncay eta Silvia Carrizo izango dira hizlariak.
Irizar jauregian, 18:00etan.

ARETXABALETA Txalaparta ikastaroa Sutunpa txalaparta elkartearen eskutik. Bigarren saioa.
Kuartelean, 18:00etan.

ANTZUOLA Irakurle taldea Karnele Jaiaren *Maitasun kapitala* liburuaren gaineko saioa, Elaine Agirrek gidatuta.
Liburutegian, 18:00etan.

ARETXABALETA Literatura solasaldia Mikel Zubimendiren *Han egon zen* liburuaren gaineko saioa, Mikel Antzak gidatuta.
Arkupen, 18:30ean.

ARETXABALETA 'Haziak' liburuaren aurkezpena Hazi kontuetan aditu Miguel Arribas Kelo-k eta Marc Badalek idatzitako liburua. *Kelo* egongo da ekitaldian.
Arkupen, 18:30ean.

BERGARA 'Imago Vasconiae' liburuaren aurkezpena Euskal Herriko lehen atlas kartografiko historikoa aurkeztuko du Jose Mari Esparzak, Olaso Fundazioak gonbidatuta.
Olaso dorrean, 19:00etan.

BERGARA 'Sexualitatea prostatak minbizia sendatzean' hitzaldia Lola Dacostak egingo du berba, *Movember gara 2024* egitarauaren bultan.
Irizar jauregian, 19:00etan.

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Old Time Spooks Punkaren uhinetan baina doinu akustikoagoetan mugitzen den taldea duela bi urte sortu zen Gasteizen. Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.



AZKEN BERBA

MIKEL BIAIN

Konpetentzietan hezteaz

Hezkuntzaren baitan aldaketa berezko osagaia da. Aldaketak askotarikoak diren arren, bada bat, nire iritzian, bereziki aipagarria dena: aurrerantzean ikasleak konpetentzien arabera ebaluatzea.

Oro har, iruditzen zait ziaiboga honen norabidea egokia dela, nahiz eta ziaiboga bera ez den egun batetik bestera egiten den horietakoa. Izan ere, egoera berrira egokitzeko ahalegin berezia eskatzen du irakasle, ikasle zein familien aldetik. Baina, esan bezala, helburua kontuan izanik merezi duelakoan nago.

Hezkuntza formalean oso errotua dago momentu jakin batean ikasgai jakin bateko jakintza zehatz baten inguruko ebaluazioa egitea, eta honek, sarritan, hezkuntzak berezkoa duen helburu gorena bistaz galtzea dakar; ikasleak bizitzarako hezteaz, alegia. Santiago bideko erromesaren metafora datorrit burura, zeinak bidean hiru hargin ikusi omen zituen lan berdina egiten. Zertan ziharduten galdetuta: lehenengoak "harria zizelkatzen" erantzun omen zion; bigarrenak, "harlandu ahalik eta karratuen atera"; eta azkenak, "katedral eder hori eraikitzen". Hirurak ere lan bertsuan, baina ikuspegi erabat ezberdinak.

BUKATZEKO

Trena joskintza-tailer bihurtuko dute domekan

Josteko zaletasuna duten guztiak gonbidatuta daude Donostia eta Bilbo artean egingo den tren bidaia batean parte hartzera. Trena 09:50ean irtengo da, Donostiako Amaratik. Bergarako Maribel Carazok antolatu du ekimena

Sara Lanz Azpiazu BERGARA

Donostiatik Bilbora trenez egingo den topaketa batean parte hartzera gonbidatuta daude ehungintza-zale guztiak: azaroaren 10erako, tren bidaia berezi bat antolatu du Bergarako Black3 Bordados dendako Maribel Carazok. Ez da lehenengo aldia. Irail amaieran egin zuten beste bat, eta, emaitzarekin pozik, errepikatzea erabaki dute. Bergarako tailerreko dozena bat lagun inguruk hartuko dute parte eta Eibarko Ardantza geltokian hartuko dute trena, 11:13an. Laugarren bagoian bidaiatuko dute, eta asmoa da puntuan eta kakorraz lanetan aritzea. Nahiko lukete trenak ibilbidean egiten dituen geltokietan ehungile gehiago igotzea. Elkarrekin egin nahi dute bidaia, elkar ezagutzeko eta zaletasun horri ikusgarritasun handiagoa emateko.

Begarako taldeak hilero antolatzen ditu antzerako topaketak, eta euren asmoa da domekako tren bidaiaren ostean kafe bat hartzea Bilbon, eta bertako artisautza-azoka batera joango dira. Beste topaketa berezi batzuk ere iragarri dituzte; hurrengo elkarretaratzea urtarrilean izan-



Legazpitik Donostiara trenean josten, irailean. MARIBEL CARAZO



Elgetan egindako gosaria, urrian. L.Z.L.

go da, orain egingo dutenaren kontrako noranzkoan, Bilbotik Donostiara.

Aurreko elkarretaratzeak

"Ez da horrelako elkarretaratze bat antolatzen dugun lehen aldia; irailean, Legazpin trena hartu eta Donostiaraino kakorrazta eta puntua eginez egin genuen bidaia", azaldu du Carazok. "Bideo bat ikusi nuen Instagramen, eta inspiratu egin ninduen trenean josteko batzearen ideiak". Jendearen erantzuna pozez gogoratzen du Carazok: "Askok gu ikustean amonaz gogoratzen zirela esaten zuten; gizon bat hunkitu ere egin zen". Joskintza bizirik mantentzeko modu bat ere badela gaineratu du. Hala ere, ez sexurik ez adinik ez duen jarduera bat dela azpimarratu du.

Urriaren 26rako, gosari bat antolatu zuten Elgetako Janela tabernan. Kasu hartan ere, kakorrazak eskuetan. Horrelako elkarretaratzeetan su inguruan egotean sentitzen den berotasun hori sentitzen duela dio: "Babestua eta maitatua sentitzen zara".

Jostea baino gehiago

Ehugintza oso zabaldua dagoen zaletasuna dela dio Carazok, baina nor bere etxean eta bakarrik egiten dela, gehienetan. "Oso ona da estresa gutxitzeko eta denbora pasatzen laguntzeko. Sozializatzen ere laguntzen du, ordea. Gu astero elkartzeko gara, eta gure zaletasun bera duten beste ehungile batzuk ezagutu nahi ditugu". Gonbidapena, beraz, egin dago: domekan, Eusko Treneko laugarren bagoian.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

**DEBAGOIENDARRAK
BEHOBIA-DONOSTIA
LASTERKETAN**

'HARMAILATIK' SAIOAN
AZAROAREN 11N, ASTELEHENA,
20.00ETAN ETA 22.00ETAN



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.

